



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2020ko maiatza

**GAZTEAK EUSKARAREN
ESZENATOKIAN:
ERABILERAREN AUZIA**
**Euskararen erabilerarekin
lotura duten faktore
kualitatiboak**



Zuzendaria: Jone M. Hernández García

Ikerlariak:

Iñigo Beitia Zabala
Josu Ozaita Azpiroz
Ainara Santamaria Barinagarrementeria

Txostenaren diseinua: Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)

Proiektuaren koordinatzailea: Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterra)

Sustatzaileak:



Babesleak:

Amorebieta-Etxanoko Udala
Gernikako Udala
Pasaiaiko Udala
Zumaiako Udala
Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Aurkibidea

1. SARRERA	4
1.1. Ikerketaren planteamendu orokorra	4
1.2. Ikerketaren helburuak	6
1.3. Ikerketaren planteamendu metodologikoa	7
1.3.1. Gazteen (hizkuntza) ideologiak	15
1.3.2. Gazteen (hizkuntza) guneak/kokaguneak	15
1.3.3. Gazteen (hizkuntza) bizipenak	16
2. GAZTEAK EUSKARAREN ESZENATOKIAN, HERRIZ HERRI	17
2.1. Gernika	17
2.1.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza	17
2.1.2. Gazteen hizkuntza ideologia: euskarari buruzko ideiak	25
2.1.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena	30
2.2. Amorebieta-Etxano	36
2.2.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza	36
2.2.2. Gazteen hizkuntza ideologia, euskararen gaineko ideiak	48
2.2.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena	54
2.3. Zumaia	58
2.3.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza	58
2.3.2. Gazteen hizkuntza ideologia: euskararen gaineko ideiak	66
2.3.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena	71
2.4. Pasai Donibane	76
2.4.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza	76
2.4.2. Gazteen hizkuntza ideologia: euskararen gaineko ideiak	83
2.4.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena	88
3. HIZKUNTZA BIZIPENAK. EUSKARA NAIZ, EUSKARA DAUKAT, EUSKARAZ ARI NAIZ 94	
3.1. Euskara "ni"aren parte	96
3.2. Bizi naizenaren parte	99
3.3. Euskara arau sozialen amaraunean	101
4. ONDORIOAK	104
4.1. Hizkuntza ideologiak	105

4.2. Hizkuntza praktikak.....	107
4.3. Hizkuntza bizipenak	109
4.4. Azken oharrak	110
5. BIBLIOGRAFIA.....	113
6. ERANSKINAK.....	114
6.1. Ikerketaren lehenengo fasea	114
6.1.1. Adituekin-Arituekin elkarrizketa egiteko gidoia	114
6.1.2. Herriko ibilbidea egiteko gidoia	116
6.2. Ikerketaren bigarren fasea	118
6.2.1. Hizkuntza ideologiak: talde elkarrizketa egiteko gidoia	118
6.2.2. Hizkuntza praktikak: talde elkarrizketa egiteko gidoia	121
6.2.3. Hizkuntza bizipenak: egunerokoa egiteko gidoia.....	123
6.3. Material grafikoa	125
6.3.1. Gernika	125
6.3.2. Amorebieta-Etxano	129
6.3.3. Zumaia	4
6.3.4. Donibane-San Juan.....	5

1. SARRERA

Ikerketa hau Soziolinguistika Klusterrak bultzatu du hainbat erakunderen dirulaguntzekin. Gazteek euskararekin duten lotura eta harremana aztertzeke xedea du egitasmoak. Harreman horretara hurbiltzeko hizkuntza praktiketan jarri dugu arreta, eta erabileran eragiten duten faktore kualitatiboak ezagutu nahi izan ditugu.

Gazteek, esan gabe doa, rol garrantzitsua jokutzen dute euskararen agertokian. Haien bizipenek, pentsaerek eta portaerek jakin-min handia sortzen dute, eta horiek ezagutzea estrategikoa da euskararen biziberritze prozesua bideratzeko. Horretaz jakitun baita Soziolinguistika Klusterra, hainbat izan dira arlo hori ikertzera bideratutako lanak. Garrantzitsuenak aipatzearren, hona hemen hiru erreferentzia:

- Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku hartzeko gida: *Erabileraren GPSa* ikerketa proiektua (2011)
- Haur eta gazteen euskarazko sozializazioa aisialdiko kirolean: *D ereduko kirola* ikerketa proiektua (2016tik aurrera)
- Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileren azterketa: *ARRUE* proiektua (2004tik aurrera).

Ibilbide horren hurrengo urratsa da "*Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*" ikerketa hau, lehengoak osatzera datorrena.

Etorri, 2018an abiatutako ikerketa batek bultzatuta etorri da. Duela bi urte, ikuspegi orokorrago batetik ekin zitzaion erabilerarekin lotura duten faktoreak identifikatzeari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako datu soziolinguistiko eta soziodemografikoen azterketa estatistikoa egin genuen, Natxo Sorolla soziolinguistarekin batera (Sorolla, Altuna, Larrea, 2019). Ikerketa horren ondorioetan nabarmendu zen komeni zela gazteen erabilera tipologia jakineko herrietan sakonki ikertzea. Hala, lan horrek markatutako ildotik, lau udalerrri aukeratu ditugu lan honetarako: Amorebieta-Etxano, Gernika-Lumo, Pasaia (Donibane), eta Zumaia. Horietantxe aritu gara, gazteei buruz baino gehiago, gazteekin, beren bizipenei hitzak jartzen eta beren portaerak xehatzen.

Metodologiari dagokionez, bide berri bat proposatu du ikerketak. Bide horretan, hiru ardatzek gidatu dute informazioaren bilketa eta analisia: hizkuntza ideologiak, hizkuntza guneak eta hizkuntza bizipenak. Ardatz horien ikuspegia bateratzeak aukera eman du, gazteen errealtatea sakonago ezagutzeko eta hizkuntza praktiken gakoak hobeto ulertzeko.

1.1. IKERKETAREN PLANTEAMENDU OROKORRA

2018. urtean abiatutako ikerketa lerroaren jarraipena zenez, lehenengo fasean lortutako emaitzak aintzat hartu ziren ikerketa kualitatiboa diseinatzeko. Hala, ikerketa egiteko, euskarak gaztelaniak bezainbesteko presentzia duen lau herri hautatu ziren: hain zuzen ere, gazteen euskararen erabilera maila herriko erabilera maila orokorra baino altuagoa den bi herri, eta gazteen euskararen erabilera maila herriko erabilera maila orokorra baino baxuagoa den beste bi herri. Beraz, lau herri horietako gazteen ahotsekin osatu da dokumentu honetan aurkezten den ikerketa kualitatiboa. Lau herri horiek Gernika, Amorebieta-Etxano, Zumaia eta Donibane dira, lehenengo biak Bizkaian kokatuak, eta azkenengo biak, Gipuzkoan.

Ikerketa bi fasetan gauzatu da. Lehenengo fasean, hautatutako herri bakoitzaren errealitateari hurbilpen bat egin zitzaion, betiere gazteen errealitateetik eta gazteen begiradatik. Herri bakoitzeko gazteen ezaugarriak, bizimodua, errutinak, dinamikak edo harremanak jaso eta aztertu ziren. Hizkuntzaz eta euskararen egoeraz ere mintzatu zen lehenengo fasean, baina helburu nagusia euskararekiko lotura horri testuingurua jartzea izan zen. Nolabait esateko, erabileran eragiten duten kanpo faktoreak izan ziren lehenengo momentu hartan protagonistak eta, zehazki, gazteen errealitatea osatzen duten kanpo faktoreak.

Oinarrizko hurbilpen horrek aukera eman zigun herri bakoitzeko gazteria hobeto ezagutzeko, baita ikusteko ere zer egoera edo ezaugarri partekatzen zituzten herri ezberdinetako gazteek. Análisi horretatik abiatuta, ikerketaren bigarren fasearen diseinuari ekin zitzaion. Fase horretan gazte hiztunengan jarri zen begirada, euren (hizkuntza) egunerokotasunari, euren (hizkuntza) praktikei, eta, oro har, euren (hizkuntza) errealitatea gurutzatzen edo zeharkatzen dituzten hiru ardatzei erreparatuz: ideologikoa (idea, errepresentazio, iritzien mundua), praktikei eta harremaneei lotutakoa (adinkideen artean sortutako erreferentzia taldeak eta horien jarduna), eta bizipen zein emozioekin harremanetan dagoena (kasu honetan norberaren bizipenak eta emozioak).

Euskarak hiru dimentsio horietan duen presentzia/ausentzia aztertu nahi genuen, bakoitzaren ezaugarriak ezagutzeko asmoz. Zer diskurtso dute gazte horiek euskararen inguruan? Zer pentsatzen dute beren egoeraz? Zer iritzi dute euskalgintzari buruz edo hizkuntza politikari buruz? Bestalde, non dago euskara euren eguneroko praktiketara? Non dago euskara haietzako erreferente diren esparruetan? Esparru horietan, zer elementuk ahalbidetzen dute euskararen presentzia handiago bat? Azkenik, zer lotura pertsonal dute gazteek euskararekin? Zer pisu du euskarak euren mundu emozionalean, euren burua definitzeko eta agertzeko moduan? Oro har, zer bizipen dituzte hizkuntzarekin eta euskararekin lotuta?

Bigarren fase hori amaitzean hasierara bueltatu ginen, lortutako informazioa eta materiala berriz bere testuinguruan kokatzeko. Batetik, ikusi nahi genuen gazteen mundu horretan zer toki duten herriak, bizitokiak, eguneroko espazio eta errutina horiek...; bestetik, aztertu nahi genuen euskara horietan nola uztartzen den, edo ez den uztartzen. Gaude euskararen erabileran gertatzen dena hobeto ulertzeko bi norabideko irakurketa bat egin behar dela: gizartetik hizkuntzara eta hizkuntzatik gizartera. Gure kasuan, gazteen mundutik hizkuntzara, eta hizkuntzatik gazteen mundura.

Esan dugun moduan eta txostenean ikusiko denez, ariketa honetan hiru aspektuetan jarri dugu arreta bereziki: (1) ideologian, (2) praktiketara, eta (3) bizipenetan. Hiru aldagai horiek ez dituzte interpretazioak agortzen, baina guretzako banaketa lagungarria izan da, gazteen kontakizunak (gure lehengaia), nagusiki, hiru alderdi horiek ukitzen dituztelako. Euskararekin lotutako ideiez, baloreez eta balioez hitz egin digute, baita euskararekin egiten dutenaz edo egiten ez dutenaz ere (norekin egiten duten, norekin ez; noiz egiten duten eta noiz ez; eta abar.). Azkenik, arlo emozionala edo afektiboa genuke, askotariko hizkuntza bizipenei eta esperientziei lotuta dagoena.

Esan den moduan, banaketa lagungarria egin zaigu ikerketa aurrera eramateko, analisia egituratzeko eta ondorioak ateratzeko. Halere, jakitun gara hiru maila hauek ez

direla elementu isolatuak, bakoitzak ez duela bere bidea "bakarrik" egiten. Elkarloturik daude, eta elkarri eragiten diote. Baina, bananduta aztertzean, bakoitzaren pisu erlatiboa agertzen zaigu, baita bakoitzaren aukerak eta ahulguneak ere.

Orain, ikerketa amaituta, pentsatzen dugu banaketa horrek ikerketa honetan joko eman duela, baina azpimarratu nahi dugu planteamendu hau apustu bat ere badela, ikerlari gisa dugun ikuspegiaren isla dena. Abiapuntuan, galdera, susmo eta hipotesi jakin batzuk daude, eta, prozesu osoa diseinatzerakoan, horiekin modu koherentean jokatzeko garrantzitsua iruditzen zaigu, planteamendua mugatua eta partziala izango dela jakin arren. Daukagun ikuspegiak ikerketa blaitzea nahiko genuke; batetik, kontzienteagoa izateko egiten dugunaz eta egiten dugun horrek duen oinarriaz, izaeraz eta inplikazioaz; bestetik, ikerkuntza jardun soziala dela sinisten dugulako (Bucholtz, Casillas, Lee 2016, 27): ezinbestean eraikia, subjektiboa, aldakorra eta malgua da, izaera anitzeko harremanen mataza batean harrapatuta bizi delarik.

Hori esanda, eta luzamendu gehiagorik gabe, ikerketak eman duena azaltzeari ekingo diogu. Hori baita txosten honen helburua. Horretarako dokumentua lau ataletan antolatu dugu. Batetik, sarrera hau bera dugu. Bertan, ikerketaren helburuak eta helburu horiei erantzuteko planteatutako metodologia azalduko ditugu. Bestetik, txostenaren atal nagusia dugu. Horretan, ikerketan parte hartu duten lau herrien egoera aztertuko da, herriz herri. Herri bakoitzari eskainitako atalean, hasieran, testuinguru etnografikoaren berri emango da, eta bertan datu orokorrak zein hizkuntzarekin lotutakoak agertuko dira. Jarraian, beste bi atal landuko dira. Batean, gazteen hizkuntza ideologiak aztertuko dira; bestean, gazte horien hizkuntza praktiketan murgilduko gara. Eskema bera erabiliko da, herri bakoitzaren egoera azaltzeko. Ondoren, hirugarren atalean, gazteen hizkuntza bizipenen aurkezpenari ekingo zaio. Kasu horretan, analisisa ez da herriz herri gauzatu. Aldiz, gazteen testigantzak modu bateratuan landu dira, eta hiru ardatzen arabera antolatu ditugu, gazte bakoitzaren herria zein den kontuan hartu gabe.

Txostenaren laugarren puntuan, ondorioak aurkeztuko ditugu. Bertan, ikerketak eman duenaren laburpena eta, gure ustez, azpimarratu beharreko ideia nagusiak bilduko ditugu.

Txostenak ere baditu eranskinak. Horietan, ikerketa prozesuan -erabilitako ikerkuntzarako teknikak direla eta- sortutako gidoiak txertatu ditugu, gure lan tresnak zeintzuk izan diren ezagutarazteko asmoz. Gainera, lekuan lekuko lana egin bitartean ateratako argazkiak eta bildutako material grafikoa jaso ditugu.

Eta aurkezpena amaituta, goazen ba txostenaren mamia azaltzera.

1.2. IKERKETAREN HELBURUAK

Lan honen eragileak, alegia Soziolinguista Klusterrak, ikerketa prozesuaren abiapuntuan definitu zuen moduan, azterketa honen helburu nagusia gazteen euskararen erabileran eragiten duten aldagai kualitatiboak ezagutzea eta ikertzea da.

Gazteen artean, euskararen ezagutza maila parekoa denean, erabilerak gorantz edo beherantz egiteko arrazoiak bilatu nahi izan dira. Horregatik bi herri tipologia aukeratu dira. Goian azaldu den moduan, bitan (Gernika eta Zumaia), gazteen erabilera altua dela esan dezakegun bitartean, beste bitan (Amorebieta-Etxano eta Donibane)

espero zena baino baxuagoa dela diote datuek. Fenomeno horren atzean testuinguruarekin lotutako faktoreak azaleratu nahi izan dira, erabileran eragin dezaketen elementu soziokulturaletan arreta berezia jarritz.

Praktikan, ikerketaren asmoak hauek izan dira:

- Gazteen errealitatera eta egunerokotasunera hurbiltzea, beren bizitzan eta beren harremanetan garrantzitsuak diren elementuak jasotzea eta aztertzea.
- Erradiografia horretan kokaturik, gazteek hizkuntzen inguruan, eta bereziki euskaren inguruan, dituzten ideiak (ideologiak), garatzen dituzten praktikak eta pilatzen dituzten bizipen zein sentimenduak jasotzea eta aztertzea.

Gazteen errealitatea, egunerokoa eta testuingurua hizkuntza edo hizkuntzen gaineko ideiei, praktikei eta bizipenei lotuta daudela pentsatzen dugu. Eta ideia hori izan da, eta da, azterketa honen iparra. Hitzuna eta hizkuntza sare konplexu batean ikusten dugu, aldagaiez, pertsonez, harremanez, gauzez, ideiez, sentimenduz... beterik. Amarauna horrek osatzen du hitzuna, eta hitzuna amarauna horren parte da. Gure iritziz, elementu horien arteko elkarrizketan ez bada, euskararen erabilerarako ga-koak ezingo ditugu topatu.

Abiapuntu horretatik, ikerketa honen planteamendu metodologikoa diseinatu genuen. Jarraian, horren ezaugarri nagusiak azalduko ditugu.

1.3. IKERKETAREN PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Goian aipatutako amaraunean murgiltzeko asmoz, diseinu metodologiko berezi bat egin genuen, ikerketaren helburuak ipar gisa harturik.

Ikerketaren lehenengo fasean, herri bakoitzaren azterketa gauzatzeko bi teknika erabili ziren. Alde batetik, ikerketa abiatu bezain pronto, aztertu beharreko lau herrietan behaketa saio bana egin zen. Ikerlari bat bertara joan, eta herria zeharkatuz, horren lehenengo erradiografia egiten saiatu zen, besteak beste, herriaren antolaketa, itxura, zerbitzuen kokapena, kale bizitza, bilguneak, pertsonen arteko harremanak, elkarrizketak, edota hizkuntz paisaia aintzat hartuz. Bi orduko saioak izan ziren, eta ikerlariak horren emaitza idatzita utzi zuten eguneroko batean.

Lehenengo ariketa hori egin eta gero, berriemaileen bila hasi ginen. Bi profil behar ziren, eta helburua zen bakoitzetik gutxienez bi pertsona elkarrizketatzea herri bakoitzean. Batetik, gazteekin lan egiten duten edo beraien errealitatea ondo ezagutzen duten bi pertsona erreferente elkarrizketatu nahi genituen¹. Elkarrizketa horien helburua honako hau zen: gazteengana jo aurretik, herri horretako gazteriaren gaineko oinarritzko argazki bat edukitzea. Elkarrizketatu bakoitzari herriko gazteriari buruz

¹ Aurretik aipatu den moduan, elkarrizketa hauetan zein bestelakoetan erabilitako gidoia txosten honen eranskinean daude.

hitz egitea eskatu zitzaion, betiere bere esperientzia oinarri hartuta². Testigantza horiek oso baliagarriak izan ziren herrian kokatzen jarraitzeko, eta, batez ere, bertako gazteriarren gaineko oinarritzko informazioa jasotzeko.

Bestetik, herri bakoitzean, bi ibilbide gidatu egin genituen, bertako gazte batzuek lagunduta. Herria gazteen eskuetatik ezagutu nahi genuen. Zehazki, honako informazio hau eskuratu nahi genuen:

- Herriko gazteek euren denbora (librea) non, norekin eta zertan ematen duten ezagutzea. Modu apalean bazen ere, gazte horien bizimoduari buruzko oinarritzko informazioa jaso nahi genuen; toki bakoitzean gazte izatea zertan datzan ulertzeko saialdi bat izan zen.
- Gazteen ohiko guneen berri jasotzea, toki horiek kokatzea eta deskribatzea.
- Herriko "hizkuntza paisaia" eta, zehazki, gazteen gunetako "hizkuntza-paisaia" jasotzea eta deskribatzea.

Ikerlariarekin elkartu aurretik, ibilbide gidatuetan arituko ziren gazteei gogoeta ariketa bat egitea eskatu zitzaion: gazteen guneak kokatu behar zituzten herriko mapa batean (kolore ezberdinekin marraztu behar zituzten astean zehar edo asteburuetan erabiltzen diren guneak)³. Gero, ibilbide gidatuan zehar, identifikatutako esparru horiek bisitatu zituzten gazteek eta ikerlariak. Kasu batzuetan, gazteek argazki batzuk atera zituzten ibilbidean zehar⁴.

Lau herrietako elkarrizketak egiteko, generoaren irizpidea kontuan hartu nahi izan da. Ikerketa osoan, gizonezkoen eta emakumezkoen presentzia parekatzen saiatu gara. Profil bakoitzetik emakume bat eta gizon bat bilatzen saiatu gara, baina beti ez da posiblea izan. Jarraian emango ditugu berriemaile guztien datu zehatzak, baina aurretik, adinarekin zerikusia duen beste ohar bat eman nahi dugu. Gure lehenengo asmoa 18-24 urte bitarteko gazteekin aritzea bazen are, ikerketak aurrera egin ahala zaila egin zaigu tarte hori mantentzea, eta zenbait kasutan adina igo behar izan dugu partaideak lortu ahal izateko.

Ildo horretatik, aitortu nahi dugu, gazteekin ikerketak egiten urte asko daramatzagun arren (hamarkada pare bat behintzat), oraingo honetan gazteen parte hartzea lortzeko topatu ditugun zailtasunak ez ditugula inoiz izan. Ohiko prozedura erabili dugu, gizarte zientzietan ezaguna dena eta, zenbaitetan, "elur bolaren" teknika gisa izendatzen dena: ezaguna dugun jendearengana jo, beren ezagunen artean bilatzen ari ginen profilarekin bat egiten zuen norbaiten kontaktua eskatuz. Hori aplikatzeaz gain, zenbait kasutan euskara edo gazteria teknikarien bitartez egin da bilaketa. Modua edozein izanda, zailtasun asko topatu ditugu. Baina zailtasun horiek ulertzeko pista

² Pertsona horiek "adituztat" jo genituen, lana edo afizioa direla medio, harreman zuzena eta estua dutelako gazteekin.

³ Eskuratutako mapa guztiak material grafikoaren eranskinean jaso dira. Zumaiako eta Pasai Donibaneko mapak daude eskuragarri.

⁴ Argazki horiek ere material grafikoaren eranskinean jaso dira. Zornotzako argazkiak daude eskuragarri.

handirik ez. Batzuetan, gazteak ez zeuden prest, eta horrela adierazten zuten arrazoi zehatzik eman gabe; beste batzuetan, erantzuteko geratzen ziren, eta azkenean erantzuna ez zen iristen. Batzuetan, telefonoz abiatu da kontaktatzeko lana, baina, hainbatetan, ezin izan da zuzenean hitz egin, eta Whatsapp-en bidez izan dugu harremana. Bide horretatik ere batzuetan ez da erantzunik iritsi.

Ikerlari moduan, egoera berria izan da guretzako. Orain arte gazteekin egindako ikerketetan ez dugu aparteko lanik egin behar izan gazteen parte hartzea lortzeko. Kasu honetan sumatutako jarrerak, aldiz, zer pentsatu eman digute. Ondorio argirik ez dugu atera, baina esan behar da, batzuetan, gaiarekiko interes gutxi adierazi dutela gazteek, eta beste batzuetan, berriz, oso gainezka irudikatu ditugula. Horrela-koetan gainkarga bezala ikusten zuten luzatzen zitzairen gonbidapena.

Orain arte esandakoari lotuta, aipatu nahi dugu ikerketan parte hartu duten gazteek profil jakin bat dutela: asko gazte "aktiboak" dira (erakunde, elkarte edo herri mugimenduetan dabilta), eta, oro har, euskararekiko atxikimendu bat dute. Ezagupen maila ezberdina badute ere, denak euskaldunak dira.

Ikerlariontzat, gazteak ikerketa objektu eroso izan dira, eta dira. Normalean eskura izaten ditugu gazteak, eta, oro har (edo orain arte behintzat), denbora eta gogoia izaten dute parte hartzeko. Ildo horretatik doa Joan Pujolarrek (2008) egindako hausnarketa. Egileak gazteek hizkuntza plangintzaren ikuspegitik sortzen duten ikusmira (eta hainbatetan egonezina) izan du sarritan mintzagai. Haren ustez, bi dira fenomeno horren arrazoi nagusiak (Pujolar, 2008:1). Alde batetik, gazteak; hau da, hiztunen belaunaldi berriak, etorkizunerako haziak kontsideratzen dira normalean, eta haien parte hartzea ezinbestekoa da, hizkuntza gutxituak berreskuratzeko prozesuetan. Bestalde, Pujolarrek dioenez, gazteak beste populazio talde batzuk baino esku-ragarriagoak dira.

Garaiak aldatu direla dirudi, eta agian hemendik aurrera gazteekin ikertzea ez da hain erraza izango. Agian, laster, gazteen gaineko ikerketak harribitxiak izango dira soziolinguistikaren eremuan, parte hartzeko gero erresistentzia gehiago adieraziko dituztelako, edo gazteak ohikoa izan duten tokian aurkitzeko arazoak sortuko dire-lako.

Ainara Santamaria Barinagarrementeriak, proiektu honetan parte hartu duen ikerlariak, Amorebieta-Etxanon egindako behaketa saioa eta gero, hau idatzi zuen bere egunerokoa:

Amaiera emango diot nire behaketa lanari. Zornotzan euskara oso polita hitz egiten dutela konturatu naiz baina gutxi entzun ahal izan dut. Bestetik, gazteak herri honetan non dauden jakin gabe itzuli beharko dut etxera. Hurrengora arte Zornotza!

(Egunerokoa, 2019-06-14)

Ziur aski ikerlariok hausnartu beharko dugu gure planteamendu metodologikoen inguruan, baita gazteengana hurbiltzeko moduen inguruan ere.

Zailtasunak zailtasun, denera, ikerketa osoan zehar 55 kidek hartu dute parte. Hori-etatik, 32 emakume eta 20 gizon. Adituen artean, adin tartea 18-49 urte bitartekoa izan da, eta, gazteen artean, 18-28 urtekoa.

Herriz herri hauek dira datu orokorrak: Gernikan, 13 pertsonak hartu dute parte, 7 gizon eta 6 emakume. Amorebieta-Etxanon, 13 pertsonak hartu dute parte, 6 gizon eta 7 emakume. Zumaian, 15 pertsonak hartu dute parte ikerketa, 3 gizon eta 12 emakume. Azkenik, Donibanen, 14 pertsonak hartu dute parte, 5 gizon eta 9 emakume.

Herri bakoitzean parte hartu dutenen xehetasunak⁵ ondorengo tauletan daude ikusgai:

⁵ Tauletan ikus daitekeen moduan, elkarrizketatuak izan diren pertsonen izen-abizenak eta bestelako erreferentzi pertsonalak ezabatu egin dira, euren anonimotasuna bermatzeko. Bakoitzari kode bat eman zaio, eta horrela izendatuko dira txosten osoan, bertan txertatzen diren aipuetan edo bestelakoan.

1. taula: PARTE HARTZAILEEN XEHETASUNAK. GERNIKA

	Adina	Sexu-generoa	Profila	Teknika
G1	24	Gizonezkoa	Iparragirre elk.	Elkarrizketa
G2	18	Emakumezkoa	Ikaslea	Elkarrizketa
G3	25	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
G4	20	Gizonezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
G5	28	Gizonezkoa	Iparragirre elk.	Talde elkarrizketa
G6	24	Gizonezkoa	Iparragirre elk.	Talde elkarrizketa
G7	28	Gizonezkoa	Iparragirre elk.	Talde elkarrizketa
G8	26	Gizonezkoa	Iparragirre elk.	Talde elkarrizketa
G9	23	Gizonezkoa	Bertso Eskola	Talde elkarrizketa
G10	24	Emakumezkoa	Astra	Talde elkarrizketa
G11	18	Emakumezkoa	Ikaslea	Talde elkarrizketa
G12	18	Emakumezkoa	Ikaslea	Talde elkarrizketa
G13	23	Emakumezkoa	Ikaslea	Egunerokoa

2. taula: PARTE HARTZAILEEN XEHETASUNAK. AMOREBIETA-ETXANO

	Adina	Sexu-generoa	Profila	Teknika
Z-1	49	Gizonezkoa	Kirol elkarte	Elkarrizketa
Z-2	24	Emakumezkoa	Gazte Txokoa	Elkarrizketa
Z-3	22	Gizonezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
Z-4	18	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
Z-5	18	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
Z-6	28	Emakumezkoa	Talde Feminista	Talde elkarrizketa
Z-7	19	Emakumezkoa	Ikaslea	Talde elkarrizketa
Z-8	22	Gizonezkoa	Musika banda	Talde elkarrizketa
Z-9	26	Emakumezkoa	Blogaria	Talde elkarrizketa
Z-10	27	Gizonezkoa	Lonja	Talde elkarrizketa
Z-11	28	Gizonezkoa	Lonja	Talde elkarrizketa
Z-12	22	Emakumezkoa	Ikaslea	Egunerokoa
Z-13	22	Gizonezkoa	Ikaslea	Egunerokoa

3. taula 3: PARTE HARTZAILEEN XEHETASUNAK. ZUMAIA

	Adina	Sexu-generoa	Profila	Teknika
ZU1	30	Gizonezkoa	Gazteria	Elkarrizketa
ZU2	37	Gizonezkoa	Irakaslea	Elkarrizketa
ZU3	24	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
ZU4	23	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
ZU5	24	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
ZU6	19	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
ZU7	24	Emakumezkoa	Ikaslea	Talde elkarrizketa
ZU8	25	Emakumezkoa	Euskalgintza	Talde elkarrizketa
ZU9	25	Emakumezkoa	Langilea	Talde elkarrizketa.
ZU10	25	Emakumezkoa	Langilea	Talde elkarrizketa.
ZU11	25	Emakumezkoa	Euskalgintza	Talde elkarrizketa.
ZU12	18	Emakumezkoa	Feminismo	Talde elkarrizketa.
ZU13	20	Gizonezkoa	Gazte mugimen.	Talde elkarrizketa.
ZU14	20	Emakumezkoa	Ikaslea	Egunerokoa
ZU15	20	Emakumezkoa	Ikaslea	Egunerokoa

4. taula: PARTE HARTZAILEEN XEHETASUNAK. DONIBANE

	Adina	Sexu-generoa	Profila	Teknika
D1	46	Emakumezkoa	Liburuzaina	Elkarrizketa
D2	43	Gizonezkoa	Kirola	Elkarrizketa
D3	19	Emakumezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
D4	24	Gizonezkoa	Ikaslea	Ibilbidea
D5	22	Emakumezkoa	Ikaslea	Talde elkarrizketa
D6	22	Gizonezkoa	Langilea	Talde elkarrizketa.
D7	19	Emakumezkoa	Kirola	Talde elkarrizketa.
D8	18	Emakumezkoa	Kirola	Talde elkarrizketa.
D9	19	Emakumezkoa	Kirola	Talde elkarrizketa.
D10	19	Emakumezkoa	Kirola	Talde elkarrizketa.
D11	19	Emakumezkoa	Ikaslea	Egunerokoa
D12	28	Emakumezkoa	Langilea	Egunerokoa
D13	20	Gizonezkoa	Ikaslea	Egunerokoa
D14	19	Gizonezkoa	Ikaslea	Egunerokoa

Egitasmo osoaren diseinuarekin bat eginik, lekuan lekuko lanean jasotako materiala ere bi fasetan landu da. Lehen fasean, adituekin egindako elkarrizketak eta gazteekin egindako ibilbideak aztertu, eta txosten bat idatzi zen. Bertan, material kualitatiboari beste bi informazio iturri gehitu zitzaizkion: batetik, lau herrietako datu estatistiko nagusiak jaso ziren EUSTATEko informazioa baliatuz; bestetik, lau herrietan egindako hizkuntza eta gazteei buruzko ikerketen bilduma osatu zen, herrietako euskara teknikariek helarazitako erreferentziekin. Horrela, aipatutako informazio guztiarekin herri bakoitzaren erradiografia orokorra zirriboratu zen, eta txosten forma eman zitzaion. Hortik abiatuta, ikerketa taldeak bigarren faserako diseinu epistemologiko eta metodologikoa burutu zuen.

Aurretik esan den moduan, ikerketa honen bigarren fasean euskararen erabilera gazteen iritzi, ahots eta esperientziatik jaso nahi genuen. Horretarako "erabilera" hiru ertz ezberdinetatik arakatu dugu. Hona hemen ertz horietako bakoitzaren "definizio" edo deskribapen laburra:

- (Hizkuntza) ideologia: euskara gizartean; euskararen gaineko hizkuntza politika(k), ideologia(k). Hizkuntza ideologia(k).
- (Hizkuntza) praktikak: gune edo espazio jakinetan euskarak duen presentzia (ahozkoa, idatzia edo bestelakoa); erabilera praktikoa; erabilera eta egoerak; erabilera eta harremanak.
- (Hizkuntza) bizipenak: erabilera sentitua, kokatuta eta performatua ("zer hizkuntza naiz", "zer hizkuntza daukat" eta "zer hizkuntza egiten dut"). Hizkuntza eta norbanakoaren identitatea.

Ardatz horiek lantzeko herri bakoitzean hiru dinamika egin ziren. Jarraian, horien azalpena emango dugu.

1.3.1. Gazteen (hizkuntza) ideologiak

Kasu honetan, hizkuntza ideologiaz hitz egitea litzateke helburua. Horrekin batera hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza ere izan dira hizpide. Dena gazteen errealitate eta ikuspegitik. Haien kezka eta interesetatik.

Horretarako, herri bakoitzean, hirukote bat edo eztabaida talde txiki bat (4-5 pertsona) osatu zen (antolatutako) ekimen edo egitasmoren batean parte hartzen duten gazteekin: talde feministetako kideak, Kuadrillategiko kideak, euskalgintzan ari direnak, gaztelekuan edo gazte elkarteren batean parte hartzen dutenak.

Kasu horretan, diskurtsoa bilatzen zen: errepresentazioak, irudiak, ideologia, pentsatzen dutena, haien iritziak.

1.3.2. Gazteen (hizkuntza) guneak/kokaguneak

Gazteen espazioak eta guneak arakatzea zen bigarren helburua, espazio edo gune horietan dagoen hizkuntza errealitatean sakontzeko. Gune horietan euskara non dagoen, eta non ez dagoen. Zer harreman eta nolako harremanak gauzatzen diren eta euskarak hor –harreman horietan- zer paper duen aztertu nahi genuen. Gune horietan gauzatzen diren praktikak interesatzen zitzaizkigun, eta praktika horiek euskaraz garatzeko dauden aukerak, trabak, eta abar.

Horretarako lau gune aukeratu genituen (herri bakoitzean bat, gazteen ohiko guneen errepresentagarria izan daitekeena), eta gune horien inguruan hitz egiteko bizpahiru pertsona elkartu genituen.

Hauek dira aukeratutako espazioak:

- Musikari lotutako gune bat (Gernika)
- Lokal edo lonja bat (Amorebieta-Etxano)
- Kuadrilla edo lagun talde bat (Zumaia)
- Kirol gune bat (Donibane)

1.3.3. Gazteen (hizkuntza) bizipenak

Norbanakoaren maila ere arakatu nahi izan dugu. Zehazki, hiru ideia lantzea proposatu zen: “euskalduna naiz” (noiz, zertan.., sentitzen naiz -edo ez- euskalduna), “euskara daukat” (zer hizkuntza dakizkit, nolakoa da nire konpetentzia, zer hizkuntzatan sentitzen naiz erosoen...), eta “euskaraz egiten dut” (noiz, norekin, zenbat hitz egiten dut euskaraz? Eta beste hizkuntzatan?).

Aipatu denez, gazte ezberdinek hiru ideia horien inguruan dituzten bizipenak jaso nahi izan ditugu. Horretarako astebetetz eguneroko labur bat eramateko eskatu genien. Egunerokoetan goian aipatutako hiru elementu horiekin lotutako pasadizo, pentsamendu, gertaera eta sentimenduak grabatzea (audioak egitea) eta ikerketa taldeari bidaltzea proposatu zitzaien.

Herri bakoitzeko bi gazte aukeratu ziren (ahal izan denean neska bat eta mutil bat). Azkenean, testigantza bat gehiago lortu genuen, eta denera hainbat hizkuntza profiletako bederatzi gaztek hartu zuten parte.

Teknika guztien bitartez jasotako testigantzak (baita egunerokoak ere) grabatu (audioan bakarrik) eta transkribatu ziren. Transkribapen horiek analisi eta interpretaziorako oinarria izan dira. Analisia bideratzeko, diskurtsoetan agerian geratzen ziren kategoriak zerrendatu, eta lantaldean eztabaidatu eta definitu ziren. Behin kategoria nagusiak adostuta eta bakoitzaren ezaugarriak finkatuta, transkribapenen lanketa zorrotzari ekin genion, hortik txosten honen edukia sortzeko. Diskurtso, testigantza, behaketa eta bizipen guzti horien fruitua da jarraian datorren analisia.

Ikus dezagun ikerlanak utzi diguna.

2. GAZTEAK EUSKARAREN ESZENATOKIAN, HERRIZ HERRI

2.1. GERNIKA

Gernikan jasotako informazioaren gaineko analisisia hiru ataletan banatu da: lehenik, testuinguru etnografikoaz hitz egingo da; ondoren, hizkuntza ideologiak izango dira hizpide; eta azkenik, hizkuntza praktiken inguruan mintzatuko da.

2.1.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza

Testuinguru etnografikoaren helburua herriaren ezaugarri nagusiak azaltzea da. Horretarako, bi atal nagusi bereizi dira: lehenengoan, datu etnografiko orokorrak aurkeztuko dira, eta bigarrenean, herriko hizkuntza testuingurua azalduko da. Jarraian, datu etnografiko orokorrekin hasiko gara.

Lehen kokapen bat egiteko asmoz, Gernikaren gaineko datuak emango dira. Orokorrak diren arren, beharrezkoak dira herriaren dinamika ulertu nahi baldin bada.

Gernika Bizkaia erdialdean dago kokatuta, Busturialdeko eskualdean. Biztanleriari dagokionez, 2018an 16.657 biztanle zituen (EUSTAT); gehienak (%77) Bizkaian jaiotakoak dira, eta % 12a, berriz, atzerritarra da (espainiar estatutik kanpokoa) (EUSTAT, 2018). Ikerketaren erdigunea gazteak direnez, aipatu behar da 15-24 bitarteko populazio dentsitatea % 9koa dela (EUSTAT, 2018). Bestela, Gernikako langabezia tasa % 10ekoa da, eta Bizkaikoa, berriz, % 13koa (EUSTAT, 2018).

Behin datu orokor batzuk ikusita, jarraian datu kualitatiboak azalduko dira. Datu horiek herrian egindako behaketa eta elkarrizketen bitartez eskuratu dira.

Gernikaren ezaugarri kualitatiboak aipatzeko orduan, derrigorrezkoa da bi elementu nabarmentzea. Batetik, Gernikako Batzarretxeaz hitz egin behar da, eta, bestetik, Gerra Zibilean pairatutako bonbardaketaz. Bi elementu horiek, oraindik ere, oso presente daude jendearen kontakizunetan. Pisu nabarmena dute diskurtsoetan, eta antzematen da herriari nortasun bereizi bat ematen diotela. Gazte batek horrela esan zigun: “bastante historia dekoagu” (G2). Egun, gainera, eta batez ere elementu horiei lotuta, turismoak gora egin du herrian, udan nagusiki. Halere, oraindik herri txikia da, eta guztiak ezagutzen dira. Herri hurbila da.

Bestela, bizirik dagoen herria dela esan daiteke. Ohikoa da herritarrek kalean aurkitzea. Herriaren erdigunean dauden bi kale nagusietan, gazteak (18-35 urte) kale bateko tabernetan elkartzen dira, eta “nagusiak” (seme alabak dituztenak, jubilatuenak...), berriz, beste kalekoetan. Goizetan, helduak maizago egon daitezke, poteren bat hartzen. Arratsaldean, berriz, eserita egon zaitezkeen taberna bateko terrazan gazte gehiago elkartzen dira, plan lasai batean; eta iluntze aldera, nahasketa ikus daiteke: jende heldua eta gaztea. Larunbat eta igandetan, familiak eta kuadrillak poteoan ibili ohi dira kalean.

Ondorioz, kalean, astegunaren eta ordutegiaren arabera, denetatik aurki daiteke.

Elkarrizketatuek esandakoaren arabera, “mugimendua” dago Gernikan, eta gauzak antolatzeke joera hautematen da: “bizirik dago herria, beti antolatzen dabez” (G2).

Are gehiago, proiekturen bat aurrera eraman nahi izanez gero, erraztasunak aurki ditzakezula diote. Bestalde, eragile asko dituen herri bat delakoan gaude. Gazteei begira daudenen artean, aipa daitezke, adibidez, Lilibertso bertso taldea, dantza eskolak, musika eskola, Trinkete, Astra, Iparragirre...⁶. Eragile horiek urtean zehar ekintza asko antolatzen dituzte; dena den, Astra izan daiteke herriak daukan eragile garrantzitsuena. Astra gaztetxe modura sortu zen, eta egun, hainbat ekimen egoten dira bertan (ikastaroak, tailerrak, eta abar.) aste osoan. Bestela, jendeak bilgune gisa ikusten du.

Azpimagarria iruditzen zaigu zerrendatutako eragile horietako batzuk (Astra bera, Iparragirre edo Lilibertso bertso eskola) Gernikatik kanpo ere erreferente izatea. Horregatik, askotan, Euskal Herri osoko jendea etorri ohi da haiek antolatutako ekimenera.

Oro har, goian izendatutako eragileen inguruan jende gaztea mugitzen da. Hala ere, teoriarik, antolatzen diren ekintzak (kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak...) adin tarte gutxiertara egoten dira zabalik. Praktikan, Astra da, adinari dagokionez, aniztasun gehien biltzen duen tokia; bestela ere, asko lagundu du kulturako beste arlo batzuetako jendearekin sinergiak sortzen.

Jada zerrendatutako bilgunez gain, Merkatu plaza aipatu beharko genuke. Bertan, kanpotik etorritako herritarrak biltzen dira: antza denez, nagusiki Errumania eta Latinoamerikatik iritsitakoak. Egunez plaza erdigunean kokatzen da, baina gauez Gernikako "periferia" bilakatzen da. Etorkin horiek normalean ez dute parte hartzen ekintza sozialetan; ez dira halakoetan agertzen. Hainbat elkarrizketatan esandakoaren arabera, etorkinek zaila dute Gernikako kuadrilla batean txertatzea. Salbuespenak egongo dira, noski, baina, antza denez, haien artean elkartzeko joera nagusitzen da.

Gainera, kirolak herrian duen indarra azpimarratu beharko litzateke. Gernikan elkarrizketatutako gazte batek aipatu zigunaren arabera, herriko bilgune nagusiak bi dira: kalea (poteoa bereziki) eta kirola. Hainbat kirol praktikatzen dira herritik atera gabe: nesken saskibaloia (indar handia duena), futbola, errugbia, zesta... Jende asko biltzen da kirol praktika horien inguruan. Elkarrizketatuek esandakoaren arabera, Gernikako errugbi taldeak eta futbolak giro dezente sortzen dute. Herrira begirako ekimenak ere antolatzen dituzte.

Kirola beraz, egunerokotasunean pisua daukan jarduera bat da, batez ere herriko gazteen artean.

⁶ Aipatu diren azken hiru erakundeen azalpena emango da jarraian, modu labur batez: 1) Trinkete lonja ireki bat da: bertako kideek lonja bezala daukate hartuta baina kontzertuak edo festak antolatzen dituzte (adibidez) herri osora zabaldua; 2) Iparragirre Gernikako rock elkarteak da: egun, 70 sozio inguru biltzen dira bertan, eta musika taldeentzako entseguetarako lokalak izateaz gain, kontzertu irekiak ere ematen dira (gune autogestionatu bat da); 3) Azkenik, Astrari dagokionez, gaztetxea dela esan daiteke; dena den, funtzio asko betetzen ditu, espazioa hainbat elkartek eta eragilek erabiltzen dutelako. Kuriositatez, aipatu nahi dugu hiru erakundeak, autonomoak diren arren, elkarlanean aritzen direla, eta gainera nahiko hurbil daudela bata bestearengandik espazio fisikoan.

Kirolaz gain, politika, kultura, musika... ere bada, denetarik dago. Ordaintzeko ekitaldietan, jende nagusia batzen da normalean, baina kontzertuetan gazte gehiago topa daitezke.

Orain, Gernikako gazteengan pausatuko dugu begirada une batez, herriaren inguruan osatzen ari garen argazki honetan haiek direlako arreta gune nagusia.

5-24 urte bitarteko gazteak Gernikako biztanleriaren % 9 dira (EUSTAT, 2018).

Gazteen bizimoduari dagokionez, aste barruko planak hauek izaten dira: ikastea (askotan liburutegian), kalean egotea edo terraza batean atsedena hartzea, kirola egitea, musika jotzea, hizkuntzak ikastea... Besteren batzuk lonjetan ere egoten dira. Oro har, astean zehar gazteak okupatuta daude.

Asteburuko plan edo zereginetan denetarik dago: lonjan egon, futbola, trago bat hartu, hondartza, mendia... Jendea mugitzen da kanpoko ekintzak egitera; ez dira beti herri barruan gelditzen. Ondo konektatua dago Gernika, toki asko daude eskura eta, plan ezberdinak direla eta, ohikoak izaten dira joan-etorriak. Gai baten inguruan topatu dugu adostasuna: bertako gazteei jaiak gustatzen zaizkie.

Halere, badago asko mugitzen den jendea, eta mugitzen ez dena. Elkarrizketatuko gazteek esaten zutenez, oraindik jende asko gelditzen da lonjetan. Esan daiteke gazteria ez dela oso militantea; oro har, ez dago kultura militante handirik. Politikoki nahiko herri lasaia da Gernika. Horregatik, agian "tributzat" har daitezke herri mugimenduetan ibiltzen diren gazteak. Talde feminista da "aktiboena". Errefuxiatuen gairekin ere jendea inplikatu da. Gazteak mugitzeko erreferentea gazte asanblada da.

Elkarrizketaturen batek Gernikako gazteak horrela ere sailka daitezkeela uste du: "pijoak", "kirolariak", "juergistak", "borrokak"...

Gazteriaren ezaugarriak honako hauek lirateke, oro har: Gernikan jaiotakoak, kuadrillan euskara asko darabiltenak, familia "tradizionalekoak" (aita, ama, arrebak...), diru aldetik asko-asko ez dutenak baina gutxi ere ez ("ondo bizitzeko moduan")...

Gazteetan, eskoletako kuadrillak mantendu ohi dira. Gernikan, 4 ikastetxe daude: ikastola, publikoa, La Merced, eta San Fidel. Ikastetxe bakoitzak ezaugarri desberdinak ditu, eta kuadrillak horien arabera egiten dira. Hasiera batean, txikitan, bakoitza bere eskolakoekin elkartzen da, eta institutuan (DBH eta Batxilerra batera daude) egiten da behin betiko kuadrilla. Aurretik esan den moduan, kanpotarrek zail dute Gernikako kuadrilla bat izatea; normalean beraien artean sortuko dute. Sexuari dagokionez, kuadrilla gehienak mutilenak edo neskenak dira, gero kalean denak batera ibiltzen diren arren. Egunerokotasunean ez da ohikoa kuadrilla osoa elkartzea (gehenez herriko jaietan elkartzen dira kide guztiak). Adinez aurrera egin ahala, eta kalean ibiltzean, talde mistoak sortzen dira.

Hala eta guztiz ere, herriko talderen batean sartzean (saskibaloitza taldean, gazte asanbladan, futboleko taldean, errugbian, musika eskolan, dantza eskolan...), ohikoa izaten da bertan daudenekin ere ibiltzea. Denborak aurrera egin ahala, taldekide horiekin ere afariak egiten dituzte, biltzen dira... Zaletasunen arabera sortzen diren taldeetan, gehiagotan nahasten da hainbat adinetako jendea.

Behin datu orokor horiek emanda, jarraian herriko hizkuntza testuinguruaz arituko gara. Horretarako, lehenik datu kuantitatibo batzuk azalduko dira, Gernikako hizkuntza mapa ezaugarritzeko asmoz; ondoren, datu kualitatiboaz mintzatuko gara.

Hasteko, euskararen ezagupenari dagokionez esan behar da Gernikan herritarren % 70 euskaldunak direla; ia euskaldunak, % 12, eta erdaldunak, berriz, % 19 (EUSTAT, 2016). Datu horietan sakonduz, aipa daiteke Gernikako biztanleriaren erdiak (% 51) euskara lehen hizkuntza gisa daukala; % 35ek lehen hizkuntza gisa gaztelania dute; eta, % 9k, berriz, euskara eta gaztelania dituzte lehen hizkuntzatzat. Bestela, herritarren % 6k euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat dute lehen hizkuntzatzat (EUSTAT, 2016).

Etxean hitz egin ohi den hizkuntzari dagokionez, berriz, % 39k euskaraz hitz egiten du normalean, eta % 41ek, gaztelaniaz; bi hizkuntza horiek batera erabiltzen dituztenak % 17 dira, eta beste hizkuntza bat hitz egiten dutenak, % 4 (EUSTAT, 2016). Gernikan, egunerokotasunean dagoen euskararen kale erabilera % 49,4koa da.

Arreta gazteengan jartzen badugu, datuak zerbait aldatzen direla ikusiko dugu. Euskararen ezagutzari buruzko datuek behintzat gora egiten dute. Adibidez, Gernikan 15-29 urte bitartekoen % 77 euskaldunak dira. Dena den, adin talde ezberdinei erreparatzen badiegu, alde nabariak aurki daitezke: Gernikan, 15-19 urte bitarteko gazteen % 92 euskaldunak dira; 20-24 urte bitartean, berriz, % 78; eta, azkenik, 25-29 urte bitartean; % 65 dira euskaldunak. Bestela, euskara lehen hizkuntzatzat duten gazteak % 72 dira, 15-19 urte bitartekoen artean; 20-24 urte artean, % 60k du euskara lehen hizkuntzatzat; eta azkenik, 25-29 urte bitartean, % 51era jaisten da zifra. Datu horiek orientagarriak diren arren, norabide bat erakusten dute: Gernikan gero eta gazteago izan, orduan eta aukera gehiago etxean euskara lehen hizkuntzatzat edukitzeko. Bestela, nabarmendu behar da gazteen portzentai garrantzitsu batek euskara etxetik kanpo ikasi duela.

Behin datu kuantitatibo horiek emanda eta Gernikaren profil soziolinguistikoa eginda, jarraian hizkuntzari loturiko datu kualitatiboak azalduko dira.

Hasteko esan behar da Gernika herri euskalduntzat hartzen dutela elkarrizketatuek.

Oro har, jendeak modu "naturalean" egiten du euskaraz; jendea euskaraz bizi da. Batez ere, ume txikiak dituzten guraso gazteak, adinekoak... Gernikako gazte baten hitzak dira hauek: "Gernikan jende bakoitzak zabaltzen du euskara" (G1). Gernikan gazteren batek gaztelaniaz egiten badu, etxean norbaitek ez dakielako izango da. Baserriko gazteek ("baserriko jentie") beti euskaraz egiten dute. Euskara batuan hitz egitea euskaraz "ondo" hitz egitearekin lotzen da. Gernikako gazteei euskara "azkarra" eta "itxitxe" hitz egiten dela iruditzen zaie.

Nerabezaroan erabiltzen da gutxien euskara. Nagusi izan nahi duzunean, "guayismo" puntu bat ematen dizu gaztelaniaz egiteak. Etxean, klasean... euskaraz "egin behar" dute, eta arau horren kontra jotzeko tentazioa izaten dute batzuek.

Euskararekin lotzen diren espazioak dira; batetik, Astra, eta, bestetik, taberna jakin batzuk. Oro har, gazteak dauden lekuak dira euskaldunenak (gazteen "zonaldeetan" euskara gehiago entzun daiteke, nagusien kalean edo "zonaldeetan" baino). Gure elkarrizketatuek diotenez, arraroa da Gernikan gazteak erdaraz entzutea.

Eskoletan euskara entzun daiteke. Kirola: futbola, zesta punta, saskibaloia... euskaraz. Entrenatzaileak euskara ez dakienean aldatzen da hizkuntza. Dena dela, kirolaren eta hizkuntzaren arteko harremanaren inguruan ez dago iritzi bateratu bat. Aurrerago ikusiko denez, badira gazteak kirolean euskarak duen presentzia urria salatzen dutenak.

Erdigunean gehiena euskaraz da. Etorkinak batzen diren auzoetan, aldiz, erdal giroa sumatzen da. Baina auzo horiek Gernikako periferia kontsideratzen dira.

Esandakoak esanda ere, aipatu behar da gazteen artean euskararekiko jarrera nahiko pasiboa sumatzen dela. Euskaraz "naturaltasunez" egiten da, besterik gabe. Eragin edo aldagai politikorik ez da bereziki sumatzen.

Hizkuntza egoeran sakontzeko asmoz, elkarrizketetatik ateratako informazioa aurkeztuko da jarraian. Bertan, lau aspektu nagusi identifikatu dira: lehenengoa, egungo mugikortasuna eta mundu digitalaren zabalpena; bigarrena, herria eta herriaren inguruko irudia; hirugarrena, herrian euskara erabiltzeko dauden aukerak; eta azkenik, herriak berak daukan kohesio edo trinkotze soziala. Jarraian, ezaugarri horiek azalduko dira. Hasteko, gazteek euren herriari buruz egindako gogoeta baino gehiago, egun herria gaingitzen duen errealitate bat aipatuko dugu, mugikortasunak eta mundu digitalak gazte horien aldebereko kokapen anitz ahalbidetzen dituztelako.

Gernikako kaleetan, nerabe taldeak ikus daitezke, nork bere mugikorrari begira. Telefono mugikorra eskuan dutela, sare sozialen bitartez mundu osora sarbidea dutenean, zer esan nahi du Gernikakoa izateak?

Mugikortasuna eta mundu digitala, (herriko) mugak lausotzen

Ikerketan jasotako testigantzetan mugikortasuna aipatzean, besteak beste, mundu digitala, ikasketak eta bidaiak elkarri lotuta agertzen dira. Horiek, modu batean edo bestean, gazteak herritik "aldentzen" edo "mugiarazten" dituzten elementu edo faktoreak dira. Oro har, gaur egungo gazteak horien mende daude, eta ikertutako herri guztietan agertu dira, eragin handiagoz edo txikiagoz, horrelako jokaerak.

Guztien artean nabarmentzekoa da mundu eta kultura digitalak gazteengan daukan eragina. Eragin hori hizkuntzaren arlora eramaten bada, esan daiteke gaztelaniaren erabilera nabarmen areagotzen dela. Hona hemen elkarrizketa batean jasotakoa:

Ta, garrantzitsua, aipatu dugu orain aurrez-aurreko harremanetan euskararen erabilera. Eta zuek igual, mundu birtualean, ez dakit, sare sozialetan, zein hizkuntza erabiltzen duzue gehiago?⁷

(G11): Erdera.

Erderie?

⁷ Testigantzen pasarteetan beltzez agertzen diren esaldiak elkarrizketatzailearen galderak edota hitzak dira.

(G12): Azkenien sare sozialak itxezu berba hemen eztauen jentia gaz be bai, ordun eeh... nik kuadrillakoakaz iguel eztot itxen horrenbeste berba iguel sare sozialetatik. Azkenien sare sozialak erderaz dauzelez...

(G10): Guk [Astra] depende zelakoa dan... aktibidade. O sea badan nik zeozer igoten dotena, euskeraz, ahal dala. Nahiz da jakin jentiek ez dabela ulertuko ta...

Harreman digitaletan gaztelaniak gora itxen dau orduan?

(G12): Nik uste dot baietz.

Pasarte horrek erakusten du sare sozialetan gaztelaniaren erabilera nabarmen handiagoa dela euskararena baino, gazteen artean behinik behin. Bestela, sare sozial eta teknologia berriei lotuta, hona hemen partaideetako batzuek egindako hausnarketa:

(G9): Nire ustez, gizartien aldaketak baldintzatu dau... hizkuntzie... eragina euki dau be bai. Gaur egungo gaztien kontsumo egoera, harremantzeko erak, dana aldatzen dabil, da de hecho aldatu da ia eta super arin doa; hau da, era teknologiko bat sartu danetik, umetatik Ipad bategaz dabitzenetik umiek...

(G10): Generacion Z...

(G9): ... Generacion Z, horrek baldintzau itxen deu... totalmente, ta iruditzen jat, euskerie super atzian geratu dala zentzu horretan, eta, eta ez tala egokitu.

Teknologia berrietara...

(G9): Bai, ta ez teknologia berrietara bakarrik, baizik eta teknologia barri horretan, kontsumiruten dabezen produktu etarako. Hau da, produktu audiobisualak, youtube eta holako zeretan eztau praktikamente euskerazko ezer. Eeh... musika aldetik, eztau reggeaton-eko abeslaririk euskeraz, eeh... gu beti kritiketan, reggeaton eta beti direla matxistak eta daukou kriston aukera bat euskeraz egiteko, zerotik hasiko gara eta guk egingo dogu. Beste eredu batzukaz hortxe kristona, beste hizkuntza batek ezteko. Ezin dau esan gazte-erazko batek "Nik ingot abesti bat ez tana matxista..." bueno ahal dau esan baina ia indde dau. Daukogu aukera kristona iruditze jat gaztien joerekaz lotute dauena, rapa adibidez oin euskeraz gehixau dabil entzuten....

Azken hausnarketa horrek gazteak eta euskararen erabilera urriaren gaia modu zabalago batean ikustera behartzen gaitu, gizartearekin eta bereziki teknologia berriekin loturiko beste hainbat faktore eta dinamika kontuan hartuz. Adibidez, zeharka bada ere, euskerazko sorkuntzan eta horren kalitatean pentsatzera bul-tzatzen dute goiko hitzek.

Teknologia eta mundu digitala direla eta, gazteek aipatzen dituzten joan-etorri bir-tualez gain, bidaiak eta ikasketei lotutako desplazamenduak ere nabarmendu dira. Horien barruan kokatu behar da, adibidez, unibertsitateko garaian, herriz edo hiriz aldatzea. Horren ondorioetako bat da pertsona horrek ordura arte herriarekiko eduki duen lotura zerbait apaltzea edo lausotzea, eta, aldi berean, beste errealitate batzuk ezagutzen hastea. Gazteen iritziz, horrek ere eragina du hizkuntza praktiketan. Eraginak, halere, ez du norabide bakarra. Izan daiteke gaztelaniaren nagusitasunarekin

topo egitea eta, horretara nola edo hala moldatu behar izatea. Baina, kontrako egoera ere hauteman dugu. Hau da, batzuetan unibertsitateak euskararekin topo egiteko aukerak handitzen ditu, euskarazko ikastaldeak Euskal Herriko gazte askoren bilkura izaten direlako. Aurreiritziak apurtzeko aukera ere ematen du unibertsitateak. Euskara gutxi aurkituko zutelakoan joan ziren (normalean hiriburu batera doazen gazteak) eta kide euskaldun asko ezagutzeko parada izan zutela aitortzen dute.

Edozein kasutan, eta lau herrietan jasotako testigantzen arabera, bi ondorio nabarmendu nahiko genituzke. Batetik, unibertsitatea hitzunen ibilbidean une eta gune garrantzitsua dela baieztatu dugu. Are gehiago, zenbait kasutan argi ikusi dugu gakoak izan dela hizkuntza mudantza bat gertatzeko⁸. Bestetik, gaur egun eta apurka bada ere, unibertsitateko eremuan euskara aurreratzen ari den bitartean, hutsune nabarmenak hautematen dira bestelako formazio ibilbideetan (erdi edo goi mailako zikloetan, adibidez).

Gernika, “euskaldunen konparaketan...”

Oro har eta labur esatearren, gazteek Gernika herri euskalduntzat daukate. Hori perzeptzio bat da, baina, goian azaldu den moduan, datu kuantitatiboek ere hori baieztatzen dute, neurri handi batean behintzat. Halere, gazteek izaera euskaldun horri “baina” edo ñabardura batzuk jartzen dizkiote. Horri lotuta, hona hemen egindako elkarrizketa bateko pasarte bat:

Goazen Gernikara orain, herrira. Ez dakit, zuen iritziz, zein egoeretan dago herrian euskara, Gernikan?

(G12): Nik igual, beste herri batzutakoaz konparata, hemen buelta-koak, esango naben nahiko ondo. Ze gero, gero igual zoaz Bermiora eta ez dozu entzuten euskerarik, eta hemen bai. Ez naben esango bez hemen pila bat euskera itxen dala, ze igual gero eta gutxiau eitzen da.

(G11): Ez baina hori bai, eta Amorebietagaz eta ola, beste herririkaz konparata Gerniken bai itxen dala euskera asko.

(G10): Ni Sukarrietan bizi naz, ba... zaharrak itxen dabe euskeraz, baina gazteiek... gazte gitxi dauz (...)

**O sea, esango zenukete ingurukoekin alderatu behar dela. In-
gurukoekin alderatuta bai.**

(G10): Nik uste dot generalien Gerniken euskera asko itxen dala.

Hauteman daitekeenez, Gernikaren inguruan dauden antzeko gune urbanoekin alderatuta, hura kontsideratzen dute euskaldunena. Ideia hori behin eta berriz agertu da gazteekin izandako elkarrizketetan, horren inguruan erabateko adostasuna ez badago ere:

Zuen herria nola definituko zenukete?

⁸ Euskal Herrian ez ezik, Galizian eta Katalunian ere unibertsitatearekin lotutako mudantzak topatu dituzte ikerlariek, besteak beste, Joan Pujolarrek (Pujolar, González, Martínez 2017).

(G9): Beste batzuek konparauta euskaldune, eeh... baina, baina askogaz.

Euskalduna “baina” askokin. Zuek?

(G10): Nik bai uste dot euskaldune dala.

(G11): Baina ez aldagai guztixek. Da euskaldune konparetan doulako beste herri batzukaz edo beste leku batzutan zelako nibela daukieban. Baina euskaldun euskaldune...

Badirudi, beraz, oro har eta salbuespenak salbuespen, Gerniak herri euskaldun baten irudia duela. Puntu horrek garrantzia du, funtsean, herriaren irudi bat sortzen eta sendotzen laguntzen duelako. Irudi hori, normalean, kanpokoen eta barrukoen iritziekin elikatzen da; alegia, beste batzuek “gutaz” esaten dutenarekin eta gure buruari buruz dugun ideiekin. Dena den, datuak eta iritzia ikusita, zilegi da pentsatzea Gerniak baduela zoru edo oinarri bat, euskararen erabilera sostengatzen laguntzen ditona. Horrek hurrengo puntura garamatza: Gerniak, herriak berak, euskara erabiltzeko eskaintzen dituen aukeren azterketara.

Gernikan, euskara “kalian”

Oro har esan daiteke Gerniak aukera asko eskaintzen dituela euskararen erabilera bermatzeko: herrian euskarak bizitasun bat badu eta, gainera, norbanakoaren inguruko gehienek baldin badakite, erabiltzeko probabilitateak nabarmen handituko dira. Ñabardura asko egin daitezke, baina badirudi Gernikaren hizkuntza errealitatea puntu horretan kokatu daitekeela. Gai horretan gehiago sakontzeko, antropologiako kontzeptu klasiko bat ekarri nahi izan dugu gogora, hain zuzen ere, Marcel Mauss-en (1971) “erabateko egitate soziala” edo “*hecho social total*” deiturikoa. Kontzeptu horrek planteatzen duenaren arabera, gizarte batzuetan badira gizartea guztiz blaitzen duten zeharkako ezaugarri batzuk. Ikerketan ikusitakoaren arabera, Gernikan euskara “erabateko egitate soziala” edo *hecho social total* delakoa kontsideratu daiteke. Hona hemen elkarrizketetatik hartutako horren adibide batzuk:

Eta kalean, nun ikusten duzue euskara...? Igual leku zehatzen bat identifikatzen duzuen edo...

(G9): Gerniken, kalien, independienteki zuk zure lagunakaz ze hizkuntza itxen dozun, Gerniken, bazoazen harategira, zoazen okindegira, Gerniken euskeraz itxen da eta suposatzen dot ez nazela izengo bakarra, gurot esan, ikusten dot jentie euskeraz (...), inkluso, jende bat kuadrillan erderaz dauena eskatzeko zeuzer dendarixeri edo euskeraz eitxe dotzena.

Orduan esango zenukete nolabait orokorra dela?

(Denak: Bai)

Nahiko orokortuta? Ez dela gune zehatz batekin edo identifikatzen?

(G11): Ez.

(G9): Keba, nahiko presente dau zentzu horretan.

Aipu horrek erakusten du euskara herriko “alde edo eremu guztietan” egon daitekeela; alegia, euskara zeharkakoa dela; Gernika (ia) guztiz blaitzen duela. Egoera horrek euskararen erabilerari laguntzen dion zorua edota oinarria ematen du; funtsean, aipatu bezala, erabiltzeko aukerak handitu egiten direlako. Azken horrek eragina du, noski, gazteen artean ere, eta, praktikan, euskararen erabilera areagotzea ekar lezake. Dena den, uste dugu, gazteen kasuan bederen, euskararen erabilera indartzeko beste elementu batzuk gehitu behar direla. Nagusiki bat nabarmendu nahi dugu: gazteen kulturak eta euskara uztartzeko herrian topatu daitezkeen aukerak. Gazteek gazte gisa (euskaraz) sozializatzeko eduki ditzaketen uneak eta guneak oso garrantzitsuak direla pentsatzen dugu. Eta Gernikak horren inguruan hausnartzeko parada eman digu, hizkuntza praktikei lotutako atalean ikusiko den moduan. Baina horretaz hitz egin baino lehen, eta puntu honekin amaitzeko, herriaren kohesioaz hitz egingo dugu.

Gernika, herri trinkoa: identitatea eta bizitasuna

Aurreko atalean esan den moduan, herrian euskararekin topo egiteko dauden aukerak funtsezkoak dira horren erabilerarako. Horri lotuta, euskararen erabileran garrantzia eduki dezakeen beste ezaugarri bat herriaren kohesio edo trinkotze maila izan daiteke. Alegia, herriak identitate eta bizitasun bat duenean, euskararekiko atxikimendu handiagoa izan dezake. Hona adibide bat:

(G9): Gernike historikoki ezta izen herri euskaldun bat, inguruko herrixek izen die euskaldunek, Gerniken gazteleraz ein izen da historikoki eta bonbardeoa ta gero berreraiki zanetik herrixe ba gixike-gixike joan da zer bat... esango dogu, zutabe bat edo eraikitzen, baina klaro hori oso fragila da derrunbetako.

Gernikaren kasuan adibidez, bonbardaketak bertakoengan eduki zuen eta gaur egun oraindik duen eragina nabarmena da. Argi dago identitate ikur bat dela eta herriari nolabaiteko kohesioa ematen diola. Trinkotasuna ematen dio, irudi borobil edo sendo bat. Dena den, bonbardaketaren gaiaz gain, pentsatzen dugu herriak daukan koka-pena ere kontuan hartu behar dela: Urdaibairen erdian dago, eta inguruetako herrikoentzat elkargune bat da. Horretaz gain, aipa daitezke ere herrian dauden askotariko talde eragileek antolatzen dituzten ekintzak, eta, azkenik, tabernen inguruan bildu ohi den jendetza eta giroa.

Elementu horiek guztiek kohesio bat ematen diote herriari, eta, aurretik aipatutako euskara erabiltzeko zoru hori gehitzen badiogu, euskararen erabilerarako egokia den agertokia dela pentsa daiteke.

Atal honekin amaiera ematen zaio herriaren testuinguru etnografikoari. Jarraian, Gernikan egindako lekuan lekuko lanaren bitartez, hizkuntza ideologiaren inguruan jasotakoaz hitz egingo da.

2.1.2. Gazteen hizkuntza ideologia: euskarari buruzko ideiak

Puntu honetan, gazteen hizkuntza ideologietan sakonduko da. Jarraian, beraz, hainbat ataletan banatuta, gazteek hizkuntzen inguruan eta, bereziki, euskararen ingu-

ruan azaldutako ideia, iritzi eta, oro har, ideologiaren berri emango da. Zehazki, hizkuntzen gaineko aurreiritziak, euskalgintza, eta Euskaraldiaren inguruko balorazioak eta politika izango dira gai nagusiak. Guzti horren berri emango dugu jarraian, aurreiritzien gaiarekin hasita.

Oro har, gazteen diskurtsoetan hainbat aurreiritzi agertu dira, eta atal honetan kokatu dira “ideia multzo” (ideologia) gisa. Horren barruan, estereotipoek garrantzi handia dute gazteen diskurtsoetan. Horietako batzuk aztertuko ditugu jarraian.

Datozen belaunaldiak, okerrago

Elkarrizketatutakoen atzetik datozen belaunaldiek ez dute, nagusiki, euskaraz egiten, edo, egitekotan, “guk egiten genuena baino gutxiago egiten dute”, diote. Honela laburbildu daiteke atal honen ideia nagusia. Gazteek pertzepzio hori daukate. Baina noraino da errealitatea eta noraino aurreiritzia? Zertan oinarritzen dira hori esateko? Orokortuta dagoen ideologia bat dela esan daiteke, sarritan entzun dugulako gazteen ahotan. Hona hemen, elkarrizketatik hartutako bi adibide:

(G9): Nire ustez hori super larrixe da ze guk adibidez euki dou suertia, esangot, hasi garelako... ondino ez TDT ez... zera... Orduen, guk marrazki bizidunak euskeraz ikusten genduzen, noiz edo noiz igual TVE-n egoten zan zeuzer olan baina printzipalak, marrazki bizidunak euskeraz, eeh... guk be gauzak euskeraz, ez dakit zer, eta gero ohitxu ingara erderara, ikusi doguz, gaur egunien, hainbeste aukera dauz, dauz 8000 aukera, zertarako aukeratukot euskarazkoa, euskarazkoa mierda bat da, beste 8000 askoz politxauek.

Da bestela orokorrean begiratuta, aipatu duzue euskara gehiago harremanetan, Gernikan.

(G9): Nik A-k esandakoa azpimarratuko nauke, adinke doia gauzie (...) pasada bat iruditzen jat gaztiek, Gerniken, historikoki behintzet, bueno jente nagusixek erderaz ein izen dabe berba ta jende gaztiek euskeraz, hori espektroa aldatzen dabil totalmente. Joerak aldatzen dabitze eta esanguratsue iruditze jat adin konkretu batetik behera gero eta erdera gehixau entzuten da eta gero eta normalizatu dau. Hau da, mezu hori, zergaitxik inbiharko gauke euskeraz?

(G10): Bai. (...) ni hemen nau arratzaldero [Astran], ume asko dau eta gehixenak erderaz berbetan.

Gazteek salatzen dutena egia izan daitekeen arren (egungo umeek eta nerabeek euskara gutxiago erabiltzea), badirudi badagoela norberaren haurtzarora eta nerabezarora “edulkoratzeko” joera; hau da, iraganean beti “hobeto geundela” pentsatzeko tentazioa.

Gaia alde batera utzi gabe, azpimarratu nahi dugu gazte askoren ustetan nerabezarora garai kritikoa dela hizkuntza jokaerei dagokienez, eta, zehazki, euskararen erabilerari begira. Askok aipatu dute nerabezaroan, apurtzaile, urratzaile edo *guai* izateko asmoz edo, gaztelaniara jotzeko ohitura dagoela. Hona hemen ideia horri lotutako pasarte bat:

(G7): Nik eeh... adibidez, urtebete baino gutxiago izengo da, hemen ondoko tabernan itxen nauen lan eta hemen dauz gaztien lokal pilo bat eta olan, bokadiloek jaten etortzen zien eta gaztiak ola nik, erdera pila bat. Baina nik beraiek, uste dot, nahiko... fase bat egoten dala, hortxe nerabezaroan, erderara tiratzen dozune baina gero barrero bueltetan dala. Edo behintzet nire sasoiak bai igerra neban holako zeoze. Eeh.. apurtxo bat erderaz, guay-txo, ta, ez dakit zer. Baina gero, gauzak bere lekure doaz.

Azpimarragarria iruditzen zaigu aipuaren amaiera: “Baina gero, gauzak bere lekure doaz”. Bertan, hiztuna euskarara bueltatuz irudikatzen da. Ideia hori hainbat elkarriketatan agertu da. Neurri batean esan daiteke beste uste orokortu bat dela. Ikeritutako lau herrietan topatu dugu. Hori bai, ezinezkoa da jakitea mudantza guztien kasuetan aurreko egoerara bueltatzeko aukera egon den, ala ez. Inpresioa dugu herri euskaldunagoetan nerabezaroan gaztelaniara emandako jauzi hori laburragoa izaten dela eta, oro har, aukera gehiago daudela euskara erabiltzeko ohitura berreskuratzeke. Aldiz, euskararen erabilera baxuagoa den kasuetan badirudi mudantza iraunkortzeko aukera gehiago daudela eta kasu horietan zailagoa izaten dela euskararen erabilerara bueltatzea.

Hizkuntzaren biografian gertatu ohi den hizkuntza aldaketa hori oso barneratuta dute gazteek, horretako arrazoiak guztiz ezagunak ez badira ere. Halere, emandako argumentu nagusiak hemen bildu ditugu. Honako hauek izango lirakeke: 1) eskolako araua apurtzeko nahia, 2) lagun talde egonkorrik ez, “zure” tokia bilatzeko beharra, 3) berezko “familia” edo gazteen komunitatea(k) osatu gabe egotea, 4) erreferenteen bila ibiltzea (gaztelaniazko mundu batean: nerabeentzako erreferente nagusiak erdal mundukoak dira), 5) euskara markatua agertzea (markatua izan nahi ez den momentu batean), eta 6) aurrekoarekin lotuta, babesgabe, euskarazko praktikak “arriskutsuak” izatearen ustea.

Euskalgintzaren inguruko ezjakintasuna eta Euskaraldiaren inguruko zalantzak

Gazteei euskalgintzaren inguruan galdetu zaie: helburuez, eragileez, ekimenez ... Gai horien inguruan gazteek esandakoak aztertuta, oro har zera ikusi da; batetik, ez daukatela oso argi zer den euskalgintza deitzen den hori, eta, bestetik, nahiko urrun geratzen dela beraien egunerokotasunetik. Are gehiago, jasotako diskurtsoak aztertu ondoren pentsa daiteke gazteentzat euskara ez dela kezka edo ardura bat:

Gazteen aldetik kezka, interesa eta ardura badaude? Gai honen inguruan? Zuen iritziz edo...

(G9): Bai. Eremu konkretuetan baina bai.

Eremu konkretuak. Militatzeko gogo aipatu duzu, eremu konkretu batzuk, eta badago militatzeko gogo hori?

(G9): Ba, ez hainbeste. Ejat iruditzen bez, bakoitzak gure badau konpromisoa hartzen deu, militetako jente bat beti egongo da, espero dot, beti egongo da, baina jentieri eskatu (...) zuzenki militetie. O sea, eitxie eta eitxen ez dauenari eitxera bultzatzie ia militantzia mota bat da nahiz ta ez egon iñungo talde baten sartunde, nahiz ta.... Egunerokotasuneko militantzixe nire ustez.

Pasarte horrek gazteria eta euskalgintzaren arteko harremanen erradiografia zehatz bat erakusten digu: oro har, esan bezala, euskara ez da kezka handia gazteentzat, eremu zehatzez aparte. Alegia, interesa duten gazteak, elkartetan militatzen dutenak badaude, baina salbuespena dira. Dena den, aipuan azpimarratzen da hainbat militantzia eredu daudela eta ez dagoela zertan elkarte konkretu batean egon, egunerokotasunean ere militatu daitekeelako. Definizio horietatik haratago, eta elkarriketa zein talde dinamiketan entzun dugunaren arabera, esan daiteke gazteria urrun dagoela euskalgintza eta euskararen alde lan egiten duten elkartetatik.

Bestalde, gazteei hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza kontzeptuei buruz ere galdetu genien. Kasu horretan ere, hutsune bat nabari dela esan daiteke:

Ta bueno, kontzeptu hauek, orain esango dizkizuet bi kontzeptu bai? Ea zerrekin lotzen dituzuen edo nola azalduko zenituzkete. Bata da hizkuntza politika, eta bestea da hizkuntza plangintza. Zerrekin lotzen dituzue edo nola azalduko zenituzkete. Zer etortzen zaizue burura horiek esatean, hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza?.

(G9): Nik pentsatzen dodaz, Eusko Jaurlaritzan... Eusko Jaurlaritzak dekoz politika konkretu batzuk ipinitxe bai administraziorako bai eh... (...) direferentietarako. Nire ustez, bastante hobetzeko dekienak, ez dakit.

Besteok ados zaudete? Jaurlaritzarekin lotzen duzue edo... (Baiezkoa diote buruarekin)

Elkarriketatuetako batek administrazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lotu zituen bi kontzeptuak, baina besteek ez zuten jakin zer esan; nola definitu. Gure ustez, isilune horrek euskalgintza eta gazteriaren arteko distantziaz hitz egiten du.

Orain arte, militantziaz, elkarreez eta euskalgintzaz galdetutakoan gazteen jarrera zein izan den laburbildu dugu; baina, zer gertatzen da euskararen aldeko ekimen zehatzekin? Parte hartzen dute? Zer iruditzen zaizkie? Euskaraldia igaro berria zela aprobetxatuz, ekimen horri buruz galdetu genien. Hona hemen haien erantzunak:

Ta holako ekimenak, zein iritzi daukazue, holako ekimenen inguruan? (Isilik daude). Zein da zuen iritzia? Ez dakit, horrelako ekimenen bat ikusten baduzue, ez dakit, Euskaraldia aipatu da, ba telebistan agertzen dela edo zein iritzi edukitzen duzue holakoetan?

(G9): Ni oso eszeptikue naz Euskaraldixagaz adibidez. Ze... niri iñok ezin duzte esan enazenik euskarazko jakobino bat, ze egunero itxen dot euskeraz berba baina... iruditzen jat behin instituzinoak barneratzen dabenian proiektu bat berez herrixetan sortu zana, adibidez kasu honetan sortu zan Egiatik eta Lasartetik eta sortu zan Euskaraldia berez, hasikera hasikeran izen zan herriko talde bat hasi zala "Bueno ba eingou, ez dakit zenbat denbora ingo dogu euskaraz berba". Behin ideia instituzionalizatu itxen dozunien politizeu itxen da euskerie eta neutro bihurtzen da totalmente. Nire ustez, hizkuntza bat ez da neutroa, ze Euskaraldian agertzie ez dakit nongo Alderdi Popularreko zinegotzixe agertzie Euskaraldia positiboa irudi-

tzen jakola PPko kontzejal bat, Euskaraldixe apoieta positibue iruditze jat, baina gero aldi berien esaten dot "Ia, baina es que... zu egon zara, azkeneko urte danatan euskerie zapaltzen, euskerien kontrako diskurtsoak emoten, zuk defendiruten dozunak zapaldu itxen dau euskerie bere horretan, ta argazkirako agertzen naz". Ordun iruditze jat, erabilera politiko hori dala politiko konkretu batzuen zurikerirako, ze azkenien batzuk urtetan dire irabazten, eta sinesten dot herri askotan funtzionetan dabela eta interesantie iruditzen jatela Ahobizi eta Belarriprest-en istorio hori, baina... duda asko dekotez. Jo es que berba lar nau eitxen...

Ez dakit, zuei, horrelako ekimen bat Euskaraldia... edo beste bat izan daiteke eh?

(N): Es que neuri, neuri iruditze jat posturoea dala. O sea, hasi zan idea on bategaz baina ia posturoea. Ibilaldixe ta olan, euskara bultzatzeko lekuek die supuestamente ta jentie doa ba jaixe dalako eta "Euskeraz urte osuen eingo dogu, tal" baina posteroa dago eta gero ez da eitxen. Da exkusa bat.

Exkusa bat, aitzakia... juergarako?

(G11): Bai.

O sea, horrelako ekimenetatik ere ez zaizue gustatzen nolabait, edo bueno, ulertzen dudanarengatik, beste helburu batzuekin...

(G11): Bai ze azkenien bere signifikauae galtzen deu, o sea, Ibilaldixe eta horrelako jaixek die euskerie bultzatzeko eta azkenien goaz jai bat botaten, bale, kontzertuek eta euskeraz die baina o sea, ezte-kogu hori ideie "Bueno ba euskerie bultzatzeko da, euskeraz kontzi-entzieu biher gara, berba inbihar dogula eta bizi bihar garela", ze garrantzitsue da guretzako baina azkenien jaixe botaten goaz eta posturoea da.

(G12): Entzuten dotenien Ibilaldixe edo horrelakon bat automatikamente erlazionetan dozu jaixekaz, ez dozu pentzetan euskerie bultzatzeko dala.

Nolabait, esan duzue, bueno orokortzeko, esan duzue. Ez bada holan zuzendu eh? Baina nolabait Euskaraldia, Ibilaldia, guzti horiek posturoea direla ez? Guztiak? Ulertu dudanarengatik edo...

(G9): Nire ustez, oinarrizko helburue eztala posturoe bat, baina gaur egunien sozialki ze eratarra eraikitzen dien... bai badala. Nik sinisten dot borondatian, jentian borondate ona ekimena ondo atearateko, baina gero, bihurtzen da kriston... zera.

Pasarte luze horrek beste ideia garrantzitsu bat uzten du mahai gainean: itxurakeria edo *posturoea*, egungo gazteek esaten duten moduan. Euskaraldia edo ikastolen inguruan antolatutako jaialdiak (Kilometroak, Ibilaldia eta abar) *posturoe* edo itxurakeriari lotutako ariketak iruditzen zaizkie. Badirudi, gazteek nolabaiteko mesfidantza dutela erakundeek (euskararen alde) bultzatzen dituzten ekimenekiko: ez dira guzti zintzoak. Horrek gazteak eta instituzioen arteko urruntzea dakar, eta askotan, gazteek Euskaraldia bezalako ekimen batekin bat gitea zailtzen du.

Halere, gazteak prest egoten dira euskararen aldeko ekimen zehatzetan (egun batekoak adibidez) parte hartzeko, Ibilaldia kasu. Gazteen iritziz, horrelakoek ez dute konpromiso handia eskatzen, eta, gainera, gehienetan festa edo "juergarako" aitzakiak izaten dira. Eszeptikoagoak dira Euskaraldia bezalako ekimen luzeago eta sakonagoen aurrean. Ikerketa egin den lau herrietan gazteek nahiko kritiko agertu dira. Batetik, proposatutako rolet ("ahobizi" eta "belarriprest") hiztunen arteko bereizketak sortzeko parada ematen zutela pentsatzen dutelako: "mundu guztia ahobizi izan nahi zuen, bi rolak ez ziren ondo ulertu" zioten elkarrizketatutako zenbait gaztek. Bestetik, gazteen artean jarraipen berezirik ez zutelako hauteman. Horrela azaldu zuten, bederen, Gernikan bititutako esperientzia, oro har. Ekimenaren asmoa eta hainbat herritarren inplikazioa positibotzat hartu bazituzten ere, Euskaraldiaren gauzapena ez zitzaien egokia iruditu, horrelakoetan euskararen aldeko diskurtso asko baina praktika gutxi egoten dela argudiatuz.

Atal honekin amaitzeko, politikaz hitz egingo da; kasu honetan, alderdiek eremu publikoan bultzatutako politikaz.

Politikaz, (bakarrik) bi hitz

Oro har, esan behar da politika, alderdi politikoek bultzatutako jardun publikoa ez dela aipatu ere egin ikerketan zehar. Eta, gure ustez, esaten denari kasu egin behar zaion bezala, esaten ez denari ere arreta ipini behar zaio. Horregatik ekarri nahi izan dugu txosten honetara "ez-egote" edo "hutsune" hori.

Agian horrek badu lotura gazteak euskararen aldeko elkarteetan ez egotearekin edo herrian (zenbait elkarrizketatan aitortu den moduan) kultura militante handirik ez egotearekin. Aurreko hamarkadetan euskara eta politika bat egiteko joera nabarmena bazen ere, egun zaila da horren gaineko aipamenik entzutea. Ziur aski horregatik, herrietan militatzen duten gazteek nolabaiteko marka (etiketa) dutela onartzen dute.

Azkenik, Gernikan jasotako materialaren azterketarekin amaitzeko, hizkuntza praktiken atala jorratuko dugu.

2.1.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena

Atal honetan hizkuntza praktiken gainean hitz egingo da. Hizkuntza praktika esaten dugunean hiztunok hizkuntzarekin "egiten dugun" orori egiten diogu erreferentzia. Hiztunak, kasu honetan hiztun gazteek, hizkuntzari buruz duten iritzia edo ideien multzoa alde batera utzita, barneratutako hizkuntzarekin, kasu honetan euskararekin, egunerokotasunean egiten, gauzatzen edo eraikitzen dutena izan dugu aztergai. Hori esanda, kontuan hartu behar da hizkuntza praktikak ez direla praktika isolatuak izaten; alegia, testuinguru, gune eta une jakin batean gauzatzen direla. Gune horretan egiten edo sortzen denak hizkuntza praktiketan izango du eragina, baina, aldi berean, bertan hizkuntzarekin egiten denak gunean eragingo du.

Hori oinarrizko ideia bat da hizkuntza antropologian, eta, diziplina horretatik abiatzen garenez, gazteen errealitatean (kasu honetan Gernikako gazteen errealitatean) nola gauzatzen den aztertu nahi izan dugu. Horretarako, ordea, garrantzitsua da ulertzea gazte kultura dela haien erreferentzia markoa, herriarekin eta testuinguru hurbilarekin batera. Gernika oinarrizko plataforma dute, baina hiztun horiek, gazteak diren

heinean, euren adinkideekin partekatzen duten kulturak edo bizimoduak ezinbesteko betaurrekoak eskaintzen dizkie munduari eta bizitzari so egiteko.

Gazte kultura: gazteek sortu, gazteak elikatu

Zer da gazte kultura? Labur esatearren, gazte kulturak gazteek dituzten berezko erreferenteen eta praktiken multzoak lirateke. Gizarteak gazteen munduarekin lotzen ditu⁹ elementu horiek, gazte izatearekin, alegia. Praktika horien bitartez, gazteak elkartu egiten dira, eta haien arteko harremanak sortzen dira. Ideia hori hizkuntzaren esparrura eramaten bada, bi ondorio atera daitezke. Batetik, gazteak gai dira hizkuntza zein hitz egiteko moduak sortzeko eta barneratzeko (gazte hizkerak izango liratekeenak). Gauza bera esan daiteke hizkuntzen arteko aukeraketari buruz. Izan ere, gazte kultura bakoitzaren barruan, hizkuntza jakin bat beste bat baino egokia-gotzat har daiteke, eta bestea (edo besteak), alboratu. Bestetik, gazte gisa garatzen dituzten praktikak (hizkuntza praktikak barne) garrantzitsuak dira haientzat, eta horri lehentasuna ematen diote, euren izaeraren parte bilakatuz. Azalpen hori ilustratzeko, jarraian Gernikako adibide bat erabiliko da.

Adibidez, jakina da musikak pisu handia daukala gazteen izaeran eta identitatean. Oro har, musika edozein adin taldetan izan daiteke garrantzitsua, baina gazteengan pisu berezia duela esan daiteke. Gernikan, adibidez, Iparragirre Rock Elkartea dago, eta gune autogestionatu bat da. Egun, 70 pertsona inguru mugitzen dira bertan, eta entseatzeko lokalez gain, kontzertuak ere egiten dira, lokalak daukan eszenario handian.

Gune autogestionatua den heinean, bertako bazkideak eginbehar guztien kudeaketaz (marketina, zaintza, garbiketa, kontzertuak lotzea, barran egotea...) arduratzen dira. Horrek konpromiso maila handia eskatzen du. Gunearen dinamikaren barruan, aste barruan taldeek entseguak egiten dituzte, eta tokatzen den asteburuetan, berriz, kontzertuak. Oro har, rockari begira dagoen elkartea den arren, musika formatu eta genero desberdinak ere biltzen dira bertan. Dena den, Iparragirretaz galdetzean, honako hau erantzun ziguten bertako kide batzuek:

(G7): (...) Musikiaz batera lagunekaz egotie, azkenien, nahiko bateratue. Da... ez dakit...

Ta bestela ez? Iparragirreko dinamika, egunerokoa, zein izaten da? Nolabait, zer egiten duzue? Edo zer egiten da Iparragirren bestela, egun normal batean?

(G7): Ba... Iparragirrera zatozenien zu ba... ensaietako geratu zare-lako edo zatoz, edo igual beste lokal batekoa be ensaietan dau "Ei que pasa tal", "Ba beitxu, tal"... ta kontuek kontau ta... azkenien eeh... elkargune bat.

(G6): Etorten zara eta jentie eta azkenien barran jartzen zara... ta-berna baten. Zeozer hartu leikezun, musikie jarri apur bat altuen

⁹ Dena dela, gaur egun asko hitz egiten da gazteen kategoriaren zabalkunde eta orokortze prozesuaz; izan ere, heldu zein adineko askok gazte kulturek sortutako zenbait elementu bereganatu dituzte. Horren adibide argienak janzkeran edo estetikan topa daitezke.

entzuteko... Orduen badaukozu egoteko. Baina batezbe da, dekozu-lako proiektu bat martxan, jente askok instrumentuak bakarrik he-men, ez da bakarrik taldie, badau jente indibiduala datorrena bere kontu. Ordun azkenien, dinamika...

Orduan rutina astean zehar adibidez gehixen bat da entsaia-tzeko etorri eta gero ba bildu ezkerro...

(G6): Bai edo bestela be batzarra dau... diruzaintzako batzarra dau...

(G7): Ta asteburue heltzen da, bariku edo zapatue eta ia taldie furgonetakoa "Ze, gaur nun tokaten da?" "Ba ez dakit nora, eta zuek?" "Gu, horra..."

(G6): Bai, hiru talde batute ia eztekozu lekurik kotxie sartzeko.

(G8): Bai, aste bitartien ia... normalien rutina bat dau martxan.

(G7): Eta udan taldiek martxan dauz, plazarik plaza.

Pasarte horretan ondo islatzen denez, funtsean, gazteak sozializatzeko gune bat da Iparragirre; haiek dioten moduan, "elkargune" bat. Musika gazte kulturaren gako bat da, eta gazteak batzearen arrazoi nagusia, eta "aitzakia" horrek beste gazteekin sozializatzeko aukera ere eskaintzen du. Gure ustez, sozializazio horretan ematen diren praktikak (eta ondorioz, hizkuntza praktikak) funtsezkoak dira. Finean, bertako dinamikak gazteentzat garrantzitsuak badira, erabiltzen duten hizkuntza ere halakoa izango da.

Behin hizkuntza aipatuta, galdera honako hau litzateke: zer hizkuntza erabiltzen dute Iparragirren?

Eta euskarak zein pisu dauka hemengo talde harremanetan?

(G8): Ba ezta... ezta... olan exageretiarren baina Iparragirreko whatsapp-a, euskeraz bakarrik funtzionetan dau, normalien. Da hemengo... nik uste dot izen aldala, euskera gehixenatariko entzuten dan lekue.

(G7): Kendute eztakinak, eztakinak euskeraz irakurri biher deu, hori bai. Kasu bat justu konkretue, berak idatzi, erderaz idazten deu, ez badan oso labur, euskeraz idazten dauela be bai, baina irakurri biher badau, euskeraz. Da ulertzie deko.

(G5): Gero abestixek, letrak eta normalien talde gehixenen letrak euskeraz die. Badau batenbat erderaz dana, eta besten bat inglesezt baina normalien euskeraz.

(G6): Nik eeh... karmie garbi dekot: euskeraz da erderaz.

Eta igual astean zehar egiten diren lantaldeen bileretan?

(Denek batera "euskeraz", erantzuten dute)

(G7): Euskeraz. Da hori gainera aparte estatutuetan dau. Bilera bat euskeraz itxie gure barik da, baina estatutuetan be bai badau.

(G8): Oso gune euskaldune da.

Orduan euskararen ezagutza eta erabilera, oso altua jarriko zenukete?

(G7): Bai, denek dakixie euskeraz.

Iparragirren, oro har, egunerokotasunean erabiltzen den hizkuntza euskara da. Herriko beste gazteekin egindako elkarrizketetan ere hala dela onartu dute, Iparragirre eta euskara zuzenean lotuz. Gure iritziz, gazte kulturaren garrantzitsuak diren praktikan dagoen hizkuntzak asko baldintzatzen du gazte horien euskararen (edota gaztelaniaren) erabilera. Alegia, gazte kultura hizkuntzarekin —euskararekin kasu honetan— uztartzen bada, hura erabiltzeko aukerak nabarmen handitzen dira. Batez ere, Gernikakoa bezalako testuinguru batean, non azken hamarkadetan garatutako zoru soziolinguistikoa euskararen aldekoa baita.

Jarraian, nolabaiteko kontrapuntua jartzeko, Gernikako beste adibide bat aipatuko da: kirola.

Herriaren aurkezpena egin dugunean azaldu dugu jada kirolak daukan garrantzia herrian eta eguneroko dinamikan. Horrela, kirol talde ugari egoteaz gain, gazte askok praktikatzeko kirol diziplinaren bat. Kirola ere sozializazio gune garrantzitsua da gazteentzat. Ikerketan egindako elkarrizketa batean, honako hau esan zuen Gernikako gazte batek:

(G9): Txo, Gernikan kirolana bai iruditze jat eremu erdaldun bat. Adibidez, lehen zelan esan dozun “Ze eremu lotzen dozun...” ba on-txe etorri jat. Kirolean adibidez, ze... eeh... (...) oin ia aldatzen hasi da be bai eh? Baina... generalien herriko taldiek erderie asko zabal-tzen daue; adibidez gaztetxuek, LH1-etik Urbietara hemengo futbol zelaire doaz eta entrenadore bat jartzen dotzie eta batzutan, gazte-leraz komuniketan da umiekaz. 7 urteko umiekaz. Hori gure sasoi in-pensablie zan, eta... oso mundu erdaldune da ze kirola asko lotzen da ta konpetibilidatie asko lotzen da gazteleriegaz eta, eta agres-i-bidade hori eta biolentzia hori, ezpou aldatzen, gazteleriegaz... Ta gero aparte, rugby-xen dauz Gernikako jokalarixek eta kanpokoak. Gernikako jokalarixek bihar itxen dauinez jokatzetik aparte, itxen dabezena da institutotara eta ola bialdu bi argentino eta uruguayo bat adibidez. Orduen ia lehenengoko mezue, inkonszientemente ba-dan be, pum, gazteleraz itxen dabe “Venir, apuntaros al rugby”. Ta gaztelerie, rugbyxe, horreik die idolo batzuk eurentzako, Gernikako idolo txikixek die horreik ba. Idolo bat ia lotu dabe gazteleriegaz, orduen ia... iruditze jat fallo bat dala hori.

Besteok ados zaudete? Kirola gazteleraren eremu bezala ikusten duzue Gernikan?

(G9): Saskiko ekipoa, eztau gernikarrik adibidez, eta gazteleraz ei-txen da saskiko lehen ekipoa. Entrenadorea gernikarra da baina erdaldune da. Nire ustez kirola oso erdaldune da, zesta punta izengo da salbuespena baina ostantzien beste kirol danatan...

Gauzak horrela, badirudi, Iparragirrerekin alderatuz, Gernikan kirolak eskaintzen duen sozializatorako esparrua erdaldunagoa dela. Kasu honetan, pentsatzekoa da kirol praktikak gaztelaniaz izateak eragina edukiko duela gazteek beste esparru batzuetan —kalean, eskolan...— garatzen dituzten hizkuntza praktikan.

Funtsean, zera esan nahi da, gazteentzako guneak, beraiek jorratu nahi dituzten praktikak ahalbidetzen dituztenak, oso garrantzitsuak direla hizkuntza praktikei begira, eragin handia dutelako haiengan. Jarraian, labur bada ere, ideia horretan sakonduko dugu, eta gazteek osatutako gertuko taldeen (eurek "familia" modura izendatzen dutenak) inguruan hitz egingo da.

Zer da familia gazteentzat?

Familia hitza gaur egun ahaidetasun biologikoari lotzen zaio, gehienbat. Mendebaldeko kulturen, nagusiki familia nuklearra deiturikoari egiten dio erreferentzia: alegia, aitak, amak eta seme-alabek osatzen duten taldeari. Ikerketan egindako elkarrizketetan ikusi da gazteek beste "familia" batzuk ere badituztela eta "familia" horien pisu kualitatiboa handia dela haientzat. Aurreko adibideekin jarraituz, eta esan nahi duguna hobeto irudikatzeko, hona hemen aipu batzuk:

(G8): Baina badau anaitasun sentimendu bat, nahiz ta... Iparragirrekoa, Iparragirrekoa da.

(G7): Hori badau, bai.

(G8): Eta herrixen be bai. Iparragirrekoak direnak, "Hori Iparragirrekoa da".

Bada identifikatzeko modu bat? Iparragirrekoa izatea?

(G8): Bai.

(G6): Niretzako.... Iparragirrekoa sentitzie. O sea... no como publicidad, sino... ba herrixen esatea "Iparragirrekoa naz", Iparragirren eitten dogun lana... eta dakarrena. Marka bat moduen, Iparragirre.

Oin galdera bat igual apur bat metafisikoa, zer da taldea, zuentzako?

(G6): Famili bat.

Familia bat.

(G5): Famili bat eeh... ez dakit zer esan. Denporie eskaini bizun gauza bat, eeh... musikako... famili bat. Musikaz aparte beste edozertarako laguntzeko prest zauzen...

(G6): Azkenien... taldekideekin, ez zoaz, lan ein ordubete eta etxera jun. Baina talde baten ordu asko pasauko dozuz batera, ta badiezen igual, trago bat hartzen jun, kontzertu baten bazkaltzen geratzen zarela edo afaltzen edo dena dalakue, azkenien ordu asko die batera, ordun... indispensable ondo erutie.

(G7): Nik be bardin ikusten dot. Famili bat, eta azkenien eeh... bai bada, badakizu musikiegaitxik lotute zauzela da kontzertu bat ikusteko laguntasune, ez dakit nora joateko kontzertu bat ikusten ba musikako zaletasune baina hortik askoz be harau eeh.. urteko, buelta bat emoten, nire etxien laguntzeko, nik berari... bazkaltzen...

(G8): Geratu egurrek eroateko... Onerako eta txarrerako ba familiakue moduen.

Testigantza horietan, gazteek taldearekiko edota gunearekiko duten atxikimendua erakusten dute. Aurreko atalean jorratutako ideia nagusia gogoratu, esango dugu

gune horietan sortutako sozializazio harremanek, gazte kulturarekin bat egitean, pisu handia hartzen dutela beren praktiketan (baita hizkuntza praktiketan ere). Bide horretatik, beste hausnarketa bat jarri nahi dugu mahai gainean. Jakina da familia biologikoak daukan pisua gutxitu egiten dela gaztaroa iristean. Aldiz, lagunen edo adin-kideen garrantzia nabarmen areagotzen da. Eta hizkuntzarekin ere horrela gertatzen dela pentsatzen dugu: adin tarte batean behintzat, pisu gehiago du lagun edo gazte taldeetan egiten denak, etxean egiten denak baino. Horrek, noski, ez du etxeko hizkuntza praktika baztertzen; baina, onartu behar da haurtzaroan zeukan garrantzia jada ez dela hainbesterainokoa. Dena den, eta kontraesankorra badirudi ere, gazteen diskurtsoetan, etxearekiko atxikimendua galdu arren, diskurtsoetan oraindik pisu handia du etxean hitz egiten den hizkuntzak. Are gehiago, gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreei buruz galdetuta, gehienek etxeko erabilerari egingo diote erreferentzia. Haien ustez, garrantzi handia dute etxeko hizkuntza ohiturek nahiz eta gero, ikerketa osoan argi geratu denez, aniztasun handia dagoen horren inguruan. Elkarrizketatutako gazteen artean, familia mota oso ezberdinak topatu ditugu. Gainera, euskararen erabilerari lotutako askotariko ohiturak jaso ditugu, eta argi ikusi dugu etxean euskaraz egiteak ez duela ziurtatzen kaleko erabilera. Etxeko hizkuntzak ezagupenean zein jarioitasunean eragin nabarmena du, eta horrek erabilera errazten du, baina, gure aburuz, ez du etxetik kanpoko erabilera ziurtatzen.

Funtsean, orain arte azaldutakoa honela laburbildu daiteke: gazteentzat, beste gazteekin garatzen eta partekatzen dituzten praktikek garrantzi berezia dute, beren “unibertsoari” (gazte kulturarekin) lotuta daudelako. Praktika horiek gauzatzeko gune zehatz bat gehitzen bazaio, sozializatorako aukerak areagotu egiten dira. Eta praktika zein sozializazio gune horietan nagusitzen den hizkuntza euskara bada, horrek bide bat emango die gazteei erabilera gauzatu ahal izateko. Alabaina, zer gertatzen da, eskolatik aparte, euskara erabiltzeko (eta beren nahiak eta gustuak lantzeko) gunerik ez dutenean?

(G11): Ba nik, gai honetaz ein dotena berba, izen da Bilboko, ez dakit... beti nau bilbokoakaz, bueno ze karo, eurakaz bizitzen naz. Haiek dekie ohiturie esateko “Euskerie badakitx, baina eztozt ezertarako balixo”. Orduen, badakit, ahal dot hitz egin apur bat, aldote-nagaz, baina eztekie... ez dotzie emoten garrantzixe. Pentzeu, “Ba bueno, ba hobeto inglesa edo txinoa ikastie eta ibiltzie”. Eta horregaz euki dodaz diskusinuak ze ez dotzie emoten inportantzixe euren hizkuntzieri. Horretaz aparte ez.

(G12): Nik adibidez klasean [unibertsitatean], joan nintzenien, klasi-asi nintzenien espero naben euskera gitxiu entzutie. Baina gero ba ez, azkenien Euskal Herri osoko jentie dau eta nafarroakoak be bai eta danak itxen dabie euskeraz; Bilbokoak dienak be euskeraz itxen dabe. Raro ein jaten hasikeratan. Klaseko batek esan eban, berak pentzetan ebalu eztala itxen euskeraz lagunen artien inoiz eta flipetan geratu zan.

Argi dago Bilboko eta Gernikako egoera soziolinguistikoa zein kulturala ezberdinak direla. Aipatu den moduan, Gernikaren kasuan, neurri batean behintzat, euskara “erabateko egitate sozial” gisa irudika daiteke, euskarak herriko errealitatea blaitzen duelako. Euskara kalean dago, egunerokotasunean, bizitza aurrera ateratzen den

hainbat gunetan. Eta horrek, dudarik gabe, erabilerarako oinarri garrantzitsu bat jar-tzen du. Horretaz gain, eta gazteriari dagokionez, goiko testigantzetan argi ikusi da berezko espazioek duten pisua gazteen bizitzan eta gazte gisa sozializatzeko orduan. Esan bezala, horrelako guneeetan, “familia” bat osatzeko joera dute, eta familia horien praktikak (hizkuntzarenak ere) euren etxeetakoak baino garrantzitsuagoak dira kasu askotan. Gazteen hitzak kontuan hartuta, gune horietan beste sozializazio prozesu batean murgiltzen dira, hizkuntza arau, ideologia, praktika, bizipen... jakinak dituen. Eta hizkuntzak, euskarak gure kasuan, bigarren aukera bat eduki dezake bertan.

2.2. AMOREBIETA-ETXANO

Amorebieta-Etxanon jasotako datuak hiru ataletan azalduko dira. Lehenik eta koka-pen moduan, testuinguru etnografikoaz hitz egingo da, eta herria, gazteria eta hiz-kuntzaren gaineko ezaugarri orokorrak izango ditugu hizpide. Ondoren, gazteen hiz-kuntza ideologiak aztertuko dira, Amorebieta-Etxanoko gazteriak euskararen gainean dituzten ideiak eta iritziak arakatu. Azkenik, hizkuntza praktikez hitz egingo da. Hau da, gazteek euskararekin egiten duten (edo egiten ez duten) horretan jarriko da arreta.

Jarraian, beraz, testuinguru etnografikoa osatzeari ekingo diogu.

2.2.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza

Puntu honetan, Amorebieta-Etxanoko errealitatera hurbiltzen saiatuko gara, hango egunerokotasuna eta dinamikak ezagutu ahal izateko. Horrek euskararen “eszenato-kia” jartzen lagunduko digu, gero gazteen hizkuntza jarrerak eta jokaerak hobeto aztertzeko eta azaltzeko. Testuingurua zehazteko ariketa hori osatzeko, herriko bizi-moduarekin, gazteriarekin eta hizkuntzarekin lotutako elementu orokorrak biltzen saiatu gara. Horiek dira, hain zuzen ere, ondoren aurkezten direnak.

Amorebieta-Etxano Bizkaia erdialdean kokaturik dagoen udalerrri bat da, Durangal-dea, Arratia-Nerbioi eta Busturialdea eskualdeen artean dagoena (Amorebieta-Etxano Durangalde eskualdeko udalerrria da). 2018. urtean, 18.919 biztanle zituen: gehienak (% 73) Bizkaian jaiotakoak dira, eta % 10, berriz, atzerrian (Estatu Espai-niarretik kanpo) (EUSTAT, 2018). Biztanleriari dagokionez, 15-24 urte bitartekoan pisua % 9koa da herrian (EUSTAT, 2018). Langabezia tasa dela eta, Amorebieta-Etxanon % 9koa zen 2018an, eta Bizkaikoa, berriz, % 13koa (EUSTAT, 2018).

Datu kuantitatibo horiez gain, bestelako gauza batzuk ere esan daitezke herriari bu-ruz. Amorebieta-Etxano historikoki bidegurutze batean kokatu da, eta, elkarrikete-tatik jaso izan denaren arabera, herriko bizitza eta dinamika nagusiak, oro har, he-rriaren erdialdean ematen dira. Dena den, mugimendua hainbat leku eta gunetan topa daiteke. Adibidez, batetik, aipatu da herriak merkataritza guna garrantzitsuak dituela eta herriaren pizgarriak direla, eta, bestetik, nabarmendu da zenbait kale oinezkoentzako bakarrik izateak lagundu duela herriaren bizitza dinamizatzen eta areagotzen. Horri hainbat parke egin izana gehitu beharko litzaioke. Azkenik, hainbat elkarriketatari aipatu zen azken urteotan herriko giroak gora egin duela, nagusiki ostalaritzaren eraginez (zehazki, tabernen eraginez). Bereziki gazteen artean. Badi-

rudi, lehen, asteburuetan, Amorebieta-Etxanoko gazteek ohitura gehiago zutela herri-kanpora joateko; orain, berriz, herrian topatzen dituzten tabernak direla medio, gehiagotan geratzen dira bertan.

Elkarrizketatuek deskribatu dutenaren arabera, Amorebieta-Etxano herri bizia da, eta gauza asko egin daitezke bertan. Ekimen ugari dituen herria da, eta, urte sasoiaren arabera, herritarrek badakite zer datorren. Apiril inguruan, udaberriko klasika antolatzen da bi asteburutan. Kadete mailakoek (23 urtez azpikoak) eta profesionalak parte hartzen dute. Pintxo lehiaketak ere jendea mugitzen du. Maiatzaren bukaeran egiten da, 3-4 egunez. Herriko tabernekin beren pintxoak prestatzen dute, eta jendeak puntuak ematen dizkie pintxoei, eta sari bat ematen zaio onenari. Herriko jaiak uztailearen 15etik 27ra arte izaten dira, 12 eguneko jaiak gutxi gorabehera. Gero, auzo dezente dagoenez, auzoetan ere hainbat ekintza antolatzen dira, eta beti dago mugimendua. Haizetara jaialdiak¹⁰ jende asko mugitzen du ekainean. Kanpotik etortzen da jendea (bandak etortzen dira Afrikako hainbat herrialdeetatik, Espainiatik, Frantziatik...), eta bertako asko ere ateratzen dira. Askok ekimen hau jaiak baino gustukoago dute.

Auzoetan ere giroa sumatzen da (kalean adin guztietako jendea, haurrak jolasten...), baina jendeak Amorebieta-Etxanoko erdialdean egin ohi du bizitza: Zelaieta zentroa, musika eskola, eskolak... Jendea hainbat tokitan joan-etorrian ibiltzen denez, herrian beti dago mugimendua.

Elkarrizketaturen batek dio Amorebieta-Etxanon lana ere badagoela. Herrian denda dezente daude, eta, Eroski, Lidl... eta antzeko supermerkatuak ere bertan daudenez, herritarrek ez dira kanpora irteten erosketa handiak egitera. Horrek kaleko bizitza pizten laguntzen du, baita oinezkoentzat kale asko egoteak ere (oinezkoentzako kaleak).

Parkeak ere beteta egon ohi dira, eta, batez ere, umeak eta adinekoak elkartzen dira bertan.

Era askotako jendeak egiten du elkarbizitza, Amorebieta-Etxanon. Egia da oinezkoen kalean (Luis Urrengoetxea kalean) euskaraz aritzen den jendea elkartzen dela nagusiki, eta gaztelaniaz aritzen dena beste zonalde batean ibiltzen dela. Zehazki, atzerriarrei dagokienez, errumaniarrak taberna batzuetan egoten dira, eta arabiarrek, berriz, seme-alabekin ikusten dira parkean (tabernetan-eta ez dira ikusten). Halere, orain dela gutxi taberna berria ireki dute oinezkoen kale erdian, eta horren inguruan jendea nahasten hasi da.

Atzerriarrei dagokienez, kalean, batez ere, umeak ikusten dira, gurasoak ez hainbeste (parkean bai, baina haurrak, 10-11 urte betetzean, bakarrik ibiltzen dira, eta gurasoak ez dira ikusten). Batez ere, errumaniar asko dago. Oso integratua daude herrian (bertako familietako hurrekin eskola publikoan elkartzen dira, futbolekin,

¹⁰ Haizetara Kale Musikarien Nazioarteko Jaialdia da, banden arteko lehiaketa eta Europa mailan ezaguna.

dendetan, tabernetan...); lana eta bizitza Amorebieta-Etxanon egiten dute. Jaialdi bat ere ospatzen dute (kantua, janaria...).

Arabiarren kasuan, herrian ez da haien presentzia asko nabaritzen (goizetan haurrak eskola eramaten bai...). Senegaldarrak ere badaude, baina horien parte hartzea oso apala izango litzateke.

Elkarrizketatuei herriko bilguneei buruz galdetzean, toki hauek zerrendatu dituzte: Nafarroa eraikinaren atzeko parkea, Andra Mari ondoko parkea, herriko plaza eta "Patata"¹¹ ondoko parkea. Azkenengo horretan jendetza ibiltzen da; umez eta gurasoz beteta egoten dira jolastokia eta alboko zelaia. Zelaieta eraikina ondoan dago (herriko liburutegia dugu bertan). Larrea Kiroldetgia ere aipatu zuten. Nafarroako berdegunea, Jauregi Berria (paseo polita omen dago hemen San Migelerraino —bide gorria— eta jendea korrikan, bizikletan... ibiltzen da), eta Bizkargi eta Belatxikieta mendiak.

Zelaieta Zentroan, Ametx erakundeak¹² kultura eta kirola kudeatzen ditu (baita beren dirulaguntzak ere). Ikastaro eta tailerrak antolatzen ditu (argazkilaritza, sukaldaritza...), eta hiru hilabeteko eskaintza etxez etxe banatzen du. Lokalik ez duten elkarteek bertako instalazioak baliatzen dituzte bilerak... egiteko. Era berean, gazteen-tzako ekintzak eta irteerak antolatzen dituzte (asteburuetarako...); Gazte Txokoa kudeatzen du...

Merkataritza, oinezkoentzako kaleak, parkeak, ostalaritza, jaialdi eta ospakizunak nabarmendu dira aurreko lerroetan. Kiroldetgiak ere pisua hartzen du, bertan hainbat kirol praktikatzeko aukera dagoelako. Bestela, jada aipatuak izan diren tabernak ere herriko bilgune nagusi gisa har daitezke.

Amorebieta-Etxanoko talde feministak ekintza ugari egiten ditu, eta herritar asko batzen dira haren ekitaldietan (helduak, gazteak...). Azpimarratzekoa litzateke talde horrek gazteen diskurtsoetan izandako pisua, herri mugimendu arrakastatsuen bezala irudikatu dute eta.

Amorebieta-Etxanok oso komunikazio onak ditu inguruko herri edo hiriekin¹³. Trenez Busturialdeko eta Bilbo-Donostiako lineak edukitzeaz gain, autobusez ere baditu hainbat lotura. Hizkuntzaren arloa igarota, deigarria iruditu zaigu, herriko gazteekin izandako zenbait solasaldietan, Amorebieta-Etxanon entzun daitezkeen euskara desberdinak (Gernikakoa, Arratiakoa, Durangaldekoa...) aipatzea eta nabarmentzea. Haien ustez, erabilera hori ulertzeko, herriaren izaera (bidegurutze izaera) kontuan

¹¹ "La Patata" artelan bat da. Andres Nagelek sortutako eskultura bat da, egun Zornotzako biribilgune batean kokatuta dagoena. Oso ezaguna da, eta, izenik gabeko artelana bada ere, herritarrek "(la) papata" deitzen diote.

¹² Ametx Herri erakunde bat da, 2005. urtean sortua. Kultur arloa kudeatzen du, eta euskara sustatzea haren helburuen artean dago.

¹³ Hori esanda ere, gazte batzuek aipatu dute gaueko 23:00etatik aurrera ez dagoela garraio zerbitzurik eta herrian sartuta gelditu behar dutela.

hartu beharko litzateke. Horren guztiaren ondorioz, esan daiteke Amorebieta-Etxanoko kokapen geografikoak bereziko garrantzia duela haren izaera, ezaugarriak eta bizimodua ulertzeko. Hori da behintzat ikerketa honetan parte hartu duten gazteek eta helduek jakinarazi digutena.

Elkarrizketatuen iritziz, azkeneko urteetan, asko hazi da herria (biztanlez), baina nahiko hazkunde lasaia eta eramangarria izan dela diote. Oraindik herri nortasuna mantentzen du, eta kanpotik etorri direnak ondo hartuak izan direla eta gustura bizi direla dirudi (herrian eta kalean parte hartzen dute; herria ez da Bilbora begirako lekua bihurtu).

Halere, lehen herria orain baino biziago zegoela diote gazteek. Orain lokalek pisu handia hartu dute gazteen artean. Gainera, gazteak unibertsitatera joaten hastean, adin horretako jende gutxiago ikusten da. Hala eta guztiz ere, ostiraletan eta larunbatetan herriko tabernetan, kalean, giroa sumatzen dela aitortzen dute, eta, diote-nez, lehen ez zen hala gertatzen.

Gazteen kasuan, elkar ezagutzen dute guztiek, eta elkarren berri segituan izan ohi dute.

Gazteen artean, bi joera suma daitezke: batetik, ekintzak antolatzen dituztenak edo ekintzetan parte hartzen dutenak, eta, bestetik, herrian gertatzen dena axola ez zaienak (gazteria kolektiboki inporta ez zaienak), edo egun guztia porroak erretzen igarotzen dutenak. Elkarrizketatu batzuen arabera, gero eta gehiago dira lehenengo multzoko gazteak.

Gazteen artean, aniztasun kultural handirik ez da sumatzen. Gerta liteke kanpotik etorritako haur, nerabe edo gazteren bat kuadrillan sartu izana ikastetxean batera ikasi dutelako, baina, berez, nahiko banatuta egoten dira.

Elkarrizketatuek aipatutako gazte taldeak edo “tribuak” honako hauek lirateke: *kaniak* (mutilak) eta *txoniak* (neskak), eta *borrokiak*. Kaniak eta txoniak gero eta gehiago direlakoan daude. 14 urteko neska-mutilak dira. Txikitatik porroak erretzen dituzte; “arropa horiek” eramaten (txandalak...) dituzte; ez dute euskaraz egiten beren artean; jarrera zatarra dute (norbait agurtzeko: ¿qué pasa tu?).

Herrian hiru ikastetxe mota daude: publikoa, ikastola eta kontzertatuak.

D erudian ikasitako gazteak leku berdinetan ibiltzen dira, eta B erudian ikasitakoak gehiago ateratzen dira kanpora (Durangora edo Bilbora parrandan).

Gazteen egunerokotasuna: astean zehar, goizetan klaseak eta klasetik ateratzean entrenamendura, partikularretara edo lokalera. Asteburuetan, lagunekin norabait joan (eguraldi onarekin, neskak agian Lagako hondartzara. Mutilek rally-ak ikusteko zaletasuna dute), lokalera edo tabernetan ibili, eta bertan afaldu. Ostegunetan, pintxo-potea indarra hartzen ari da gazteen eta nagusien artean (gazte kuadrilla gehienak topa daitezke bertan; gainera, ez bazara joaten, “eres un acabau” diote). Ostiraletan, gaueko 23:00etan ez da inor egoten kalean; denak daude lokaletan sartuta. Halere, zertxobait aldatzen hasi dela dirudi, gazteak tabernetara ateratzen hasi dira. Amorebieta-Etxanon, jendearekin egoteko eta kalera ateratzeko egunak pintxo-potearenak eta larunbatak izaten dira.

Etorkinen kasuan, elkarrizketatuek diotenez, beren lokaletan egoten dira, eta aste-buruetan diskotekaren batera (Bilbora edo) joaten omen dira. Agian kulturalki ez dute tabernetan zerbait hartzen egoteko ohiturarik, eta, beraz, lokaletan telebista ikusteko giro hori errazagoa egiten zaie harremanetan egoteko.

Kuadrillek presentzia handia dute; “kuadrilitise” deitzen diote. Kalera ateratzean, kuadrillako lagunekin elkartzen dira, eta planak ere kuadrillako lagunekin egiten dituzte (gero tabernetan elkartzean, nahasten dira). Ikastetxearen, ereduaren, adinaren eta sexuaren arabera egiten dira kuadrillak: “cuadrilla del 96”, “del 99”, “del 2000”... Gerta daiteke nesken kuadrilletan mutil bakanen bat egotea. Alderantziz gertatzea oso-oso zaila da (neska bakarria mutil kuadrilla batean).

Aipatzen dutenez, 14-15 urterekin futbolearen aritzen direnak ikastetxe guztietakoak dira, eta, gerta daiteke hortik aurrera taldekideekin ateratzen hastea (hori mutilen kasuan, batez ere; eta nesken kasuan, saskibaloian aritzen direnak ere ia guztiak batera ibiltzen dira). 16-17 urterekin bakoitzak erabakitzen du ekipokoekin jarraitu edo beste taldetxoren batekin atera.

Etorkin asko 14 urterekin etortzen dira, eta Bigarren Hezkuntza B ereduaren ikasten dutenen artean osatzen dute kuadrilla. Adinez txikiago dela etortzen bada eta euskaraz ikasten badu, ez du arazorik izaten bertakoekin kuadrilla osatzeko.

Elkarrizketatutako batzuen iritziz, Amorebieta-Etxanoko gazteak itzartzen ari dira pixkanaka, gero eta ekintza gehiago egiten baitituzte (kontzentrazioak...), eta gazteen artean ere gehiago elkartzen dira.

“Zornotzako Gazteak” elkarte dago, gazteez osatuta eta gazteentzako ekintzak bultzatzen dituena. Adibidez, jaietan txosnak, challenge-a, ginkanak, herri kirolak, tortilla lehiaketa, piragua, marmitakoa... antolatzen dituzte. Hainbat kuadrillatako jendea elkartzen da, eta pare bat pertsona ibiltzen dira ordezkari moduan. Gazte Eguna ere egiten dute (bazkaria, kontzertuak...). 16-24 urte bitarteko gazte kuadrilla guztiak biltzen dira egun horretan.

Horri lotuta, eta beste herrietan ikusi dugun moduan, azpimarratu behar da jaiak zenbaterako indarra duten gazteak erakartzeko. Gazteen artean, honako hauek dira gehien nabarmentzen diren ekimenak: Gazte eguna, pintxo-potea, larunbatak eta Santanatu eguna (herriko jaien barnean, Challenge eguna). Jendea lokaletatik ateratzeko eta herriko ekimenetan parte hartzeko, ezinbestekoa da jaiak loturiko proposamenak egitea; bestela, ez da lortzen jendea inplikatzea.

Edozein kasutan, gazteek ez dute asko erantzuten, eta dezente kexatzen omen dira: “eske Zornotzan inoiz ez dago ezer”; baina inor gutxi dago gauzak antolatzeko prest. Inplikazio falta dago. Antolatzen betiko hogeiak ibiltzen dira. Gazteek, oro har, antolatu gutxi, baina ekintzetara joaten dira.

Aurretik esana dago: Zornotzako Talde Feministak gazte asko mugitzen ditu, eta taldean 20-35 urte bitarteko emakumeak daude. San Juan gauean, sorgin gaua berreskuratu dute: neskak sorgin bihurtzeko deialdia egiten dute, eta gero erromeria.

Ikasle mugimendua ere badago (20 pertsona inguru daude). Baina beste ekimenetan dabilen jende bera da. Lotsa faktoreak ere eragiten du. Antolakuntzan jende bera

ibiltzen denez, aparteko norbait hurbiltzen bada, lotsatu egiten da (nahiz eta elkar ezagutu, zaharragoak dira...).

Manifestazio batzuetan ere gazte dezente biltzen dira; adibidez, Kataluniako erreferenduma dela-eta.

Oro har, neskak gehiago mugitzen dira (grebetan, manifestazioetan, elkarrekin...).

Kaniak eta txoniak ez dira ezertan inplikitzen. Borrokan gehiago inplikitzen dira, baina nahikoa *postureoa* (itxurakeria) dago (asko azpimarratzen dute beraiek "han izan zirela", eta "zu ez"...).

Gazteagoak herrian ekimenak antolatzea ez badira animatzen, herria hilko dela uste du elkarrizketatu batek. Uste hori nahiko zabaldua dagoela dio. Norbait ekimenak antolatzea etortzeko animatzean, ordea, 17 urteko gazte gehienek erantzuna hau izan ohi da: "que dice este pesau, que se vaya a otro garito". Ondorioz, gazte batzuk mugitzeko eta laguntzeko prest daude, eta beste batzuk, ez. Ekimenak egiteko ideiak besterik gabe sortzen dira; adibidez, pintxo-potean. Baina, horretarako, gauzak antolatzeko, kalean egon behar zara, noski. Lokalean dauden gazteak ez dira enteratzen.

Eszenario edo testuinguru zabal horretan txertatu behar dugu Amorebieta-Etxanoko hizkuntza egoera.

Amorebieta-Etxanoko euskaldunen kopurua % 56koa da; erdaldunak % 26 dira, eta ia euskaldunak, berriz, % 18 (EUSTAT, 2016). Erabilerari dagokionez, berriz, 2020an euskararen kale erabilera % 20koa zen.

Biztanleriaren % 53k gaztelania du lehen hizkuntzatzat; herenak (% 33), euskara; eta % 9k, euskara eta gaztelania; eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat, berriz, %5ek. Arreta etxeko eremuan jartzen baldin bada, hamarretik ia seik gaztelania erabiltzen dute (% 58), eta euskara, berriz, % 23k. Bi hizkuntzak batera herritarren % 16k erabiltzen dute, eta gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten herritarrak, berriz, % 4 dira (EUSTAT, 2016).

Datu orokor horietatik gazteen adin taldera pasatzen bagara, herriko gazteen % 83 euskaldunak direla aipatu behar da; % 7 ia euskaldunak dira, eta % 10, erdaldunak. Euskararen ezagutza maila handia den arren, gazteen erabilera maila % 19ra jaisten da (2013ko datuen arabera). 2017-2018 ikasturteko matrikulazioei erreparatzen badiegu, D ereduaren zabalpena azpimarratu beharko litzateke; izan ere, 4.974 ikasletik bakarrik 154 zeuden B ereduan matrikulatuta, eta A ereduan, berriz, 160.

Baina datu horiez gain, badira hizkuntzari lotutako beste elementu eta aspektu batzuk elkarrizketetan nabarmendu direnak eta zifra zein ehunekoen argazkia osatzen dutenak.

Amorebieta-Etxanon, euskara polita daukate, baina gutxi entzuten da. Oro har, gaztelaniaz egiten da (kalean gaztelania euskara baino gehiago entzuten da, nabarmen). Herrian, euskaraz bizitzeko aukera badago; lehenengo hitza euskaraz egitea falta da. Euskara jakin askok dakit; erabili, ordea, ez hainbestek. Herriko arazoa erabilera da.

Adinekoek euskaraz egiten dute, euskalkian (askotan gazteek ez dute ulertzen zer esaten duten), eta adina jaitsi ahala, euskararen erabilerak ere behera egiten du.

Hurrek dena euskaraz ikasten dute, baina gero, bat-batean, nerabeek eta gazteek gaztelaniarako joera hartzen dute. Gazteei gaztelaniaz aritze horrek “prestigio” gehiago ematen die. Gero, nor bere ariketa egiten du, eta euskarara bueltatzeko ahalegina sumatzen da. Ohitura aldaketak bultzatu behar dira.

Haurren eta gurasoen arteko harremana euskaraz izaten da (behintzat gurasoak baldin badakite), baina gero, haurren artean, parkean, gaztelaniarako joera dago.

Zornotzako Gazteak elkartean, talde feministan, Ametxen, Gure Esku Dagon, euskaltegian... euskara erabiltzen da. Nolabait esatearren, herriko eragile garrantzitsuenek badute euskararekiko sentsibilitatea, eta Zelaieta zentroan, oro har, lehentasuna ematen zaio euskarari gaztelaniaren aurretik (hitzaldietan...).

Etorkin asko dago Amorebieta-Etxanon, eta errazagoa zaie gaztelania ikastea eta erabiltzea. Beste hizkuntzaren bat entzutekotan, errumaniarra izan daiteke gehien entzuten dena.

Lehen, eskola nazionaletan (publikoan) dena zen gaztelaniaz, eta ikastola klandestinioki sortu zen, euskaraz ikasteko. Euskaraz ikasteko eskubidea onartu zenean, eskola guztietan sartu zen euskara; baina ordura arte, euskara erabiltzekotan, etxean soilik egiten zen. Ez guztietan, ordea, Amorebieta-Etxanon kanpoko jende asko baitago (Albacetetik, Extremaduratik... etorritakoak).

Oraingo gazteen kasuan gertatu da familiaren arabera euskaraz egiten dutela edo ez, baina etorkizunari begira, hori aldatuko dela pentsatzen du elkarrizketatu batek; izan ere, orain gazte guztiek euskara dakitenez, poliki-poliki beren etxeetan seme-alabekin euskaraz egingo dute. Horrek aldaketa ekarriko duela uste du.

Hiztunen erabilerarekin konparatuta, nabarmenagoa da euskararen presentzia Amorebieta-Etxanoko paisaian: dendetako izenak, itsatsitako kartelak eta mural asko euskaraz daude. Elkarrizketatuek diote Amorebieta-Etxanon euskaraz egiteko ohiturarik ez dagoela, baina, bertako komertzio eta tabernetan lehenengo hitza euskaraz eginez gero, ulertuko dizute, eta, kasu askotan, euskaraz artatuko zaituzte.

Euskaraldia dela eta, elkarrizketatuek diote herrian inplikazio maila polita egon zela, baina 11 egun hankamotz gelditu zirela. *Ahobizi* asko izan ziren. Rolak gaitasunarekin lotu ziren, eta oso arraroa egin zitzaizen euskaldun zaharrak “belarriprest” txaparekin ikustea. *Belarriprestek* prestigio txikiagoa balute bezala. Euskaraldiaren bidez, lortu da kategoria zurrunetatik ateratzea: “oin arte izen da edo zara erdaldune edo eiten dozu euskeraz”. Batzuen ustez, ekimen horien bidez hizkuntzaren gaian denontzako tokia dagoela adierazten da.

Aurretik aipatu den moduan, gazteen artean, gehienek euskara dakite. Baina, euskaraz egiteko, kontzientzia hartu behar da, eta kontzientzia hori hartu duten kuadrillak gutxi dira Amorebieta-Etxanon. Horri lotuta, ikerketan zehar ikusi da unibertsi-tate munduan sartzean hasten direla gazteak (gazte batzuk) euskararen alde egiten.

Gazte zornotzarrek diotenez, erabat euskaraz egiten dutenekin (gipuzkoarrak, gernikarrak...) elkartzen zara, eta euskaraz bizitzen hasten zara (watsapetik, klasean, irakaslearekin, kafetegian...).

Euskararen aldeko ekimen eta ekitaldietan gazteak ikusten dira (adibidez, Zornotzan, Euskararen Egunean, jendea mobilizatzen da), baina gero haien artean ez dute euskaraz egiten (egunerokotasunean ez da apenas egiten).

Alor akademikoan (eta hurrekin lan egiten dutenen kasuan, alor profesionalean) erabiltzen da euskara. Gazteei zuzendutako ekintzetan euskaraz egiten da (Gazte Eguneko irakurketa euskaraz), ulertzen dutelako; baina herriko kontzentrazioetan bi hizkuntzetan irakurri ohi dira komunikatuak.

Eskolako jolastokian nabarmena da: LHko jolasgaraian euskara entzuten da, baina DBHkoak ateratzean, aldaketa nabarmena dago gaztelaniaren alde.

Herriko elkarteetan orain dela gutxi arte ez zaio garrantzirik eman hizkuntzari, orain hasi da zertxobait kontuan hartzen; horren emaitzak ikusteko, ordea, itxaron egin beharko dugu.

Gaztelaniak prestigio gehiago du, besteak beste, gazteen artean. Gaztelaniaz egiten da “guaia” delako; euskararekin ezin zara “guaia” izan. Ez dakigu nola esaten den “eres el puto amo” euskaraz. Hizkera informala ez da garatu euskaraz. Horregatik, besteak beste, gazteek euskara gutxi erabiltzen dute.

Gazteentzat euskara eskolako irakasgai bat gehiago da, soilik. Beraz, lagunekin erdara erabiltzen dute. Batzuek sentitzen dute irakasleek ikasleak euskaraz egitera behartzen dituztela, eta horrek —diotenez— ez du laguntzen. Batzuk, euskaraz hitz egiteko erraztasun handirik ez dutenez, lotsatu egiten dira; edo euskalkiaz mintzo direnek barre egiten diete batuaz hitz egiten dutenei. Kasu horietan zaila egiten da euskara erabiltzen jarraitzea. Edozein kasutan, lehenengo hitza euskaraz egitearen garrantzia azpimarratzen dute, elkarrizketa euskaraz amaitu ahal izateko.

Gazte batzuek euskara gehiago erabili nahiko luketela diote.

Amorebieta-Etxanon, ikerketan parte hartu duten beste herrien kasuan egin den bezala, lau aspektutan jarri nahi izan dugu arreta. Aspektu horiek gazteen diskurtsoetan agertutako gakoak antolatzen lagundu digute. Hauek dira lau aspektu horiek: lehena, egun mugikortasunak eta mundu digitalak duen zabalpena; bigarrena, herria eta herriaren inguruko irudia; hirugarrena, herrian euskara erabiltzeko dauden aukerak; eta azkenik, herriak berak daukan kohesio edo trinkotze soziala. Jarraian, ezaugarri horiek azalduko ditugu. Hasteko, gazteek euren herriari buruz egindako gogoetarekin baino gehiago, egun herria gaingitzen duen errealitatea aipatuko dugu, mugikortasunak eta mundu digitalak gazte hauen aldibereko kokapen anitz ahalbidetzen dituztelako.

Telefono mugikorra eskuan dutela, sare sozialen bitartez, mundu osoari sarbidea dutenean, zer esan nahi du Amorebieta-Etxanokoa izateak?

Mugikortasuna eta mundu digitala, haurtzaroan herriak zuen zentraltasuna apalduz

Aurretik azaldu den bezala, mugikortasuna aipatzean mundu digitalaz, bidaiez edo gazteriaren erreferente desberdinez hitz egiten dela azpimarratu nahi dugu. Gizartea, oro har, eragin horien mende dago, baina ezaugarri horiek gazteen artean pisu berezia hartzen dutela sumatu dugu. Horri lotuta, badirudi gazte askorentzat umetan herriak eta herriko testuinguruak zuten erreferentzialtasuna lausotu egiten dela. Hau da, Amorebieta-Etxanok haien bizitzan edo bizimoduan zeukan pisua, neurri batean, galdu egiten da, bestelako erreferentzia batzuekin partekatzen delako. Pentsatzen dugu horrek guztiak eragina duela ere hizkuntzarekiko atxikimenduan eta hizkuntza-eren erabileran.

Zer dela eta? Non sumatzen da eragin hori?

Hasteko, sare sozialek hartutako pisua dugu. Horren adibide gisa, elkarrizketa baten pasartea ekarri nahi izan dugu:

(Z9): (...) Nire blogean beti bi hizkuntzatan idazten dot, sare sozialetan bi hizkuntzatan, gero askotan igertzen naban be idazterakoan lehenengo hitze euskeraz, ba dekotenez jarraitzaileak Katalunikoak, Castellonekoak-eta, ba ezebien jarraitzen irakurten eta nik bi hizkuntzatan idazten dot. Orduen hor egon zan momentu bat oin dala gitxi hasi nintzela lehenengo erderaz jartzen euskeraz baino eta tipa batek idatziozten, ez dakit nor dan baina baten idatziozten: joe ba ni nabil hizkuntza normalizazinoan inguruen tal, eta ba ez dakit, ez dazte ondo iruditzen zuk idaztea lehenengo erderaz. Eta gero azaldu notzen zergatik dan, ba uste dabelako ez dotela... "joe siempre escribes en euskera" da eta ez, nik bi hizkuntzatan idazten dot, o sea, banatzen dot eta bietan dau aukera hori, beti, hasi nintzenetik oin dala zazpi urte beti. Orduen bai eukin dot barne gatazka bat nire barruen, oin barriro hasi naz idazten euskeraz lehenengo eta oin gauza asko bai hasi naz apurtxu bet euskeraz jartzen eta erderaz ez. Holan... ba urten jatelako edo adibidez arropa linea erosi ozten ia danak, ehuneko 90, gero Alikanteko batek erosi ozten baina... danak euskeraz idatzioztie erosteko. Orduen horrek zeozter esan nahi dau, nire jarraitzaileak direla hemengoak, orduen horrek barne gatazka bat sortu deu nigan.

Aipu horrek, oinarrian, egun, gazte askok adierazten duten kezka edo zalantza jartzen du mahai gainean: noraino erabili euskara sare sozialetan? Jakina da: egun, sare sozialen unibertsoan, pertsona baten prestigioa edo arrakasta jarraitzaile kopuruaren bitartez neurtzen da. Nahi gabe ere, galdera etortzen zaie erabiltzaile gazteei: zer ekartzen du euskaraz egiteak? Izan daiteke jarraitzaileak murrizteko gako bat? Itaun horien aurrean, erantzuna baiezkkoa bada, argi dago ondoren datorrena: euskararen erabileraren galera sare sozialetan. Badirudi, gazte askok ondorio berbera atera dutela eta, horregatik, bai jarraitzaile kopurua handitzeko, bai beste leku batzuetako jendearekin harremanetan egoteko, euskararen erabilera bigarren edo hirugarren toki batean uzten dute.

Dena den, puntu honetan, sare sozialez gain, bidaiak edota ikasketak ere aipatu beharko lirakeke, horiek ere gazteek herriarekiko garatzen duten loturan eragina dutelako. Hona hemen horren inguruan interesagarriak iruditu zaizkigun bi aipu:

(Z8): Baina aldi berean nik uste dot bizitza asko aldatu dala, asko mugitzen gara, zu ja ez zagoz bakarrik Zornotzan, Leioara zoaz, Leioan hartzen dozu erlazinoa beste batzukaz, nik oin Donostin ikasten dot eta beste euskaldun batzukaz berba eiten dot eta nire etxean Donostin bata Lesakakoa da, bestea... (...) Eta bizitza nik uste dot askoz be gehiago mogitzen garela, askoz be jende gehiago ezagutzen dogula herri guztietakoa eta...

(Z9): (...) Eta gero ba kuadrillako asko, ba Bartzelonan eta Madrilan eta bizi direnez, ba ja kuadrillako watsapean euskeraz oso gutxi.

Gure iritziz, bi pasarte horiek ondo erakusten dute herriko gazte askok hautematen duten errealitatea, adibidez, unibertsitatean ikasten hasten direnean. Ordura arte haietzako funtsezkoa izan den kokagunea alde batera uzten da, eta beste herri, hiri edo gune batzuek garrantzia hartzen dute, erreferente berriak agertuz. Horri, gainera, mundu digitalak eskura jartzen dituen beste “geografia” guztiak gehitu behar zaizkio.

Puntu honekin amaitzeko, interesgarria iruditu zaigu Amorebieta-Etxanok dituen komunikabide onak berriz aipatzea. Ikerketa egiten ari ginela, gernikar batek, bertako (Gernikako) erreferentziaz galdetzean, komentatu zuen seguru aski Amorebieta-Etxanoko gazteek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura gehiago dutela Bilbo gertuago dutelako. Gauzak horrela, herriaren kokapena berak eta horrek herriari eman dion dinamismoak hizkuntza eremuan izandako eraginaz hausnartzeko parada ematen dutela dirudi.

Aipatutakoan sakonduz, zer irudi dute gazteek beren herriaren gainean? Nola aurkezten eta deskribatzen dute beren bizitokia?

Izaeraz zein hizkuntzaz, ahul

Gurean, norbait berria ezagutzean “nongoa zaren” galdetzea da ohikoena. Askotan, izenaz baino lehen, jaioterriaz edo bizitokiaz galdetzen da. Orduan tentagarria izaten da herria deskribatzea edo herri horren inguruko ezaugarri bereziren bat aipatzea. Denok dugu gure herriari buruz irudi bat eraikitzeke joera, baita “besteen” herriei buruz ere. Horrela, etiketak edo estereotipoak sortu edo elikatzen ditugu. Irudi eta iritzien truke horretan gure bizitokiaz pentsatzen dugunak pisu handia du, baina, baita besteek norberaren herriaz duten iritzia ere. Amorebieta-Etxanon egindako elkarrizketetan gai hori askotan agertu zen, eta jasotako testigantzetan ideia interesgarriak daude.

Zornotzaren inguruan dagoen irudiari dagokionez, elkarrizketatuek honako hau adierazi zuten:

(Z9): Eta zergatik da herri kurioa Zornotza berak esan dauena-gaitik? Garela fisikoki Durangaldea, autobusek-eta Gernikegaz dekoguz eta ekonomikoki asko gara Arratiako amakomunitate-gaz. Orduen...

Bale eta apur bat orokortasunek albo batera lagata eta Zornotzara etorritxe, Zornotza eta egoeran gaineko zein argazki egingo zenduten? Non dauka indarra euskarak? Non ez?

(Z6): Zornotza hasteko nik uste dot dala herri curioso bat aztertze euskaldunon artean be erabiltzen dogun euskara edo euskalkie. Zornotzan existitzen dire hainbat euskalki, Zornotza bidegurutze bat danez, edo zanez, oin ja ez, ba jende askok egiten dau gehiau berba Arratieraz, jende askok egiten dau Durangon esaten dan moduen, apur bat nahastute dau. Orduen, ez dakit dauen Zornotzako euskara bat. Jende batek esaten dau baietz baina ikusten dabe euren dala, baina... nik adibdiez segun eta nogaz nauen diferente eiten dot.

(Z9): dekoguz influentzia handiek.

(Z6): hori hasteko nik uste dot badala datu importante bat. O sea ez dekogule...

(Z8): identidaderik.

Identitaterik gabeko herria, euskalki gabeko herria, bidegurutzea... Oro har, elkarriketatutako gazteek izaera propiorik gabeko herri gisa definitu zuten Amorebieta-Etxano. Eta antza, iritzi hori nahikoa zabaldua dago herritarren artean. Dena den, gazte batzuen ustetan, egun herri izaeraren berreskurapen prozesu bat ari da ematen. Atzera begira, herriko historian murgilduta, aipatzen dute lehen Amorebieta-Etxanok herri identitate bat bazuela, baina, galera prozesu batean murgildu zela eta lausotzen edo joan zela. Hala ere, egun, hainbat ekimen direla eta, horri buelta emateko bidean egongo litzateke herria. Herri identitatea indartze prozesu batean murgiltzen ari dela diote gazte batzuek.

Bestela, herriaren identitatean euskarak duen pisuaz galdetzean, honako erantzun hau eman zigun Amorebieta-Etxanoko gazte batek:

Z11: Es que Zornotza da bastante makettoa, Zornotzan ez dau... zu zoaz ba Gernikera, edo Durungora ja ez dakit baia Arratirantza eta eiten da euskeraz askoz gehiau hemen baino. Zornotzan ez dakit zergaitik ez da eh... inoz be ezta ein eh... igual dau kuadrillaren bat euren artean euskera erabilten dauena baia generalean ez eizu pensau eh, Zornotza da bastante makettoa.

Amorebieta-Etxanoren irudi oso erdalduna daukate bertakoek (maketo hitza erabili dute hori adierazteko). Irudi hori herritik kanpo ere zabaldua omen dago. Horrela, Gernikan, bertako gazteek Amorebieta-Etxano herri erdalduntzat (edo Gernika baino erdaldunagoa behintzat) jo zuten ere¹⁴. Uste horrek gazte batzuegan etsipen sentimendu moduko bat sortzen du. Horregatik, gazte batzuk euskaraz bizitzen saiatzen badira ere, badakite testuinguruak ez duela batere laguntzen. Amorebieta-Etxanoko gazteen tokian jarrita, zaila dirudi baikorra izatea.

Euskaraz hitz egiteko aukera urriak

¹⁴ Ikerketaren lehen fasean Gernika hurbileko erreferente euskaldun bezala aipatu zuten zornotzar gazteek.

Gernikako kasuan ikusi dugun moduan, toki batzuetan oinarrizko baldintza soziolinguistikoak ematen dira euskararen erabilera bermatzeko edo, behintzat, sustatzeko. Adibidez, aipatu da Gernikako kaleetan euskara edozein momentutan aurkitu daitekeela eta jendeak, hizkuntza jakiteaz gain, erabiltzen duela. Horrek gehienetan oinarri bat ematen du euskararen erabilera areagotzeko.

Amorebieta-Etxanoren egoera Gernikaren alderantzizkoa dela esan daiteke. Euskararen datuak oso apalak ez diren arren, euskararen kale erabilera % 23koa da, eta, gazteen kasuan, berriz, % 19koa. Bada oinarri bat, baina ez herria euskaraz blaitzeko bezainbestekoa. Ondorioz, horrek euskaraz hitz egiteko aukerak murrizten ditu. Ideia hori ezaguna bada ere, Amorebieta-Etxanoko kasuan berresten dela azpimarratu nahi genuen.

Herria eta gazteen arteko harremanak, kinkan

Esana dago: herriko gazteen iritziz Amorebieta-Etxano identitate gabeko herria da. Ideia horrek jada pista bat ematen du atal honetarako, pentsaraziz, ziur aski kohesio handirik ez daukan herria dela Amorebieta-Etxano. Dena den, gaia hobeto irudikatzeke aipu pare bat ekarri ditugu:

(Z6): baina gero Zornotzan be gertatzen dana da, a ver, 18.000 biztanleko herri bat da eta oso errealdade diferenteak dauz. (...). Orduen badauz ba errealdade pilo bat. (...) (...) Nik uste dot hori, eta oin erantzun dotzutena be bai, erralidade oso diferenteak dauzela Zornotzan eta askotan harritzen gara, ezagutzen dozu beste leku baten Zornotzakoa dan beste persona bat eta "ostia zu Zornotzakoa zara?".

(Z11): nik hemen Zornotzan ikasi nauen, monjetan. Hemen dauz, Andra Mari ikastola, Larrea eskola publikoa, Karmelo dala fraileena, monjak eta Lauaxeta be bai.

Testigantza horietan bi ezaugarri nabarmentzen dira: batetik, Zornotzak biltzen dituen errealtate desberdinak. Horrek eragina eduki dezake herriaren kohesio mailan. Bestetik, herrian dauden ikastetxeen kopurua: gazte askok ez dute elkar ezagutzen edo, behintzat, ez dute berebiziko harremanik. Elkarrizketatu batek aipatu zuenaren arabera, gazte asko nerabezaroan ezagutzen dira, kirolaren bitartez.

Pentsatzen dugu ezaugarri horiek ere badutela eragina euskararen erabileran. Adibidez, beste gazteak ez ezagutzeak, eta aurreiritziak tarteko, lehenengo hitza gaztelaniaz egitera bultzatzen dezake. Era berean, herrian askotariko errealtate sozialak eta kulturalak izateak eta horiek ondo ez ezagutzeak euskararen erabilera zailtzen dute.

Hala ere, elkarrizketetan aipatu denaren arabera, esan daiteke egun, adin batetik aurrera behintzat, nolabaiteko lotura garatzen ari dela gazteen artean, gehienbat tabernen bitartez. Hori da behintzat hainbat pertsonak nabarmendu dutena; izan ere, lokal horiek bultzatu duten giroa gakoa kontsideratzen da gazteen arteko hartu emanak gertatzeko. Aspektu hori kontuan hartu behar da Amorebieta-Etxanon oso zabaldua dagoen fenomeno baten aurrean. Izan ere, Amorebieta-Etxanoko gazterian oso orokortuta egon da, eta dago oraindik ere, lonja edo lokalen erabilera. Lonjak

edo lokalak kuadrillaka banatzen dira. Horrek kuadrilla bakoitzak isolatzera eramandu. Edo hori da behintzat gazte askok azaldu dutena. Orain, berriz, ematen du gazte batzuk tabernetara joaten hasi direla eta, bertan, beste kuadrilletako gazteekin elkartzen direla. Gune horietan “kontrol” soziala handiagoa denez, ohikoagoa omen da euskara entzutea, behintzat lokaletan baino gehiago.

2.2.2. Gazteen hizkuntza ideologia, euskararen gaineko ideiak

Atal honetan, hizkuntza ideologiak izango dira hizpide, eta gazteekin egindako elkarriketak erabiliko dira informazio iturri gisa. Ondorengo gaietan jarriko da, bereziki, arreta: gazteen aurreiritziak; hizkuntza praktiken naturalizazioa; eskola, familia eta adinkideak; eta euskalgintza.

Ikerketan eten gabe topatu gara gazteen aurreiritziekin. Aipatutako guztiak ezin direnez azaldu, jarraian horietako batzuk, errepikatuenak edo, bilduko dira. Gaiarekin hasteko, gazteek beste gazte batzuen inguruan dituzten aurreiritziak azalduko dira.

Datozen gazteen belaunaldiak, okerrago

Beste herrietan bezala, Amorebieta-Etxanon ere gai honen inguruan mintzatu dira gazteak. Haien ustetan egungo gazteek (nerabeek) ez dute euskara erabiltzen. Aurreiritzi hori oso zabalduta dago. Hona hemen, gai honekin lotutako pasarte batzuk:

(Z8): (...) ez dakit zer gertatuko dan baina eh hori, eh... jakiteak ez dauela esan gure gero erabiltzea. Eta zentzu horretan errealidadea da umeen kasuan ez dala oso ohikoa entzutea euskeraz egitea.

(Z6): hori egie da.

(Z8): Geroz eta gitxiau, nik igertzen dot pilo bat nire edadetik zure [Elene] edadera; hor ja eh, tarte horretan ikusten dot diferentzia itzela. Gure edadetik gora ikusten dot euskaldunau, behera baino.

(Z6): nik ikusten dot hor badauela tarte bat...

(Z8): justo tarte hori...

(Z6): ez dakit ze tarte dan...

(Z8): dos mil...

(Z6): ez dakit dan... ez, baina nik be egiten neban, ez dakit dan 13 urtetatik 22 urtera, edo bueno igual 20 urtera...

(Z8): Ez dakit dan etapa bat edo...

Eta zuk igual gaztiauuan ikuspegitxik, ikusten dozu afera hau etapa bati lotuta?

(Z7): ez dakit, guri pase jaku. Egie da igual gazteagoak ginenean ez genuela pentsetan horretan eta oin, ba igual kontzientzia hartzen dozule edo... baina egie da Aritzek esan dauen moduen, 2000tik aurrera dauela kriston beherakda bat, ez dakit zergatik baina ikusten da.

Eta aipatuko zenuten bilakaerarik egon dala gaztien artin herrixen?

(Z7): nik uste zuen generazinoa izan zala bilakaera positibo bat, zurea ya izan zan como piko bat, eta nireagaz hasi zan bajatzen, holan... bueno depende nun begiratuten dozun be...

(Z6): nik zure adina euki nabanean euki neban zure pertzepzino bardine.

(Z8): ez dakit dan etapa bat, bakotxan bizitzako etapa bat eta pertzepzinoa dan hori, edo berez badauela generazinoa... ez dakit ez dakit.

(Z7): es que ni gazteago nintzanean ez nintzen oingoan modukoa, o sea, oingo gazteak ez ziren gure generazinoan moduko gazteak, edo zuen generazinoak gazteak.... Bueno gazteak dinot 14-15 urtekoak, horrek dato000zzz, fuerte.

(Z9): baina zer dinozu, horrek datozela erdaldunek?

(Z7): bai. Hori modan...

Elkarrizketatuek gaztelaniaren erabileraren areagotzea, hein batean, “etapa” bati egozten diote (“moda”, “guay-smoa” ...); alegia, nerabezaroan euskara alboratzeko dagoen joera bati. Ideia hori oso presente dago gizartean eta bereziki gazteen artean. Bestela, harrigarria da nolako segurtasunez zehazten dituzten zeintzuk diren “gaztelaniaz hitz egiteko joera duten gazteak”: “2000tik aurrera...”. Horrelako aipamenek gazteek beren artean bereizteko erabiltzen dituzten muga sinbolikoez hitz egiten digute? Edo, besterik gabe, gazte bakoitzak bere esperientziatik abiatuta eraiki dituen irudipenez eta usteez? Zaila dirudi galdera horiei erantzutea, baina esan daiteke gazteen arteko mugak ezartzeko garaian, hizkuntzak pisua hartzen duela. Euren ahotan, zabaltzen den ideia da oraingo gaztetxoek ez dutela euskara erabiltzen eta “gure garaian”, berriz, giroa euskaldunagoa zela.

Gaitik urrunduta gabe, interesgarria da ikustea nola, hizkuntzaren auzian ere, gazteek beste gazteei begira egoten diren, batzuk erreferente bihurtzen direlarik. Horrela adierazi zuten elkarrizketatutako batzuek:

(Z6): (...) O sea, ja adin bat dekozunean hasten zara fijetan nagusia-goetan eta fijetan bazara euskeraz eiten dabiela, horrek erreferente eukitea be niretzako eragiten dau asko.

(Z9): bai ze iri harritu eiten dozte esatea zuk be... ze niretzat zure kuadrilla da euskaldunetarikoa Zornotzan, orduen harritzeozte [barreak].

(Z6): A ver bai eh, euskaldunek gara, o sea... igual eh minusbaloratu dugu nire-gure burue edo zentzu horretan...

(Z9): bai bai niretzako zure kuadrilla da euskaldunetakoa. Orduan zuretzat hori bada erderaz eitea, zer eiten da nirean? Edo beste batzuetan? [barreak] Bai bai, horregatik da ikusten dozune beste batzuegan, gero ze pasetan dan...

Argi dago gazteak beren artean hizkuntzaren bitartez ere identifikatzen direla; alegia, bata beste bati “niretzat zure kuadrilla da euskaldunetarikoa Zornotzan” esatean, hizkuntza lagun talde horren marka bilakatzen dela esan nahi du. Horri lotuta, ikerketako lehen fasean egindako elkarrizketetan, Amorebieta-Etxanoko gazte batzuek herriko gazte taldeei buruz hitz egitean, txoniak, kaniak eta borrokak aipatu zituzten

bereziki. Haien aburuz, talde edo “tribu” horiei dagokionez, oro har, *txoniek* eta *kaniak* ez dute euskara erabiltzen. *Borrokek*, berriz, euskara gehiago erabiltzen dutela zioten, nahiz eta batzuetan “itxura” edo egiteagatik izan. Horrekin lotuta, egungo nerabeek, modari jarraituz, *txoni* eta *kani* estetikara hurbiltzeko joera dutela nabarmentu zuten.

Behin gazteen inguruko aurreiritzi nagusiak azalduz, jarraian, administrazio publikoa eta euskararen arteko loturaz hitz egingo da.

Administrazio publikoan euskara ere hanka motz

Gazteen artean bolo-bolo dabilen beste iritzi batek administrazioan ematen den euskararen erabilerarekin du zerikusia. Gazteen ustetan, administrazio publikoan zailtasunak daude euskararen erabilera gauzatzeko; alegia, euskaraz ondo artatua izateko. Hona hemen honen inguruan jasotako testigantza batzuk:

(Z6): (...) bueno esan behar da osasun eremue edo nahiko erdaldune dala baina Galdakaoko ospitalea euskaldunetarikoa-edo dala (...)

(Z6): hori Euskaraldian. Nik adibidez eh... bueno Osakidetzan badau hizkuntza normalizazioan aldeko plan estrategiko bat, bueno irakurtekoa da eta irakurten dozu eta emoten dau Osakidetza dala super euskaldune. Da gainera holan idatzite dau, eh emoten diren lehenengo berbak, rotuluetan eta, beti izan behar direla euskeraz eta gero erderaz baina bueno, gero errealidadean ez da emoten holan, idatziz geratzen da bakarrik.

Horri lotuta hizkuntza titulua ere hizpide izan ziren elkarrizketatutako gazteen artean. Hainbatetan, kexu agertu ziren unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteagatik euskarako C1 maila titulua automatikoki lortu ahal izatearekin. Aipatzen dute beren unibertsitateko kide batzuek zailtasun handiak dituztela euskaraz komunikatzeko eta, halere, balitekeela gradua amaituta euskara titulua lortzea. Ideia horrekin bueltaka ibili arren, inplizituki edo funtsean dagoen (erakundeekiko) kritika honako hau da: D ereduak (soilik) ez du bermatzen euskara jakitea edo euskaldun oso izatea.

Hainbat testigantzatan jaso denaren arabera esan daiteke gazteak, hainbat aurreiritzi tarteko, mesfidati agertzen direla erakunde publikoek euskararen inguruan bultzatutako zenbait ekimenekiko. Ideia eta diskurtso horien balorazioan sartu gabe, azpimarragarria iruditzen zaigu horiek duten edo eduki dezaketen eragina gazte hauen jardunean. Azken finean horretan datza hizkuntz ideologiaren garrantzia: behin hiztunen iruditegia eraginda, errealitatean eduki dezaketen isla; kasu honetan, euskararen erabileran. Dena dela, hori esanda, aipatu behar da gazteek, oro har, nahiko zailtasun dituztela administrazioen jardunak (eta bereziki hizkuntza jardunak) baloratzeko.

Hizkuntza ohiturak eta gaztelaniaren kutsadura, menderaezinak

Amorebieta-Etxanon, euskal gizartean, oro har, oso errotuta dagoen diskurtso batekin egin da topo: oso-oso zaila da hizkuntza ohiturak edo praktikak aldatzea. Ildo

horretatik, gazte askok hizkuntza praktikak naturalizatu egiten dituzte, “horrela gertatzen bada, betirako izango da” edo “natural ateratzen zaigu” esanaz. Hori erraz irudika daiteke, jarraian agertzen diren testigantzetan:

(Z6): Nik esan behar dot horri lotute, guk eukin dogula sarritan eztabaida hori, bai izan dala kontzienteki hartu dogun... bueno, ez erabaki bat, baina askotan hitz egiten dogula horri buruz, ba joera dekogula igual talde txikiagotan euskeraz ibilteko baina ez dakit nor datorrela eta haregaz erderara jotzen dozule, beti esaten dou jo beti... kutsatzen dau, ez? giro hori. Sin más.

(Z9): Eta benetan euskeraz gure dogu ein baina gero danok gauze-nean erderaz, es que azkenan da erosoena danok erderaz eitea.

Eta zuek etxean ohitxura hori eukita, suposatzen dotzue pisurik lagun arteko dinamika erderaz izetea?

(Z6): que va, que va. Es que dire ohiturak, nik etxean eiten dot euskeraz eta eiten dot euskeraz, niri etxean euskeraz eitea urtetan jat baia kanpoan ez... es que segun nogaz nauen, Iñigogaz por ejemplo euskeraz eitea da nire ohitura normalean eta euskeraz eiten dogu eta beste batzukaz ez, baia hori ja bakarrik urtetan jatzu, badakizu zeinegaz zauzen eta ba honekin enoa eiten euskeraz ze... ba enoalako eiten edo ez dodalako ein inoz edo...

(...)

Baina zeren arabera aldatzen dozue hautuz?

(Z6): es que ez dozu esaten “ez dot eingo”; urtetan jatzu.

(Z10): hori da, hori da.

(Z11): eztozunelez ein inoz be ba ja dekozu ohitura hori, ba honegaz ez dot eiten euskeraz ze ba ez dot ein inoz bez eta ez gara ahalginduten bez hori ohiturea aldatuten.

(Z10): hori da.

Aipu horiek “naturalizazioaren” atzean egon ohi diren ideia nagusiak erakusten dituzte, adibidez, ohitura. Ohituren indarra guztiz zabaldua dago gizartean. Ohiturek hizkuntza praktikak agintzen omen dituzte gehienetan, eta, gainera ohiturak aldatzea ia ezinezkoa da. Oso errotuta dagoen ideia da hori.

Ohituraz gain, gaztelania “kutsakorra” dela aipatzen da sarri. Talde batean egonik, kide bat gaztelaniaz hizketan hasten bada, guztiok hasten dira gaztelaniaz, kutsatu egiten delako. Baina zergatik gertatzen da kutsatze prozesu hori? Goiko testigantzan beste ideia bat sumatzen da, gazteak “giro hori” aipatzen duenean. Finean, gaztelania kutsakorra da, baina “giro jakin” batekin bat egiten duelako: alegia, gazteen giro informalaekin.

Oro har, gazteen hizkuntza ideologiaren oinarrian ohitura edo kutsatzeko joera agertzen badira, horien atzean hiru iturri edo eragin nagusi hauteman daitezke: eskola, familia eta adinkideak.

Aurreko atalean ikusi da hizkuntza praktiken naturalizazioa azaltzeko, gazteek “ohitura” bezalako kontzeptuetara jo dutela. Dena den, elkarrizketetan askotan egin izan diote erreferentzia familiari. Bestela, eskolak eta adinkideek ere garrantzia hartzen dute beren diskurtsoetan. Jarraian, horrelako ideia batzuk azalduko dira:

Eta hor adibidez, guraso euskaldunena esan dozue baina zuek esango zenuten horrek markatzen dauela diferentzia?

(Z11): bai claro dala.

(Z10): bai bai.

(Z11): a ver gero zuk be bai, nahiz eta ez izen euskaldune zure etxea, zuk gero gure badozu ein euskeraz, hori ja norberan arabera da, ez? zu ahaleginduten bazara ba zuk gure dozuleko ikesi eta ein euskeraz ondo, ba hori ja norberan gauza da. Baia... horrek influentzia handia deko, danean dekon moduen, ez bakarrik hizkuntzan gaian; zure etxean badire hola, zu be holan izengo zara.

Beraz, zuek esaten dozuena da etxekoa dala determinantea.

(Biek baietz).

(Z11): claro, ba komodo zauezan hizkuntzara joten dozu; lehen esan dodana, ni ez noa hasten euskeraz edo erderaz ahal badot ein ni ez noa hasten ingleseaz berba eiten ze ni ez nau komodo.

(Z9): Eta gero ba lagunen artean nik igertzen doten diferentzia kuadrillan da, ba dekogunek ama eta aita euskaldunek ba egiten dogu euskeraz eta danak egiten dozkue guri euskeraz baina dekienak guraso bat euskaldune eta bestea erdaldune, euren arten dana erderaz. Eta... hori pasetan jaku gure kuadrillan, o sea, danak eiten dozkue guri euskeraz baina gero danon artean egiten dogu erderaz, orduen azkenaldien be eiten dogunek dana euskeraz gure artien, o sea, dekogunek ama-hizkuntza euskeraz, bueno ama-hizkuntza danok dekogu ze ikesiogu klase berean, baina dekogunek bi gurasoak euskaldunak, denbora guztien euskeraz baina danegaz erderaz.

(Z9): Eta gusteko jaten azpimarratzea zergatik ez dan Zornotzan euskeraz eiten gazteen artean edo umeen artean, ez dabelako aisialdiegaz lotzen. Eta hori dekot ziurtatute, ez dabe lotzen aisialdiegaz euskera.

Testigantzetan hauteman daitekeen moduan, gazteen ikuspuntutik, familiak edo etxeko giroak pisu berezia hartzen dute euskararen erabileran. Horien ustetan, etxean hitz egiten den hizkuntzak guztiz baldintzatzen du erabilera. Hau da, etxeko erabilera beste esparru batzuetara zabaltzen dela diote. Ideia horri ñabardura asko egin behar zaizkio; izan ere, ikerketa osoan (eta lau herrietan) argi ikusi da, etxean euskaraz hitz egiten duten askok kalean gaztelania erabiltzen dutela.

Bestetik, goiko testigantzetan ikusi den moduan, aisialdia sarri aipatzen da: gazteek beste gazte batzuekin igarotzen dute normalean euren aisialdia. Gustuko duten pertsonekin, beren interesekoak diren guneetan eta gazte kultura lantzen den tokietan egoten dira normalean. Baina, hori horrela izanik, badirudi aisialdia, lagunartea, kallea... ez dutela euskararekin lotzen egungo gazteek. Aurretik "giroa" aipatu da, gaztelania kutsakorra izateko arrazoi moduan. Bi ideia horiek lotuz, esan daiteke gazteek euren gustuko jarduerak, ekintzak, proiektuak... (gazte kultura deitu izan zaion hori) lantzeko euskarazko gunerik ez daukatela eta horrek ekartzen duela, besteak beste, gaztelaniaren erabilera areagotzea.

Horren ildotik, elkarrizketetan gaztetxe baten falta sumatzen dutela aipatu zuten Amorebieta-Etxanoko gazte batzuek. Haien ustetan, horrelako gune batek lagunduko luke gazteen artean ematen diren harremanak euskarara hurbiltzen.

Azkenik, eskolari dagokionez, esan behar da hainbat hizkuntza eredutako ikastetxeak daudela herrian. Elkarrizketatutako gazteek diotenez, B ereduak dauden ikasleek Amorebieta-Etxanotik Bilbora joateko ohitura gehiago daukate. Horrek, hein batean, herriko haur eta gaztetxoen arteko harremanak ez garatzea ekartzen du. Bestela, D ereduari dagokionez, zenbait eskola dauden heinean, badirudi haurrak ez direla beren artean nahasten eta lagun taldeak, oro har, ikastetxearen arabera antolatzen direla. Halere, aurretik esana dago: dirudienez, behin adin batera heltzean eta kirol talderen batean (edo bestelako eskolaz kanpoko ekintzaren batean) izena ematean, hainbat eskolatakoak nahastu egiten dira (neskak saskibaloian eta mutilak futboleak, batik bat). Aipatu digutenaren arabera, nahasketa edo elkartze horrek askotan ordura arteko kuadrillen berrantolaketa dakar. Lagun talde berri horietan ohikoa izaten da ikastetxe eta hezkuntza eredu ezberdinetan hezi direnak bat egitea.

Horri lotuta, bi ideia azpimarratu nahi ditugu. Batetik, gazteen egunerokoan kuadrillek duten pisua, eta, bestetik, lagun talde horiek osatzean ikastetxeak, hezkuntza ereduak eta adinak duten eraginaz aparte, sexu generoak duen pisua; izan ere, Amorebieta-Etxanoko kuadrilletan eta, oro har, gazteen aisialdian ematen den sexuaren araberrako segregazioa oso nabarmena iruditu zaigu. Halere, aipatu behar da joera hori ikerketan parte hartu duten gainontzeko hiru herrietan ere sumatu dugula.

Euskalgintzari buruz, ezjakintasuna nagusi

Besteak beste, Amorebieta-Etxanoko gazteei euskalgintzaz galdetu zitzaienten, baita hizkuntza politikaz eta hizkuntza plangintzaz ere. Helburua ekimen horien inguruan gazteek dituzten iritziak, ideiak, irudiak..., jasotzea zen.

Senak erakunde publikoekin loturiko zerbait direla esaten dien arren, oro har, ez dira horien helburu edo lan ildo nagusiak zehazteko gai izan. Nolabait esatearren, ideia lausoak edo nahasiak dituzte gaiaren inguruan:

Eta zer eitzen dau euskalgintzak?

(Z8): euskeraren erabilera normal erabiltzen ez den esparruetan zabaltzea, hezkuntza be bai, normalizazio plana eta holako gauzak...

(Z6): Euskalgintza? Euskara-ekintza, ezta? Apur bat eh hortik dator, ez? O sea ez dakit, holan definizino baten botateko edo... apur

bat esaten gabizena be bai gaur, ez? apur bat diagnostiko bat egitea euskeraren inguruan eta gero diagnostiko hori atarata ba apur bat planteau zeintzuk diren ahulguneak edo indarguneak, ba apur bat hortik.

(Z9): bai hainbat esparru hartzen deuz bere baitan, ez? adibidez pasa dan hilean idatzi naban Amurizan inguruko artikulu bat Zornotzako aldizkarireko eta Xabier Amuriza da euskalgintzaren eredu garbie, bera bertsolarie, abestien hainbat hitz idatzi ditu, bertsolarien errimaren liburuan sortzaile izan da... ez dakit. Ba adibidez Xabier Amuriza da euskalgintzaren eredu argietako bat.

Ikusi daitekeen bezala, erreferenteren bat aipatzeaz aparte, ideia orokorrak dituzte gaiaren inguruan. Adierazgarria iruditu zaigu haietako batek hizkuntza plangintzaz galdetzean emandako erantzuna: “oso urrun dekot terminoa”, nolabait, gaiaren inguruan zuen ezagutza mugatua onartuz.

2.2.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin “egiten” dutena

Atal honetan, bi gai nagusi landuko dira: lehenik, gazte kulturaren inguruan hitz egingo da, eta ondoren, hizkuntza erabileraren inguruan, modu labur batez.

Gazte kulturak, gazteen mundua

Atal honetan, jada txostenean zehar atera diren ideia batzuen inguruan hitz egingo da. Funtsean, gazteek beren interesak aurrera eramateko beste gazte batzuekin elkartzen dira, eta aurretik ere aipatu ditugun “gazte kultura(k)” sortzen eta garatzen dituzte; alegia, euren identitatea eraikitzeke eta adierazteke erabiltzen dituzten praktika eta estrategiak.

Dena den, nolako pisua dute gazte kultura horiek gazteen bizitzan?

Aurretik esanda dago: ikerketa prozesuan ikusi dugu hizkuntz kontuak direla eta, familia “biologikoak” gazteengan daukan eragina apaldu egin dela (funtsezkoa dela pentsatu eta esan arren). Horrek ez du esan nahi “etxeak” zeresanik ez daukanik, baina argi dago gazteen egunerokoan, bere pisua jaitsi egiten dela. Dena den, etxeko familiaren hutsunea betetze aldera, gazteek (beste gazte batzuekin batera, noski) beste “familia” batzuk sortzen dituzte. Horiek (kuadrillak, musika taldea, gaztetxeak, kirol taldeak, talde feministak, dantza taldeak...) gune garrantzitsuak dira gazteen-tzat, eta haien eragina nabarmena da.

Beste herri batzuetan ere ohikoak izan arren, badirudi Amorebieta-Etxanoko testuinguruan, lokalek edo lonjek garrantzi berezia hartu dutela. Ikerketako lehen fasean esan zigutenez, 17-20 urte bitarteko gazte guztiek lokala daukate. Hori ikusita, ikerketako bigarren fasean honelako gune batean murgiltzea erabaki genuen. Horrela, bertako bi gazteei egin zitzaizen elkarrizketa, lonjek gazte kulturaren duten pisua hobeto ulertzeko asmoz. Lokalaz galdetuta, honako hau esan ziguten:

Eta zer suposatzen dau lokal honek zuentzat?

(Z10): lagun arteko leku bat.

(Z11): claro, lagunekaz egoteko leku bet. Azkenean ez badekozu... zeezer falta jatzu, lokala... Niretzako lokala da lokala, lagunekaz

egoteko leku bet eta egunero egoten naz lagunak eta kontetan doguz gure geuzek eta igual ez bagindun eukiko lokalik ba iguel etxean geldituko ginen edo... ez dakit, eta ez ginen batuko... hau dekozu azkenan eta zauz etxean eta dinozu "bah lokalera noa ze fijo baten bat dauela eta hemen bakarrik ez egotearren ba lokalera noa". Ba lagunak egoteko leku bet eta ez dakit...

Ze lokal hau ez bazenuten eukiko, zein beste alternatiba daukezen Zornotzan alkarrekin egoteko?

(Z10): alternatibak?

(Z11): ba segun... ahal zara joan eh... edozein kirol eiten por ejemplo ahal zara joan edo tabernetara edo... horrek dire alternatibak, besterik eh...

(Z10): ja, kirola eta tabernak (barreak). Astean zehar kirola eta taberna, bakarrik hori. Oso sinpleak gara, benetan.

Eta kontatu ahal doztezue hemengo egun normal baten zein dan dinamika?

(Z11): zu etorten bazara hona egun baten, aste barruen zatoz hona eta topekozuz bost pertsona, hiru telebisinoa ikusten eta beste biek mobilekaz, hor olgetan edo...

(Z10): gero eztabaidak eta sortzen diez eta ja telebista ja segundo plano eta hasten gara ja eztabaidatzen ta-ta-ta-ta eta gero ba hori ipini Netflix eta ya esta. Oin ja eztabaida amaitu, ipini telebista eta benga...

(Z11): 23:30etatik aurrera edo 24:00atik aurrera ja pelikula.

(Z10): etorten diez arrastiz egon diezenak, afaltzen deurie eta pelikula ikusten dogu.

(Z11): edo astelehenetan juego de cartas ikusten dogu, ETB2n. (... programa nolakoa den azaltzen jarraitzen du). Hori eta El conquis hasten danean, dire...

(Z10): bua hemen conquis asko eruten da chaval.

(Z11): bagauz ikusten edozer gauza eta "benga, fuera que hay conquis".

Haiek zuzenean esaten ez duten arren, aurreko aipuak argi uzten du lokalek nahi duten pribatutasuna eskaintzen dietela. Egoteko leku bat da: hitz egin eta lagunekin eroso egoteko leku bat. Lonjak, beraz, gazteek beren gazte kultura garatzeko lekuak dira, beraiek nahi dituzten ekintza eta praktikak egiteko tokiak, inori azalpenik eman behar izan gabe, pribatutasunean.

Horrez gain, haien arteko harreman estuak lantzeko guneak ere badira. Kasu batzuetan kuadrilla desberdinak egon ohi dira lokala partekatzen. Edozein kasutan, lokalean dauden guztien artean dituzte harremanak:

Aipatu dozue kuadrilla handixe zariela, eta esango zenuduten honek laguntzen dabela... hau da, hemengo harremanak estuauek di gainontzekoak baino? Ala horretan mantentzen dozue lokalik gabekoekin be...

(Z11): a ver, ez. Horrek be influentzie deko, ez? egunero zauezan jendeagaz ba gehiau eraungo zara, jende... kanpoko... nahiz eta kuadrillako jendea izen ba ni eurekaz ez banau egunero, edo honekaz banau edo beste... hona datorren jendeakaz banau ba relazioa galtzean dozu baina asteburuetan eta eguenetan eta holan danok juntetan gara o sea que... eta hori, nahiz eta lokala euki edo ez euki, ze zuk be bai dekozu batzugin relazio gehiau beste batzuekaz baino.

(Z11): Nire kuadrilla por ejemplo urten zan frontoitik, nire kuadrilla ein zen eskupelotan ibiltzen ginenak, horrik hasi ginen kuadrilla bat eiten eta gero futboleko ibiltzen zirenakaz, horrekaz junteu ginen.

Egunero lagun talde berberarekin aritzeak komunitatea sortzen du. Horrek, aurrez esan bezala, harremanak estuagoak izatea ekartzen du, eta erraz lotu daiteke “familia” kontzeptuarekin. Askotan, gainera, talde edo komunitate horien etxeko familia baino pisu gehiago hartzen dute gazteentzat egunerokoan. Dena den, denbora gehiena beren lokalean eta bertakoekin pasa arren, beste lonja batzuetako gazteekin ere badute harremana:

Eta ezautzen dozue beste lokaletako jenti? Badaukezue harremanik eurekin?

(Z10): bai ba adibidez U. eta.

(Z11): bai bai jenteakaz dekozule. Harremana ba azkenean... ba lehen esan dogun moduen kanpoan juntetan zarenean zauz eurekaz be bai eta igual joaten zara euren lokalera, hemen egon beharrean ba joaten zara hara edo... bai bai claro dekogune relazioa. Guk eh relazioa dekogu Zornotza guztiegaz. Gure kuadrilleak...

(Z10): bai.

(Z11): batzuk batzukaz eta betse batzuk beste batzukaz baia... azkenean eroan-eroan...

(Z10): danekaz.

(Z11): danak ezetan gaitue.

(Z10): bai L., dala gure kuadrillan izena, L. eta B. (aurrez aipatu doztie bi kuadrilla ezberdin bateratu ziela gazteago zirenean).

Gehien bat beren lokalean egoten badira ere, batzuetan beste batzuen lokaletara joaten dira denbora pasatzera. Horrek lokalen arteko harremana dagoela erakusten du, eta ez soilik kuadrilla bakar baten barruko lotura; alegia, “familia” hori handiagoa dela edo izan daitekeela erakusten du.

Ikusi dugunez, Amorebieta-Etxanoko gazteriaren kasuan, lonjek pisu nabarmena dute harremanak gauzatzeko eta garatzeko orduan, baina ez da modu bakarra. Kirola ere garrantzitsua da: aurreko testigantzan ikusi bezala, pilota eremuan sortutako lagun taldea futbolekoekin nahastu zen; alegia, kirola ere bada gazte kulturaren parte, harremanetan jartzeko aukera ematen dien heinean. Kirol eremua eta lonjak aipatu ondoren, tabernei erreferentzia egin behar zaie. Elkarrizketetan jasotakoaren

arabera, orain dela gutxi arte gazteen artean zabalduko joera zen denbora gehiena lonjetan igarotzea. Azken boladan, aldiz, gazteak berriz hasi dira tabernetan sartzen. Dena den, badirudi tabernetara joatea nagusiki une zehatzei dagoela lotuta, izan larunbateko parranda, izan pintxo-potea.

Lokalak edo lonjak, kirola eta taberna, horiek dira, gazteen hitzetan, gazte gisa agertzeko eta beste gazte batzuekin harremanak izateko aisialdirako aukerak. Dena den, eszenatoki honetan nolako pisua du hizkuntzak eta hizkuntza hautuak? Garrantzitsuak dira? Baietz pentsatzen dugu, funtsean, gazteen hizkuntza jokaerek harreman zuzena dutelako euren testuinguruarekin. Ez bakarrik bizi diren hiria, herria edo auzoarekin, baita gazte modura osatzen, garatzen eta partekatzen dituzten talde edo komunitateekin ere. Horri lotuta, hau esan ziguten gazteekin izandako elkarrizketa batean:

Gaztetan esango zeunkie pisu gehixen daukena eskolaz kanpoko dire?

(Z10): bai ze harreman asko hartzeozu ba futboletik, txirrindularitza... eta hori da... lehenengo hizkera erdaldune bada, ja doie lotute.

(Z11): claro eta azkenean hortik eiten dozu be bai zure kuadrilla, ez? da bizi guztie emoten dozu horregaz pertoneagaz eta horregaz hasieratik hasi bazara erderaz ba erderaz segitan dozu eiten ba betiko.

(Z10): gero juen etxera eta igual euskeraz ein, edo klasien... baina gero klasetik eta etxetik kanpo, lagunekaz, nik ezagutu badot erderaz eiten A., ba erderaz eingo dotzet. Es que hori ipini beharko zaurien ba adibidez, entrenatzaile izateko, ba euskeraz eitea ahalegintzea bakarrik.

Pasarte horrek ideia interesgarri batzuk biltzen ditu. Hasteko, aurretik esandakoa berresten da: gazteentzat “kalean” edo, oro har, aisialdi munduan egiten dituzten harremanak oso garrantzitsuak dira. Kasu honetan, kirola eta kirol taldea (futbola, txirrindularitza) jarri dute gazte munduaren edo unibertsoaren erakusle. Bestetik, taldeak bereganatzen duen hizkuntza eta finkatzen dituen hizkuntz ohiturak nabarmentzen dituzte, haien ustez, behin hauek egonkortuta denboran zehar mantenduko baitira. Hor hautematen da gazteek sortutako talde edo “familia” horien eragina. Bertan garatutako ohiturek eragin zuzena izango dute gazte hauen euskararen erabileran, hainbat kasutan etxean jasotako hizkuntza bigarren mailan uzteraino.

Amorebieta-Etxanoko gazteen mundura hurbildu gara, une batez. Bertan, gazteek gazte bezala garatzen dituzten harremanak, taldeak eta kulturak aztertu ditugu. Baina, zer hizkuntzatan egiten dute hori guztia? Zer hizkuntza praktika nagusitzen dira Amorebieta-Etxanoko gazteen unibertsoan?

Gazteen artean, gaztelania orokortua, euskara markatua

Oro har, Amorebieta-Etxanoko gazteek aitortu dute herriko gazteek gehiago erabiltzen dutela gaztelania euskara baino. Euskararen erabilera txikiagoa da gaztelaniarenaren erabilerarekin alderatuz, eta askotan pertsona (edo talde) zehatzetara mugatzen da. Hau da, gaztelania eta gaztelaniaren erabilera orokortua da; euskara,

berriz, markatua. Erabileraren inguruan, honako hau esan zuen elkarrizketatutako batek:

Eta ja apur bat azken zatian sartzeko, euskerak ze pisu daukela esango zenduten lokal honen bizitzan?

(Z11): ba egie esan euskera askorik ez da eiten, dekozu igual kuadrillako batzuekin beti hasten dozu por ejemplo konbertsazinoa euskeraz; da segun nogaz, ba segun pertsonaren arabera, ez? ze hemen danon gurasoak ez dire euskaldunek da igual ba batzukaz dekozu ohitura gehiau euskeraz iten beste batzukaz baino. Baia generalean ez da eiten euskera asko.

Gazte horrek kontatzen duenaren arabera, bere kuadrillan euskara gutxi erabiltzen da; pertsona jakin batzuek egiten dute bakarrik. Horren arrazoiak emateko orduan, askotan entzundako esaldia erabili du: “ze hemen danon gurasoak ez dire euskaldunek”. Joera orokorra hori bada ere, aipatu behar da elkarrizketatutako beste gazte batzuek lagunekin euskara erabiltzen dutela diotela, erabilera hori mugatua bada edo oso finkatuta ez badago ere. Izan ere, askotan bi pertsonen artean ematen ari den euskarazko elkarrizketan talde handiagoaren eragina sumatzen da. Kuadrilla osoa elkarturik badago, oso zaila dirudi euskarazko elkarrizketei eustea.

Euskararen erabilera gauzatzeko, batetik, aldeko testuinguru bat behar da; eta bestetik, euskararen alde egiten duen komunitate zehatz baten beharra dago. Horren adibidea dugu Zornotzako talde feminista. Talde horrek zenbait herriko gazte biltzen ditu, eta, denon artean, euskararen alde egitea erabaki dute. Hautu politiko gisa definitzen dute erabaki hori, eta herrian egiten diren ekitaldi guztietan gauzatzen dute. Bestelako presioei eta ohiturei muzin eginez, eguneroko eta uneoro hitzunok gauzatzen dugun ekintza horri (hizkuntza hautua) dimentsio soziala ematearen alde agertu dira. Kontzientzia ariketa hori, oraingoz, salbuespena da Amorebieta-Etxanon.

2.3. ZUMAIA

2.3.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza

Zumaia Gipuzkoako ipar-mendebaldeko udalerrri bat da, Urola Kosta eskualdean eta itsasertzean kokatua.

2018. urtean, 9.770 biztanle zituen, eta gehienak herrian bertan bizi badira ere, auzo garrantzitsuak ditu: San Miguel, Oikia eta Narrondo. Azken urteetan dezente hazi da. Biztanleen gehiengoa (% 79) Gipuzkoan jaioa da. Dena den, % 7k atzerrian du jaiotekua (Espainiako Estatutik kanpo) (EUSTAT, 2018). Langabezia tasa % 9 da, Gipuzkoa osoko langabezia tasa baino baxuagoa (% 10) (EUSTAT, 2018).

Herri hizkuntzari dagokionez, Zumaia eta euskara ia sinonimoak dira. Bertako hizkuntza nagusia da, eta horri segituan antzematen zaio. Gainera, kanpotik datozen bisitariak ere hala bizi dute. Adibide batzuen bitartez azaltzen du bertan irakasle gisa aritzen den pertsona batek:

(ZU2): (...) ta gero, kanpotik etortzen diren beste irakasleek ere komentatzen dute, “eske hemen umeak euskaraz ari dira, hori beste

toki askotan ez da entzuten". Nafarrokoekin egiten dugu trukea eta: "jode, hikan ikusi dittut haurrak eta sekulako ilusioa in dit". Segun nondik datorren, eta zein begirada daukan...

Inguruan ditu Zestoa, Getaria, Itziar eta Deba (herri euskaldunak denak).

Herri bizia da, itsasoarekin harremanetan eta mendiaren aldamenean, bizitza propioa duena. Arrantzari lotutako sinbologia dago herrian. Herriko jaiak Santelmoak dira, eta marinelez janzten dira. Hala ere, ez da batere herri arrantzalea gaur egun.

Bizi kalitate handiko herria da. Eta elkarrizketatu gehienak oso gustura bizi dira bertan, euren etorkizuna han ikusten edo ikusi nahiko dutelarik.

Ekonomikoki ondo posizionatuta dago. Industriaguneak dauzka (Oikia bidean), baita zerbitzuak ere. Prekarietatea ere egongo da (hori ere aitortzen dute bertakoek), baina ongizatearen proiektzioa egiten da azken urteetan (apain janztea, betaurreko beltzak, paseatu, "Martini" eta aperitiboa, eguzkia...). Herri aberatsa da, baina mota guztietako familiak daude.

Herriko erdigunea alde zaharraren ingurua da (ibaiaren alde batera), eta ibaiaren beste aldean, poligonoa dago (garai batean, Zumaiako familia garrantzitsuak bizi ziren bertan, eta gerora immigrazioarekin Extremaduratik, Castilla Leonetik... etortzen hasi ziren; horregatik, poligonoari Extremadura ere deitu izan zaio): 30 poligonoa, Basabi poligonoa eta Alai poligonoa (Espainiatik etorritako familien etxeak daude, nagusiki). "Herrira goaz" esatean, ibaiaren beste aldera pasatzeari egiten zaio erreferentzia.

Herri kanpoaldean lantoki asko daude, eta horrek herrian bertan lanpostuak daudela esan nahi du. Oro har, Zumaian lau gune nabarmen bereizten dira: (1) Santiago hondartza, kirol portua, astilleroak; (2) industria gunea; (3) atzealdeko auzune edo auzo erresidentzialak eta (4) zentroa edo alde zahar ingurua.

Ontziola dago, Euskal Herriko itsasontzirik handienak egiten dira. Herrian nahikoa indar du, bertako askok egiten dute lan hor; eta itsasontzi baten botadura dagoeanean, herria mobilizatu egiten da (kaia betea).

Komertzioak erdigunean du presentzia gehien; bertan, erakusleihu gehiago ikusten dira erresidentzia auzoetan baino.

Adinekoak paseatzeko tokiak daude. Oinezkoentzako toki asko du. Ibiltzeko kilometro pila, eta naturarekin harreman zuzena: bi hondartza, ibaiaren ibilbidea, Oikia alderantz padurak, mendia... guztia gertu.

Kirol praktikei dagokienez, oso herri aktiboa da: lurreko kirol asko daude (futbola, eskubaloia, boxeo, triatloia, atletismoa...), baita ibaikoak/itsasokoak ere (arrauna, surfa, piragua, arrantza...). Herri lasterketak ere antolatzen dira. Arraunarekin jendea beste herrietara ere mugitzen da, Zumaia animatzera.

Txipironerak daude; jendea joaten da txipiroietara (kofradia dago). Neguan angulak harrapatzen ere bai, afizio bezala. Profesionalki ez da inor horretan ibiltzen.

Kulturalki ere Zumaiak mugimendua dauka: musika, antzerkia... Herritarrek kultur ekitaldiak kontsumitzen dituzte, baina gehiago kostatzen da horren inguruan proposamenak sortzea edo gauzatzea.

Etorkinak bizi dira herrian. Lehenengoak Afrikatik hasi ziren etortzen, eta duela 5-10 urte hegoamerikarrak iritsi ziren. Musulmanak gero eta gehiago dira.

Eskola publikoa (ikastola zena eskola publiko bilakatu zen) eta itunpekoa (Zumaiena) daude (azkenengo hau lehen erlijioso zen, baina orain kristau eskolatik ateratzeko prozesuan daude). Bietan batxilergo arteko eskaintza dago (itunpekoan duela hiru urtetik), baina ez dago lanbide heziketako eskaintzarik (soilik administrazioa). Ondorioz, bertakoak Elgoibarrera edo Zarautzera joaten dira mekanizatua ikastea; unibertsitateen kasuan, hiru hiriburutara.

DBH egitera Zumaira etortzen dira Oikiako, Arroako (Zestoako auzoa) eta Aizarnako ikasleak. Herri txikietako jendea da; beste izaera bat; harremanak izateko modu desberdinak, aurreiritzi gutxiagorekin...

Santelmoak ospakizun garrantzitsua dira bertakoentzat. Pazko astea eta hurrengo astelehena. Bi asteburutan. Azken urteetan, Sanpedroak ahultzen joan dira (berez zaindariaren jaiak dira horiek, ekainaren 29an), eta Santelmoak, indartzen. Txosnak Santelmotan bakarrik egoten dira.

Baina horietaz aparte, badira festa egun gehiago: gala eguna (elegante jantzekoa; gaztetxoei zuzendua), euskal jaiak (abuztuan; baserritarrez jantzita, azoka, sagardo postuak...), kuadrilla eguna ("bizipotea" normalean parranda izaten ez den tabernetan, bazkari herrikoa, jolasak, kontzertua; gaur egun Udalak antolatua) ...

Irailean, Olagarro eguna egiten da (herriko elkarten postuak pintxoekin eta brotxekin, kalejira, herri bazkaria, kuadrillen arteko batel txapelketa...). Lehen, familia batzuk olagarrotara dedikatzen ziren (olagarroa lehortu olagarro zopa egiteko...), eta ohitura handia zegoen. Horren seinale da Zumaiako eskubaloi taldearen izena: pulpo.

Festa horietan herritar guztiek parte hartzen dute (bakoitzak bere ordutegiarekin; DBHkoak kalean goxokiekin eta erromerian edo DJan; Batxilergokoak, parrandari begira arratsaldeko poteoan). Ume txikientzako eta helduentzako ekintzak egoten dira nagusiki; nerabeak zintzilik gelditzen dira.

San Jose auzokoak ez daude integratuta herrian. Gehienez ere, haurrak eta nerabeak leudeke eskolan daudelako, edo amak, umea eskolara eramaten dutelako eta bertan jendea ezagutzeko aukera dutelako. Elkarteetan eta ekimen sozialetan ez daude presente gizarteak zanpatzen dituen kolektiboak: etorkinak, zaintzaileak, ekonomikoki gaitasun gutxien dutenak...

Honaino egungo Zumaia, haren argazkiaren trazu batzuk.

Baina bertakoek azkenengo urteotan izandako aldaketak ere nabarmendu dituzte. Zumaia —diote— hazi egin da, etxebizitza berriak egin dira. Gero eta turista gehiago dago; tabernetan sumatzen da. Turistifikazio hori film batzuen grabaketarekin lotzen da ("8 apellidos vascos", "Juego de tronos"...). Kanpina, hotela... ireki dituzte. Turismoaren eraginez edo, bizitza garestitu egin da (urte guztirako

etxeen alokairua desagertu da; orain, oporretarako apartamentuak bilakatu dira), eta nortasuna aldatu zaio (herrigintza egiteko edo herriarentzako lan egiteko modua aldatu da; turismoa bihurtu da lehentasun). Duela urte batzuetako Zumaia Zarautzekiko desberdina bazen ere, gaur egun bi herriak antzekoak dira, funtzionamendu aldetik. Halere, Zumaian, neguaren eta udararen artean oreka gehiago dago (Zarautzen udako bizimodua erabat aldatzen da, biztanle kopurua, adibidez, hirukoizten baita).

Era berean, azken urteetan, ibaiaren beste aldean eraiki dira eskola publikoa, ambulatorio berria, kiroldegia, supermerkatuak, etxe berriak... Ondorioz, orain ingurune horrek badu bizitza (ia herriak baino gehiago). Poligonoan mugimendu gehiago sumatzen da, eta hori positiboki baloratzen da. Hala eta guztiz ere, esan behar da gazteek jada ez dutela ezagutzen garai bateko herri-poligono lehia hori. Izan ere, azken urteotan herrikoak ere poligonora bizitzera joaten hasi dira (arrazoizko alokairuak). Gaur egun, San Jose aldean elkartzen da kanpotik datorren jendea (alokairu merkeagoa, auzoan baldintza kaskarrak... ghetifikatzen ari dela diote elkarrizketatutako batzuek).

Lehen, herri mugimendua nahikoa aktibo zegoen (gazteena zein zaharrena), baina gaur egun oso jaitsita dago. Udalak bultzatutako parte hartze saioretara ere, gehienbat betiko lagunak hurbiltzen dira (asko zerbitzu publikoetan lan egiten dutenak). Halere, kirol probak antolatzeke boluntarioak erraz aurkitzen dira herrian. Ondorioz, interesen arabera funtzionatzen du bakoitzak, gauza batzuetarako oso parte hartzailea da, eta beste batzuetarako, ez.

Arretan gazteengan jarrita esan behar da 15-24 urte bitarteko gazteak Zumaiako biztanleria osoaren % 9 direla (EUSTAT, 2018).

Gazteak gizartearen isla dira: indibidualistagoak. Harremanak izateko moduak aldatu dira teknologia berriei esker. Gainera, elkarrizketatutako batzuen ustez, teknologia berriekin jasotzen dituzten irudiak eta mezuak oso sexistak dira. Hizkera sexista dabilte askotan, eta haien arteko harreman afektiboetan, kontsumismoari eskua emanda, pornografia ere sartu da.

Mugikorrari lotuta bizi dira. Instagram erabiltzen dute; Whatsapp, mezuetarako, eta Youtube, bideoak kontsumitzeko.

Askotariko gazteak daude; aniztasuna da ezaugarria. Oro har, ez dira gatazkatsuak (protesta egiten dute, baina ez da indarkeria bihurtzen).

Astean zehar, arratsaldean, kirolak du pisua. Asteburuetan ere kirolak garrantzia du, partidak izaten baitira; eta gero kalean egon, goxokiak erosi, bankuan eseri, hitz egin, Zarautz edo Urbil merkatal zentrora joan... 20 urteko gazteek antzeko plana egiten dute, baina trago batekin.

Poligonoan bizi den gaztea astean zehar herrira joan gabe bizi daiteke, neguan behintzat (ikasketak, kiroldegia eta eskolaz kanpoko ekintzak egiteko modua dago). Asteburutan "herrira" joaten dira, tabernetara, eta udaran egunero bertaratzen dira bizikleta hartuta (Poligonoan ez da ezer egiten udan).

Gazteen artean zenbait “tribu” topatu daitezkeela diote Zumaiko gazteek. Horiek etiketak dira, eta askotan aurreiritziak baino ez daude oinarrian, horregatik kontu handiz hartu behar dira. Jakin badakigu orokortzeko joera handia dagoela horrelakoetan. Halere, tribu horien inguruan egin diren deskribapenak jasotzea erabaki dugu, gazteen diskurtsoetan zein iruditegian pisua dutelako, eta, ondorioz, eragin bat dutelako gazteen errealitatea ulertzeko eta deskribatzeko garaian.

Zumaiako pijoak: “pijo” janzten dira, arau sozialak gehiago betetzen dituzte, oso ondo jantzita doaz, markarekin...

Surferitoak: gehienak mutilak dira. Pijoen taldean sar daitezke, parrandetan toki berean mugitzen baitira.

BRK-koak “skinetilloak” dira, “Zumaiako hooliganak”. Festibal bat egiten da urtero, eta horren harira elkartu ziren. Borrokan ibiltzen omen dira; “mobida” guztietan daude sartuta. Denak beltzez jantzita. Euskaraz aritzen dira, bai edo bai. Gehienbat mutilak.

Poligonoko hooliganak espresio honekin definitzen dituzte: “menos futbol, más carreras”. *Poligoneroak* lokal batean daude. Erdaldunak dira. Techno musika gustatzen zaie, drogetan sartuta (edo probatu dute), kotxeekiko zaletasuna... Mutilak.

Borrokillak: “rollo gaztetxe”.

Lehen bazeuden makarrak edo punkiak, krestarekin. Eskorbuto... Kuadrilla osoak. Orain, kuadrillaren batean ikus daiteke baten bat, baina “el bicho raro” izango da.

Txoni eta *kani* kuadrillak daude. 3-4 urtean behin beti sortzen da kuadrillatxo bat. Inditex Moda, hausnarketa kritikorik ez dute egiten. Mutilek ere estetika zaintzen dute: ondo jantzita, bere pitilloekin, ile motz eta tupearekin. Zumaian gutxi dira, oro har.

Eta tribuen banaketarekin batera, gazteak zenbait ardatzen arabera kokatzeko joera agertzen da. Batetik, ikasketetan, jarduera sozialean... eroso mantentzen dena gaur egungo parametroetan vs. eskasago dabilena akademikoki, sozialki, ekonomikoki... Bestetik, kontzientzia euskaltzale edo abertzalearekin konektatzen dutenak, profil sozial kritikoa dutenak (hizkuntza zapalkuntzako eta feminismoko kontzeptuak ulertzen dituzte, nazio-estatu gatazkak...). Gurasoek izan dute eragina haiengan; izan ere, gurasoak militantzian ibilitakoak dira, edo euskara irakasle izan dira, edo herri-gintzan zenbait ekimen antolatzen... Gutxiengo bat dira.

Oro har, kuadrillak ez dira mistoak. Neskak eta mutilak erabat bereizita daude. DBH3-4n banatzen hasten dira heterosexualitatea tarteko (beste sexu generoko norbait baldin badago taldean, “*la maricona*” edo “*la matxorra*” izango da). Batxilergoan, zertxobait lausotzen dira harreman horiek.

Belaunaldiaren eta gelen arabera, ikastetxe ezberdinetako gazteak ere nahasten dira kuadrillak osatzeko. Nagusiki, kirolean elkartzen dira (futbolean, piraguan...). 18-20 urteko gazteei mugitzeko kirola egiten zaie erakargarri, baina, batez ere, mutilek jarraitzen dute (neskek ez).

Adin berekoen kuadrillak osatzen dituzte.

Testuinguru horren parte da hizkuntza, euskara. Horren inguruko bizipenak, diskurtsoak eta ikuspegiak jasotzen saiatu gara. Jarraian hainbat datu (kuantitatibo zein kualitatibo) emango ditugu.

Zumaian euskaldunen kopurua % 74 da, ia euskaldunak % 11 dira, eta erdaldunak, % 16 (EUSTAT, 2016).

Biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 55) euskara du lehen hizkuntza, % 34k gaztelania, % 8k euskara eta gaztelania, eta % 3k beste hizkuntza bat.

Euskararen kale erabilera % 58koa da (2016).

Etxe giroan % 45ek nagusiki euskaraz hitz egiten du, eta % 36k, nagusiki gaztelaniaz. Etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak % 16 dira. Eta, etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat hitz egiten dutenak, berriz, % 3 (EUSTAT, 2016). Herri nahiko euskalduna da. Euskara asko entzuten da, kalean eta herriko hainbat gunetan.

Adinekoek gaztelania asko erabiltzen dute (Francoren garaiko hizkuntza debekua tar-teko, ez dira euskaraz alfabetatuak izan eta gaztelaniaz egiteko joera handia dute). Gazteen kasuan, gaztelaniarako gero eta joera handiagoa dago. Haien euskara ez omen da “hain garbia”, “erdarakadak” ere sartzen dituzte.

Poligonoa gaztelaniarekin lotzen da, 60-70 hamarkadetan Espainiatik etorritakoen-gatik, baina gaur egun euskara ere entzuten da, horien ilobak euskaraz egiten hasi baitira. Euskara eta gaztelania nahastuta erabiltzen dituzte.

Komertzioetan, bezero gehienak euskaraz aritzen dira.

Zumaiko euskalkia galtzen ari da.

Inguruko herriak ere euskaldunak dira, eta horrek erabilera bultzatzen edo mantentzen laguntzen du: Getaria, Zestoa, Zarautz, Usurbil, Azpeitia, Azkoitia...

Elkarrizketa elebidun gutxi egiten dira.

Hikaren erabilera garai batean oso handia zen; gaur egun, asko erabiltzen da, baina askotan, gaizki. Gero ikusiko dugun moduan, neska gazteen arteko noka galdu egin da. Ez dute erabiltzen nesken artean, erabiltzekotan toka egiten dute. Zuka eskolako formalitate gisa ulertzen dute gazteek; lagunarteko hizkera hika da. Horregatik, haurren bat Zumaira etorri gero, mutila bada normalean toka ikasiko du, eta neska bada, zuka.

Euskararen aldeko ekimenak egiten dira: Saltaka (bi urtean behin, herri mailako “Korrika”), Euskarari buruzko astea (abendua 3aren inguruan)...

Hizkuntzari dagokionez, egoera aldatu izanaren pertzepzioa dago. Orain dela 70 bat urte Zumaia erabat euskalduna izango zela pentsatzen dute askok.

Poligonoaren sorrerak (etorkinen auzunea) Zumaian aldaketa ekarri zuen hizkuntzari dagokionez. Dikotomiak sortu ziren: poligonoa vs herria > gaztelania vs euskara.

Ikastola eta eskola batu zirenean, familia euskaldunetako eta erdaldunetako seme-alabak elkartzean ere aldaketa soziolinguistikoa gertatu zen gazteengan. Euskaraz egitea “naturalizatu” dute, eta hizkuntza bat edo bestea erabiltzearen atzean zer da goen ez dakite (hizkuntzarekin lotutako kontzientzia ahula dute).

Hizkuntza paisaian garrantzia du euskarak; hizkuntzarekiko prestigioa edo harrotasuna sumatzen da. Hizkuntza pasaia euskarara aldatzeko lanketa handia egin da. Etorkinek berebiziko esfortzua egin dute zentzu horretan: Zumaian “harategi marrokiarra” dago. Integratzeko bide bat dela ikusten dute. Halere, elkarrizketetan aipatu izan da oraindik ere hizkuntza paisaia hobetzeko bidea egiteko dagoela. Interresgarria litzateke aztertzea nola erabiltzen duten hizkuntza herriko komertzioek sare sozialetan.

Gaztetxea eta eskola (hezkuntza eremua, oro har) euskararekin lotzen dira erabat.

Txinparta Euskara taldea sortu zen herri mailako azterketak egiteko: zenbat erabiltzen zen, zer adinetakoak... eta kanpainak egin zituzten. Urte batzuk iraun zituen, eta gero gainbehera izan zuen. Euskararen aholku batzordea dauka udalak. Eskolako ordezkariak, hainbat elkartetakoak, “Baleike” aldizkaria, AEK... elkartzen dira bertan. Udalak eskuartean dituen proiektuen eta ekimenen berri ematen du, eta, aldi berean, elkarrekin edo eragileek kontuak eskatzen dizkiote udalari.

“Euskaraldia” ere aipatu izan da zenbait elkarrizketatan. Asko kostatu zitzaizkien ekimenaren muina ulertzea. Ez zituzten ulertzen “ahobizi” eta “belarriprest” rola, herritarrek egunero egiten baitute euskaraz. Parte hartze handia egon zen, baina zailtasun dago zenbateraino eragina izan duen, behin 11 egunak igaro ostean. Ekimena bultzatzeko taldea sortu zen, eta herritarrak aktibatu zituen, oso aktibo ez zebilen jendeak parte hartu baitzuen taldean. Talde horri esker lortu zen parte hartze altua.

Euskaraldiarekiko jarrera kritikoak hauteman dira: erakundeek eta herrigintzako taldeen arteko elkarlana oso ondo egon da, baina: “oso desproporzionatua izan da historian zehar euskalgintzako erakundeek izan duten baliabide falta eta bat-batean Euskaraldiarekin ireki den iturria”.

Euskaraldiaren eraginez ez da Euskararen Aholku Batzordea bildu, eta kezka dago Euskaraldiaren dinamikak ez ote duen desagerrarazi ustez dinamikoagoa eta sendoagoa zen egitura hori.

Eta herriko gazteak, euskararekin zer?

Gazteen % 92 euskaldunak dira; % 2, ia euskaldunak; eta, % 6, erdaldunak. Gazteen artean euskararen kale erabilera % 80 da (2016).

2017-2018 ikasturtean, 2.055 ikasle matrikulatu ziren Zumaia ikastetxeetan. 2.023 ikaslek D ereduan ikasi zuten. A ereduan 32 ikasle besterik ez, eta ikasle horiek Behe Mailako Lanbide Heziketakoak dira (EUSTAT).

Gazteen parte da euskara. Ama hizkuntzat dute gehienek, edo haien harreman sarea euskalduna da. Halere, gazteek beraiek aitortua, erdarakada pila bat erabiltzen dituzte.

Gazteak, oro har, ahaldundu gabeko euskaldunak dira: familiarik edo eskolatik jaso dute euskara, baina ez dute kontzientziarik. Ez dute hizkuntzaren botere harremanen kontzientziarik, eta ez dakite zer posizio dute horren baitan. Nolabait esatearren, beren guneetan naturala den hori egiten dute, besterik gabe: Zumaian dena euskaraz; Eibarrera futboleko jolastera joatean, han gaztelaniaz aritzen badira, gaztelaniaz egingo dute, bi aldiz pentsatu gabe zer egitera doazen eta zer suposatzen duen horrek.

Euskara naturalki jaso dute, eta ez dute ikuspegi kritikoa. Duela 30 urte euskara transgresorea zen, eta gaur egun gure parte da. Euskara naturala da, eta ematen du alde ideologikoa galdu duela. Badirudi, euskara komunikatzeko tresna baino ez dela.

Euskara gutxien erabiltzen dute eskolatu ez diren etorkinek, eta *txoniek* eta *kaniak*. Lehenengoen ez dute eskolan jaso, eta neurri batean baztertuta geratu dira, ez baitute harremanak sortzeko aukerarik izan. Bigarrenek, berriz, heziketa guztia euskaraz jaso badute ere, haien ikuspegietan eta roletan euskara ez da ondo gelditzen.

Maila ekonomikoak, gazteei dagokienez, ez du eragiten euskararen erabileran. Hau da behintzat diskurtsoa: gazteak ez omen dira ohartzen klase bereizketaz.

Mutil gazteek asko erabiltzen dute hitanoa; neska gazteek, ordea, ez (helduen artean gehiago). Mutilak batzuetan neskei hika egiten diete, "guaiena egiteagatik", baina gaizki erabiltzen dute (mutilak tokarekin zuzentzen dira neskengana).

Azken urteetan, hitanoaren lanketa egiten ari dira. Herrian proiektuak ikusgarritasuna badu, baina eskolatan ari dira lanketa egiten. Mutil gazteek zuka egitea eskolako tresnatzat dute. Goian esan den moduan, mutil gazteek neskei, oro har, zuka egiten diete, edo bestela toka. Mutilen artean toka, nesken artean zuka. Neska gazte batzuk saiatzen dira noka erabiltzen, baina ez dute denbora asko irauten; halere, askok diote gustatuko litzaiekeela hika ondo erabiltzen jakitea.

Aitona-amonek hitanoa norabide guztietan eta ondo erabiltzen zuten. Ondoren, helduetara pasatzean, nolabaiteko galbidea gertatu da, emakumeetara oso murriztua iritsi baitzen (gizonezkoek bai, toka hitz egiten zuten beren artean). Egungo gazteek ikusi dutenari (helduen jokaerari) jarraitzen diote. Genero ikuspegiarekin erabateko harremana du kontu horrek.

"Zer da zuretzat euskara?" galdetzean, Zumaiako gazte askoren erantzuna horrelako bat izan daiteke: komodo sentitzen naizen hizkuntza bat, nirea bezala sentitzen dudana, euskaldunekin lotzen nauena, borrokatu behar den altxorra, herrian integrazteko hizkuntza, gure hizkuntza, herri hizkuntza...

Zumaian euskara ez da bakarrik lotzen eskolarekin, beste esparru askotan ere euskara presente dagoelako (kalean, lagunartean edo kirolean esaten baterako). Pentsatzen dute, oro har, gazte guztiek dakitela, nahiz eta gero erabilera ez egon hain zabalduta. Kasu honetan, gaztelania lotzen da gurasoak kanpokoak dituzten jendearekin, euskaraz etxean egiten ez duen jendearekin.

Batua bai, eskolarekin eta autoritatearekin lotzen da, eta mesfidantza sortzen du batzuegan. Beste batzuen ustez, ikastetxeetan gazteek gaztelania erabiltzea errebeldiaren ikurra bilakatu da. Transgresioa gaztelaniaren bidez dator orain.

Gazteen erreferenteak espainiarrak ere badira, komunikabide espainiarrak kontsumitzen baitira. Lehen, Euskal Herria zen markoa, eta orain Espainia ere bada, eta mundu osoa. Erreferentziak edozein tokitatik heldu daitezke Zumaiaraino. Markoa asko handitu da.

Honaino herria eta herriko hizkuntza egoeraren gaineko deskribapen orokorra. Jarraian, jasotako datuen analisisan murgilduko gara, eta hasteko, gazteen hizkuntza ideologian sakonduko dugu.

Zumaiako gazteek zer diote euskarari buruz? Zer irudi, balio, ideia... dauzkate hizkuntzari, hizkuntza politikari edo hizkuntza plangintzari buruz? Eta euskalgintzari buruz? Zer pentsatzen dute Euskaraldiaren inguruan?

2.3.2. Gazteen hizkuntza ideologia: euskararen gaineko ideiak

Ez-herria: Korea edo poligonoa

Zumaia, aurretik aipatu dugun moduan, bitan banatuta dagoela dirudi: herria eta poligonoa. Herria hirigune historikoa da, Zumaiaren erdigunea bertan sortu zelarik. Bestetik, poligonoa dugu, XX. mendeko erdialdetik aurrera Espainiatik etorritako etorkinentzako etxebizitzaren multzoa. Bizi hobe baten bila eta prekarietatetik ihesi beren herriak utzitako dozenaka familietako historiaren Zumaiako auzunea. Ez gara gehiegi sartuko gai honetan, irakurketa konplexua duelako eta beste ikerketa bat eskatzen duelako, baina mugari bat da Zumaiako euskararen historian.

Zubitxo batek batzen ditu bi aldeak, eta eraikinen arkitekturak, bereizten. Oso bisuala da aldaketa. Bizimodu ohiturei dagokienez ere, bizitza propioa zuten bi eremu ziren. Poligonokoak hurbiltzen ziren, eta hurbiltzen dira erdigunera, baina ez zen oso arrunta alde zaharrekoak Poligonora gerturatzea.

Alde zaharra "herria" zen, herria. Bereizketa horrekin, "bestea" ez zen herria kontsideratzen. Periferia zen, izenak berak ere ematen dio bigarren mailako zerbaiten irudia: poligonoa. Ez da auzoa, baizik eta poligonoa, herrien kanpoaldean kokatzen diren enpresa guneei deitzeko erabiltzen den kontzeptua.

(ZU1): Poligonokoak herria gure aisialdi espazio bezala erabiltzen genuen bezala, herrikoak poligonoa? Bueno, bueno, bueno. Nola zapalduko dugu hori? Akordatzen naiz bizitzera joan ginanean, hiru lagun joan ginan, bi ginan poligonokok eta bestea herrikoa, ta pisuak bilatzen ta merkeena bilatu genuen poligonon, jode, herrikoantzako mina. Nola joango naiz poligonora bizitzea?

Ez zen herri izatera iristen sozialki, eta gutxiespeneko hainbat sinonimo erabiltzen ziren: Korea, *mantxurriano*, *belarrimotx* eta abarren tokia. Erdaldunen eremuarekin identifikatzen zen, eta bertan gaztelania omen zen hizkuntza.

Pixkanaka, bereizketa hori desagertuz joan da, eta herrian barneratzea lortu du, nahiz eta oraindik ere karga hori baduen. Bertan euskara entzutea ez da harrizkoa,

eta badirudi transmisioa edo eragina behetik gora egiten dela, bilobetatik aitona-amonetara:

“Egia da, orain ari garela bizitzen, etorri zian hoiren bilobak jaiotzen hasi dianen, hasi dia erabiltzen euskara haiekin. Igual inoiz esperoko ez zenun jendea euskaraz hitz eiten entzuten dezu” (ZUI).

Haurren lehen hizkuntza euskara izateak eragina du, baina auzunearen aldaketa nabarmena ez da etorri alde horretatik, baizik eta hirigintza eta herri antolamendutik. Orain ez da periferia, erdigunearekin bat egiten duen espazio bat da, herri izatea lortu duena. Azken urteotan aldaketa sakonak bizi izan ditu: eskola publikoa bertan eraiki da, anbulatorioa bertan ireki da, kiroldegia hor dago, supermerkatuak hor daude... Horrekin batera, etxebizitza berriak ere bertan eraiki dira, eta Zumaiaiko gazte askok hura dute bizitoki. Duela urte batzuetako poligono/herri bereizketa hori ez dute ezagutzen gaur egungo gazteek.

Aldaketa guzti horiekin batera, zerbitzu publikoak eta merkataritza bertara mugitzearekin batera, bizitza gehiago duen eremua izateaz gain, hizkuntza aldaketa ekarri du bertara, edo behintzat euskarak presentzia gehiago izatea. Eskolatik ateratakoan haurrak euskaraz mintzo dira, parkeetan euskara entzutea ohikoa da, bikote gazteak erakarri dituelako, zonalde euskaldunagoetatik herritarrak bertara mugitzen direlako, zerbitzuak han daudelako... Hirigintza eta herri antolamendutik hizkuntzan eragin da, eta euskara gehiago entzuten den auzunea eratu da. Hori gako bat izan bada ere, ezin da azpimarratu gabe utzi, duela hamarkada batzuetako etorkin haien ondorengoek euskara badakitela, bikote euskaldunekin elkartu direla hainbat, haurrei euskaraz egin diela, eta ondorioz, askok euskara dutela eguneroko hizkuntza.

Gu/besteak, herria/poligonoa, kastellanoak/euskaldunak... dikotomiak lausotu egin direla dirudi, eta herri izaera indartu. Jada ez da bereizketa hori sumatzen herrian, eta belaunaldi berriek beste modu batean bizi dute guztia.

Deigarri egin zaigu, hala ere, bestelako fenomeno bat sortzen ari dela, berriro ere historia errepikatzen ari dela: periferia sortzen ari da, azken urteotako etorkinen auzuneetan. Afrikako eta Hego Amerikako herritarrak etorri dira, eta horrek errealitate berri baten aurrean jarri gaitu. Ez da poligonoa, baina herriko zonalde degradatuenak dira: aldapa handiak, etxebizitza zaharrak, zerbitzu gutxiko eremuak... (San Jose eremua, Gautxori, Egurko, estazioa...).

Ghettoak sortu dira, edo ghettoak sortzera behartzen da, zenbateraino ixten diren edo zer aukera dituzten harremanetarako. Kultur aniztasunaren kudeaketa edo elkarbizitzaren gaia mahai gainean dago. Hori beste gai potolo eta interesgarri bat da, Zumaiaiko agendan jartzea komeniko litzatekeena, baina gure ikerketa honetatik ezin duguna gehiago sakondu. Historia errepikatzen ari dela dirudi, nahiz eta testuingurua, aktoreak eta errealitateak bestakoak izan. Lanketa polita izan daiteke euskalgintza eta Udalarentzat.

Naturalizazioa: hala tokatzearen suertea

Zumaian paseatzen ibiltzea “herri kirola” da, eta herriaren barnealdetik ibiltzean, bada zerbait deigarria hizkuntzaren ikuspegitik: hizkuntza paisaia euskaraz dago. Surf dendaren kanpoan “gozatu Zumaiaz modu aktiboan” leloa topatu dugu. Herri

barreneko kale kantoian “Bazar txinatarra. Bazar chino”. Paseoan jarraitu, eta euskararen presentzia nabarmena da erakusleihatuan, baita auzo “erdaldunaren” fama izan duen Poligonoan ere: “Hiru ezkur. Extremadurako produktuak”. Edozein herritar edo bisitarik euskararen presentzia hori nabaritu du, eta euskara balioa edo garrantzia duen zerbaitekin lotu: bertako hizkuntza. Ez da kasualitatea izango ziurrenik, esku hartzea egon da agian, erakunde edo elkarteetatik hizkuntzan eragin daitekeela agerian uzten duena.

“Naturala” dirudiena eraikia izaten baita. Konturatu gara Zumaian naturalizazioaren ideia horrek pisu handia duela, hizkuntza modu “naturalean” jaso izanaren ideia:

(ZU11): Esaten genun, gu hemen jaio gea ta euskara etorri in zaigu, hori egia da, ta gero bakoitzak in du euskaragatik edo euskarantzat berak ikusi duna, baino egia da jaso deula inkoszientemente. (...). Nola hain barneratuta daukaun euskara, ba naturalizatuta bezala. Gero egia da, uste deula euskara dakiula ikasi deulako, baina egia da jaso degula nahi gabe.

Destinoa balitz bezala, “suerte” moduan ere deskribatu digute, “halabeharrezko” zerbait balitz bezala. “Karreran, jendea euskaraz matrikulatu, eta erdera asko entzuten da. Pixkat txokau in dit. Baina ulertu egin behar da, ez dute gure suerte berdina” (ZU12). Euskara “naturala” da Zumaian beren bizipenetan; azken finean, haiek jaio zirenetik hori sentitu edo bizitu dutelako. Kontuan izan behar dugu XX. mendeko azken urteetan eta XXI. mendeko lehen urteetan jaioak direla, eta horrek esan nahi du frankismoa oso historiakotzat dutela, eta 80. hamarkadan gertaturiko hainbat aldaketa ez dituztela bizi. Euskarazko telebista arrunta zaie, tokiko euskarazko “Ba-leike” komunikabidea dago, medikuak euskaraz artatzea ez da harrizkoa, eskolako ibilbide osoa euskaraz egiten dute, kirol entrenatzailearekin euskaraz mintzo dira.

Euskara jasotako zerbait gisa bizi dute, Zumaiako parte den zerbait “naturala” balitz bezala. Egia da, zenbait kasutan, euskararen inguruko emozio sakonak eta indartsuak dituztela. “Ni” horren eraikuntzan garrantzi handia du, baina euskararen us-tezko normalizazio horretatik, euskararen errealitate distortsionatua edo akritikoa ere sortzen da, hizkuntzen egoerak “naturalak” izango balira bezala; eta hizkuntza guztiak parean jartzearen kontu hori, denak berdin tratatuak izango balira bezala: “neretzat hizkuntza guztiak berdinak dira, nei ez dit inporta euskaraz hitz eitea, erderaz edo ingelesez” (ZU9).

Azken hamarkadetako euskararen egoera hobetzeak eta gaztelaniarekin batera EAEn hizkuntza ofiziala izateak gazteek euskararen inguruko ideologia apalagoa izatea ekarri du. Ondorioz, euskaraz hitz egiten duten gazteak dira askotan, emozio indartsuak dituztenak baina ideologia sakona eta landua ez dutenak euskararen inguruan. Eta horrek sortzen du ere euskalgintzaren beharra ez egotea:

(ZU11): (...) jendeak beharra ere ez du ikusten agian. „zer egin behar degu orain?“. Entitateekin ere gertatzen zan, hasi ginanen partehartzea eskatuz. “guk euskaraz iten deu”, ez dago lan hori egin beharrik. “Euskaraz bizi gara eta ez dugu ikusten beharrik”. “Barditugu arazo batzuk inportantegok dianak”. “Euskara ondo dago ez izan pesoak”. Ez dago lehengo egoera hori, errepresioarena.

Dena ondo dago. Euskara ez da gai garrantzitsua. “Naturala”. Suerte.

Gazteak euskaldunak dira, familiarik (batzuk) eta eskolatik euskara jaso dutelako. Euskara maite dute, beren hizkuntza bezala dute, baina ez dute sentitzen beste hizkuntzekiko botere harremanik dagoenik, eta ez-ahalduntze horrek babesgabetasun egoera batean uzten du hiztun gaztea. Ez du euskararen inguruko kontzientziarik, haren historia ez du barneraturik, eta ez da jabetzen zapalkuntza momentuz. Horrek hainbat jarrera automatizatzea esan nahi du: hara joan eta euskaraz ez dakitenez, gaztelaniaz arituko naiz.

Euskararen iruditegiaren eragina

Zumaia euskararekin lotzen dute, eta gehienek euskara erabiltzen dute herrian. Bertako hizkuntza da. Euskal hiztunak badira ere, kasu batzuetan gaztelania erabiltzeko joera dago sare sozialetan, edota ingelesa. Azken finean, sare sozialetako sarea zabaldu daiteke, eta badakite horko errealitatea eta Zumaiakoa ez direla berberak.

Gazte zumaiarrak oso euskaldunak dira, euskara asko erabiltzen dutenak. Hala ere, "Euskara eguna" edo hizkuntzaren inguruko ospakizunean, ia ez dago gazteen presentziarik. Parte hartzaileak oso adinekoak izan ohi dira, eta bertako egitaraua ere, ohiko eskemetan oinarritzen da: "trikitixa, salda eta txoixoa". Beraientzat oso errepikakorra da egitaraua. Euskal jaia ere garrantzitsua da Zumaian, eta egitarauan ere, antzeko ekimenak daude: baserritarrez jantzi, azoka egoten da, sagardo postuak... Horrek iruditeri hori elikatzea dakar: euskara zaharra da eta osagai oso folklorizatuak ditu. Ez du hizkuntzaren irudi abangoardista ematen, eta tradizio eta folkloreakin loturiko zerbait izatea elikatzen da.

Gainera, gerta daiteke euskara komunitate politiko batzuekin identifikatzea:

(ZU2): Euskara lotzen da komunitate politiko jakin batzuekin, ta oso zaila izaten da hortik ateratzea. Eta ez det esaten ez denik egiten, oso zaila da. Eta nik esandako honekin ez da ezer lortuko. Plan-gintza orokor baten baitan joan beharko du. Pixkat aldatzea eta ez izatea berdina...

Eta horrek, elkarrizketatu batzuen iritziz, zaildu egiten du komunitate edo sektore batzuetara iristea. Edo gazteek ere euskara jarduera konkretu batzuekin lotzen dute: "euskara lotzen da "kontestu" jakin batekin. Eskola, txosna batzordea, gaztetxea...".

Jarduera markatu batzuekin lotzen da, eta adinaren aldagaia kontuan izanda, gazteek euskara adinekoenekin, haurrekin eta gazteekin lotzen dute. Heldu batzuk gaztelaniaz mintzatzeari lotutako iruditeria bat ere badago:

(ZU12): Baino guri euskarako irakasleak esan zigun, eta inpaktatea egin zitzaigun, baino eske egia da, ai zian 7 urteko 2 ume jolasten, ta beti euskaraz ta erderaz ai zian, ta "ze ai zeate?", "gurasota jolasten ai gea". Hoi da, handiek iten dutena itea, ta nola erderaz iten duen ba nik ebai.

Hizkuntzak ez dira hitz multzoak soilik, imajinarioak ere badira, mugimenduan dauden imajinarioak.

Hitanoa makulu beharrean

Euskara eremu batzuekin lotzen da; eremu konkretu batzuekin. Bi nabarmendu dizkigute: eskola eta gazetxea. Deigarria da hori, ezaugarri eta izaera oso bestelakoak baitituzte. Zumaian euskara da eskolako hizkuntza, baina handik ateratzean ere, kanpoko espazio informalean ere, euskara da jaun eta jabe. Badaude ñabardurak edo gai potoloak horren barrenean ere: erregistroari dagokionez, Zumaiaiko hizkeraz gain, hitanoa dute ahoan; baina azken hau mutilek soilik. Sakonago aztertzeke gaiak izan daitezke.

Mutilen artean hika asko hitz egiten da; kalean ia ez da zuka entzuten haien artean. Hala ere, neskekin ez da erabiltzen, ezta nesken artean ere. Elkarrizketatu ditugun nesken artetik, ia denek penaz bizi dute hori, eta gustatuko litzaieke jakitea. Erabiltzen dutenean gainera, barre egiteko erabili izan ohi dute, "amon zahar baten pape-
ren jarri eta txoruana egiteko" (ZU3). Galduko den zerbait dute noka, amonekin ba-
tera joango dena, eta hori penaz eta arduraz bizi dute.

Noka edo emakumeen hika adinekoekin lotzen da; mutilena, berriz, gazteek egiten dutenez, oso gaztea eta gaurkoa da. Desoreka nabarmena dago zentzu honetan, hika hitz egiten den beste herrietan bezala. Mutilen hikak, oso informala izateaz gain, badu mutil harroxkoaren ukitu bat, neska batzuen iritziz: "gainea oso matxote gea-
tzea.... eeeeeeeeeeee (mutilen ahotsa jarrita), gainea fomentatu egiten due rollito hori"(ZU4).

(ZU12): Nik oso gogor egiten diot nire buruai erabiltzeko, nere kontraesan denakin. Ez da erabat aldekoa naizela, baino bai maite detela, eta bai daukatela hori, nei ez diatela inoiz in, ta ni ez naizela inoiz gai sentitu iteko. Ordun nik nahita iten det, jendea inkomodatzeko iten det de hecho, eta jendeai txokau iteio nik iten detenean, eske nei etxean ta inon ez diate in. Nei hasteko lotsa ematen dit...(...). Nik pixkat deskolokatzeko bezala. Inork ez du espero nik mutil bati hola hitz eitea. Hoixe, hortako. Ta gainea, esan egiten diate, gai baldin banaiz jarraitzeko, ikustet ya beraiek inkomodatzen, inkomodatzen... ta noizbait erantzun izan diate: "ta zu zein zea, nei hola hitz egiteko?". Ta gero, mutil batek hola hitz ein ta ez zion ezer esan. Ez dakit zeba ote dan...

Mutilen eremu bilakatu da hitanoa, eta horrek nokaren gaia mahai gainean jartzea eskatzen du. Zer egin? Nola? Hezkuntzan dabilen irakasle batek honako hausnarketa hau utzi digu, zama edo fokua gazteengan jarri ordez, talde zabalago batean jartzeko eskatuz; batez ere, 30-50 urte arteko jendearengan:

(ZU2): Lanketa hori nerabeekin egin behar deu? Edo egin behar deu 30-50 urte arteko emakume kontzientziatuekin? Ze klaro, berriz ere goaz, motxilan jarri nahi diegu beste zeregin bat gehiago, gazteei. Eske gazte hauek ikusi izan balituzte bere izebak, eta amak, eta euren kuadrillak, denak hika hitz egiten, orduan zergatik ez dugu jartzan programa bat 30-50 urte artekoak, hitz egiten dutenek eta ez dutenek, hor mugimendu bat sortu dadin. Nahi dutenek hartuko dute parte eta horiek izango dira belaunaldi gazteen erreferentzia. Ez da guk egin ez dezagun, zeren hauek daude anti-autoritario fase batean. Irakaslea juten bada: "orain egin hika hau ta hau", ba...

Gazteen ideologiak arakatu ditugu, hizkuntzari lotutako ideiak, irudiak, estereotipoak, balioak..., azaleratuz. Orain, ideien mundutik, eguneroko praktiketara egingo

dugu jauzi: zer egiten dute Zumaiko gazteek euskararekin? Nola egiten dute? Noiz? Zeinekin?

2.3.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena

Lekuan lekuko lana egiten ari gineneko anekdota batek azaltzen du Zumaian euskarak duen presentzia, baita haren praktika ere:

"Parean astilleroak daude, erreka beste aldean, kasko historikoa. Bertaratu egingo naiz. Bidean, zubitxoa pasa behar da. Hantxe dago hego-ameriketako (hizketa moduagatik) izango den punky bat, bere bizikleta eta txakurrarekin, alanbreekin momentuan egiten ari den figuritak saltzen. Bi neska gerturatu zaizkio, 13 urte inguruakoak:

- Zenbat baliou?

- ¿Dime?

Deigarria egin zait. Edozeinek gaztelaniaz galdetuko luke, haiek ez ordea."

(Egunerokoa, 2019-05-14)

Anekdota soila dirudi, baina jarrera baten ispilu da. Behaketa lana egiten ari ginela ere, hainbatetan jaso ditugu bi hizkuntzen arteko elkarrizketak. Zumaiaiko arranpan, itsas ondoko paseo edo malekoian, jendeak tabernan tragoa hartu eta bertako petrilean eserita egoteko ohitura du. Hantxe, hiru neska zeuden, bi gaztelaniaz eta bat euskaraz. Elkarrizketetan ere, momentu batzuek ahoa bete hortz utzi gintuzten:

(ZU3): Adibidez, eduki nun (izena esaten du), bikote bezala, eta esaten nun, nere pareja zea, eta ez dakizu euskaraz. Fuertea bezala da. Ez dezu nere hizkuntza berdinen egiten, eta ordun gauza asko ezin ditut esan. Ta hori, gauza bat zaindu egin behar dena. Igual ahal gera, komodidaden erori eta gazteleraz egin...

(ZU4): orain parejana komentatu dezula, nire parejak erderaz hitz egiten du, eta nik esfortzu handia egiten det euskaraz mantentzeko. Berak ulertzen dit, baina ez du hitz egiten. Bera hiriburu batekoa da. Ordun, gure konbertsaziok dira bera erderaz ta ni euskaraz. Askotan nahi gabe, erdera joaten naiz, eta ordun lanketa egin behar det: benga, euskaraz egin ezazu.

Bikotekidearekin bi hizkuntzen arteko harremanean. Ez dugu esango dinamika orokorra eta jarraitua denik, gertatzen baita, askotan, gaztelania elkarrizketan sartu eta gaztelaniazko elkarrizketa bilakatzea. Hala ere, askotan agertu dira elkarrizketa euskaraz jarraitzen duten pertsonak. Hala kontatzen digu gure informazio emaile batek:

(ZU15): Suelen hablar mucho en euskera, y aunque yo responda en castellano, la conversación no cambia, respecto lo que te dije ayer. Tengo una amiga que por mucho que yo pueda hablar en castellano, como que siempre ha querido hablar en euskera y como que no lo cambia.

Zumaian badago euskara zaintzearen aldeko jarrera bat; izan ere, elkarrizketa askotan azaldu digute euskara euren parte dela, “ni” horren osagai garrantzitsua. “Ni” hori euskarak sortzen du, eta beste hizkuntza batera igarotzea, “ni” hori baztertzea edo aldatzea bezala da askoren bizipena. Horrek norberaren izateko eran eragiten du, edo besteekiko duten jarreraren. Kanpora ikastera joan direnetan, euskarara sakontasun handiagoz hurbildu izanaren esperientziak komentatu dizkigute:

(ZU4): Komodo sentitzen naizen hizkuntza bat, nere bezala sentitzen detena, kanpora joan naizenean ere, euskaldunekin igerrri det lotura hori hizkuntzagatik. Zaude 2-3 aste jendeakin, ingelesez komunikatzen... ta ondo, baino derrepente etortzen da euskaldun bat eta kontatu diozu ya ordu erdi baten, beste hiru astetan kontatu diozuna baino gehio. Eta gero ere bai, zerbait altxor bat bezala.

Euskara bidezidor bilakatzen da harremanaren hurbilpenean; hori oporretan edo kanpora ikastera edo lanera joatean gerta daiteke. Baina bertan ere bizitzen da, sentitu, euskara ikasi eta erabiltzeak nola mugarrria markatu dezakeen norberaren bizitzan. Ikerketa honetan parte hartu duen gazte batek honela azaldu zigun bere esperientzia:

(ZU5): 12 urterekin. Eta eskerrak Zumaian bizi naizela, dakit euskaraz. Bestela ez nuke jakingo, zeren beste toki batzuetatik mugitu naiz, askoz gutxiago entzun det. Eta hemen izan zan, etorri eta dena euskaraz. Azkar izan zan, 2 urtetan edo horrela, ya banekin. Eta izan zan 6. Maila eta DBH tarte horretan, 12-14 urte tarte horretan. Eta hori, izan zan, niretzako, euskara ikasi eta “como un antes y un despues”, zeren euskara jakin baino lehen, pixkat galduta bezala nebilen, ez nitzan ezertaz enteratzen, ez neon hain integratuta, al-diz, ikasita eta gero, jendea asko pozten zan, “ze orgullosa gauden zuretz” eta ez dakit zer. Ez instrumentu bezala, baina bai integratzeko faktore inportante bezala izan zan euskera.

Zumaia bezalako herri euskaldun batean, harremanak irekitzeko giltza euskara da, ikasi eta erabiltzen duenaren bizimoduan eragiten duena.

Praktikak gehiago hitz egin eta eragiten du, egungo gazteen euskararekiko harremanean.

Kuadrilla eta beste “familia” batzuk

Familia bidezko transmisioaren mitoa guztiz erori zaigu ikerketa honetan; bai Gernikan, Amorebieta-Etxanon eta Pasai Donibanen, baita Zumaian ere. Kasu asko eta asko topatu ditugu etxean gurasoren batek euskaraz ez jakitea, eta ondorioz euskara ez erabiltzea (etxean). Kasu horietan ere, Zumaian behintzat, seme-alaba gehienek euskaraz hitz egiten dute beren egunerokotasunean (guraso horrekin gaztelaniaz gehienetan). Euskaraz bizi dira.

(ZU6): Erderaz hitz egiteko pentsatu in behar det, eta gero ez zait ateratzen esan nahi detena ondo. Aber, bauzkat lagunak erderaz ta

hola, baino bueno... Ta hori nere gurasoak etxean... nere aitak ez daki euskaraz. Hori (inguruko herri batekoa) dala eh? Baino bere familin ez da inoiz, nere amak bai, zumaiarra da.. Batzutan erderaz, gaizki, baina ulertu iteit. Ta euskaraz ere hitz eiten baiot, ulertzeit. Sin mas... Kriston barbaridadek ateratzen zaizkit, ya ohituta dao, ez dit ezer esaten.

Etxeko hizkuntzak edo familiaren hizkuntzak baino gehiago, adin horretako gazteen-gan beste “familia” batzuek dute pisua, bai denbora aldetik bai hizkuntzaren ikuspegitik. Talde horiek komunitate zehatz bat osatzen dute; haien artean komunikatzeko hizkuntza bat dute, eta Zumaiaren kasuan, askotan euskaraz aritzen dira. Taldea bilakatzen da familia: batzuk kirol edo musika zaletasunarengatik elkartuko dira, edo mundua ikusteko eta bizitzeko moduagatik. “Tribua” familia izan daiteke, eta Zumaian ere badaude tribuak¹⁵: skin musika edo jarrera dutenak, pijo eleganteak, feministak, surf zaletasuna eta estetika, gaztetxe inguruan ibiltzen direnak, talde politikoagoetan, eta baita kanpotik ezarritako etiketa duten “kaniak” eta “txoniak”.

Oso talde aniztunak badira ere, azkenek ez beste guztiek euskaraz hitz egiten dute. Ez da harrizkoa *eskinetoa* edo *surfista* euskaraz entzutea, are gehiago, normalena da. Euskara da komunitatearen komunikatzeko modua. Berdin du zer ezaugarri izan taldeak, eta askotan oso muturrekoak izan, baina euskarak balio die beren izateko era eta adierazpenetarako. Gazte hizkera da euskara, eta hori lortzen da eskolako hizkeraz aparte bestelako erregistro bat dutelako Zumaian. Zumaia euskalkiak edo hizkerak beteko du paper hori, mutilen kasuan hikaren laguntzaz.

Askotan, kuadrilla da (bigarren) familia hori. Taldeak sortuko dira, hainbatetan kuadrillaren baitan eraikita, edota, kuadrilla desberdinak elkartuta. Gaztetxea izan daiteke salbuespena, adin desberdinetako jendea elkartzeko espazio bilakaturik. Salbuespena hala ere, Zumaia biziaren parte handia kuadrillaren inguruan eraikitzen delako.

Zumaia herri “kuadrillista” da, txikitako kuadrillak eragin handia du, eta asko markatzen du harreman sarea. Euskal Herrian kuadrillak pisu nabarmena du norbanakoaren bizitzan. Ikerketa honetan, Zumaia kasuan, kuadrilla ikerketaren erdigunean jarri dugu, gakoak eman diezazkigulako. Kuadrilla baten praktika eta izaera aztertu dugu. Jarraian, horren berri emango dugu.

Aste barruan, nork bere bizimodua egiten du, lanean edo ikasten. Lanetik aparte, kirolerako ikastaroetan apuntatuta daude batzuk, baina aisialdiarekin baino gehiago, lanarekin lotzen dute, “egin beharreko” zerbait balitz bezala. Zumaian ere, kirola izugarri egiten da, eta talde asko daude: arrauna, futbola, eskubaloia...

Aste barrua lana edo betebeharrekin lotzen badute ere, asteburua kuadrillarena da askorentzat. Zumaian gainera, giro asko egoten da, jende asko herrian geratzen delako, eta plana, tabernak dira: ateratzeari tabernetara joatea deitzen zaio. Kuadrilla

¹⁵ Tribuaren ezaugarri garrantzitsuenetan oinarritu gara deskribapenerako, nahiz eta jakin zerbait konplexuagoak direla eta topikoez puztuta daudela. Hala ere, hau beste ikerketa batenez, euskararen erabilpenaren inguruan adibide ikusgarriak izateko tratatu dugu tribua honela.

batzeko gunea taberna da: kuadrilla eta tabernak bat dira. Kuadrilla da taldea, taberna espazioa. Gutxi gorabehera 16 urte betetzean hasten dira kuadrillak tabernetan.

Batzuetan egoitza edo elkargune gisa taberna zehatz bat hartuko du kuadrillak, haren izaera eta ezaugarriekin lotuta egongo dena, baina beste batzuetan bestelako errituek hartuko dute protagonismoa. Kuadrilla baten ohitura tabernatik tabernara ibiltzea izan daiteke, zuritotik zuritora. Honela, taberna desberdinetan egongo dira, kuadrillaren baitako musika eta gustu aniztasuna betez. Alkohola tarteko eta musikaz girotuta, harremanak intentsitate edo sakontasuna hartzen dute, eta oso gustuko dute tertulian, elkarrizketan eta eztabaidan ibiltzea.

Kalean ibiltzen dira, tabernetan; eremu publikoan. Jendeak ikusi egiten zaitu, eta entzun.

Harremanak elikatzen dira elkarrekin egonez, eta asteroko errituan parte hartzen ez duena pixkanaka kanpoan geratuz doa, edo harreman hori hotzagoa izango da. Taldea soziala delako, elkar egotekoa, asko konpartitzekoa, beharretatik deskonektatzeko lagun taldea. Honela, komunitate berezi eta garrantzitsua bilakatzen da norberaren bizitzan, askotan familiaren parekoa, haien arteko elkarrizketan esandakoaren sakontasuna aztertuta:

(ZU9) Neretzako kuadrilla nere txikitako lagunak, eta familia bat gea azkenean.

(ZU8) Neretzako ere gauza bera, nik ere familia hitza erabili behar nun. Bizitzan daukazun talde inportantea, alde batetik familia, baina kuadrilla ere parte inportantea bizitzan, eta denbora eskeintzen diotena.

(ZU10) Espero dugu betirako.

(ZU8) Hori ere askotan aipatzen dugu, ezta? Seme-alabak izatean gustatuko litzaigukeela eurak ere lagunak izatea. Txikitatik ezagutzen gea ta...

(...)

(ZU8) Gero, guk mutila eduki izan degunean ebaita, beti inbolukratu edo kuadrillara bultzatu izan ditugu. Bazkariak egin izan ditugu mutilakin eta guretzat beti izan da inportantea gure mutilak ondo eramatea. Batzuk igual asko bereizten dute mutilakin ateratzea, ta gu danok ateratzen gea.

Elkarrizketa horretan kuadrillaren garrantzia nabari da. Kuadrillak esan nahi handia du, eta hizkuntzaren praktikorako eremu bilakatzen da. Talde zehatz honetan euskara dute hizkuntza, baina izaten dituzte ere harremanak kanpoko beste pertsona batzuekin (erdaldunak), askotan gainera. Adibidez, Zumaiara joan direlako lanera. Halako kasu batean, whatsapp talde bat sortu zuten pertsona horrekin, harekin komunikatzeko gaztelaniaz. Kuadrillako taldean ez zuten sartu, agian kuadrillaren izaera itxiagoa delako, baina baita bertako komunikatzeko moduak euskara izan zedin jarraitzeko ere. Euskara blindatu egin zuten.

Praktika eremu berrietarako deserosotasunak

Kuadrillara gerturatu den kide berri horrek deserosotasuna sortzen du hizkuntza kontuengatik. Deserosotasuna bi zentzutan. Batzuentzat, esfortzu handia da beren hizkuntza alboratzea lagunartean, “pereza” hitza erabili dutelarik azaltzeko. Beste batzuentzat, errespetu falta da bestearekiko, beren hizkuntzara ez moldatzeagatik, eta hala gertatu ez denetan deserosotasuna sentitu dute. Horrenbestez, deserosotasuna senti daiteke hizkuntza aldatzetagatik, edo hizkuntza ez aldatzeagatik.

Zumaiara gazte garaian etorri zen neskak ere, beste kuadrilla batean dabilenak, badu sentrazio hori. Hark ez du euskaraz aritzeko erraztasunik, eta konturatzen da nola bere jardunaren eraginez inguruko jendearen hizkuntza aldatzen den, kasu honetan, euskaratik gaztelaniara, eta honek sortzen dio deserosotasuna. Hala ere, deserosotasunetik erosotasunera ez dago salto handia haren bizipenetan:

(ZU15): (...) pero si que he notado que me noto más segura hablándolo con personas que igual no me conocen. (...) si es gente que no me conoce y me hablan en euskera, yo si que les respondo en euskera. Y luego con mis amigos suelo emplear frases muy cortas, lo típico, igual empiezo y luego igual no termino.

Hori Zumaian geratzen zaie. Baina bertatik ateratzean, hizkuntza egoera eta testuiguruia erabat aldatzen da askotan. Zumaia dute erreferentzia argia, eta askok, gainera, ez dute bizitokiz aldatzeko asmorik. Zumaian pozik eta gustura daude elkarrizketatu ditugun gazteak. Hala ere, hainbat arrazoiengatik, askotan lan edo ikasketa kontuengatik, herritik atera behar izaten dute, eta hor, bestelako errealitate desberdin batzuekin topatzen dira.

(ZU12): (...) gu gaude alerta bezala, ez? Ta ya erderaz entzuten dugun bezala, belarria jartzen deu. Zeren txokatu egiten digu asko. Ta Unira jun ta jende asko erderaz hitz egiten, ta konturatu naiz askotan egiten deula herri euskaldunetako jendea junta bezala, ta ez det esan nahi ghetto batean bezala, zeren gu gea askotan gehien goa, baino bai iten deula zakarkeria bezala iruitzen zait, erderaz ai danai... ba aber, ari bada ez dulako nahi euskaraz egin, eta bera guay dalako erderaz ai dalako, ba noski, ba nik ere ez det eukiko gogo handirik pertsona horrekin hitz egiteko. Baino askotan ez gea konsziente ze suertea daukeun hemen bizitzeaz, ta holako soltura eukitzeaz, eta beste batzui gehio kostatzen zaienean, ya barrera bat bezala jartzen deu. Ta nei hori da pixkat azkenaldian mina egiten ari zaitena. Igual ez gea konsziente berak ez dula euki gure suerte iguala...

“Naturalizatuta” duten hizkuntza, ez da hain “naturala” beste hainbat tokitan, eta horrek beste errealitate batzuekin talka egitea suposatzen du askorentzat:

(ZU10) (...) neretzako pisu handia. Nei euskaraz bizitzea gustatzen zait, baino bueno, ezin danian... Nei gertatu zait orain lanean, dana erderaz. Lezon, ta dena erderaz. “Buenos días” ta hola... Donostikoak, gracias, ezta minimo hori. Iruitu zait oso arraroa. Amorrut gehiena ematen ditena da, harritu egiten dira mobila ere euskaraz edukitzea. Madrileko batek hori esatea bale, baino hemen? Harritu egiten dira nik 24 horas euskeraz egitea. Da gauza bat Zumaian ez dana aurkitzen... Hemen euskaraz erabilpena oso zabaldua dago, eta hemen erdera, aitzen da baino...

Zumaia eta antzeko egoera soziolinguistikoetatik bereizita, bestelako hizkuntza egoerak ezagutzen dituzte, eta galdera, hausnarketa eta jarrera batzuk dakartza berarekin, edo agian, errealitate horretara moldatzera, besterik gabe. Argi dagoena da, beste momentu edo egoera horiek kudeatzea norbanakotik egiten dutela, euskarri eta ideologia handirik gabe.

Nerabezaroko gaztelania momentutxoa

Ikerketa honetan parte hartu duten lau herriek berezitasunak eta antzekotasunak dituzte. Azkenengo horien artean gazteekin lotutako fenomeno bat nabarmendu da: nerabezaroan gaztelaniara gertatzen den mudantza. Euskararen ezagupena edo erabilera datuak edozein izanda ere, lau herrietan agertu dira garai jakin batzuk, non gaztelaniara “salto” egin den. Mudantzarako uneak dira. Amorebieta-Etxano edo Pasai Donibaneko kasuetan, urte asko iraun dezake, batzuetan bizitza guztia. Zumaia kasuan, aldiz, ez da praktika orokorra, denek ez dutelako gaztelania fase hori, eta denboraldia kontuan izanda, une laburra izaten da gehienetan.

(ZU11): Beti esaten da daola adin bat hor, pixkat zaharro ta sentitzen hasten zeanean ta, ta igual, behintzat zure inguruko gurasoak, igual kasu hortan ez eh?, gazteleraz entzuten due ta igual iruitu zerbait desberdina eo guay eo, ez dakit nola esan. Baino askotan hori, pasa iten da eta gero euskara bueltatzen dira.

Deigarria egin zaigu ere, elkarrizketatuei gai honen inguruan galdetzean, nola zituzten identifikatuta momentu horretan zeuden nerabeak. Eta horrek presio soziala izan dezake, ateratako bide horretara berriro itzultzeko.

2.4. PASAI DONIBANE

2.4.1. Testuinguru etnografikoa: herria, gazteak eta hizkuntza

Pasaia udalerria osatzen duten lau barrutietako bat da Pasai Donibane. Pasaia Gipuzkoako ipar-ekialdean dago, Oarsoaldea eskualdearen barnean, Errenteria, Lezo eta Oiartzunekin batera. Pasai Donibanek 2.310 biztanle ditu, lau barrutietako txikiena bera delarik. Beste hiru barrutiak gehituta, Trintxerpe, San Pedro eta Antxo, 16.269 biztanle (EUSTAT, 2018) ditu orotara Pasaia.

Pasaia herria bada ere, kohesio gutxiko herria da, eta ez du “herri izaerarik”. Ez dute apenas elkargunerik eta barruti bakoitza herri “independentea” da, izaeraz eta sozialki, administratiboki denak bat badira ere. Ez dute bizitza komunik egiten, eta ezaguri desberdinak dituzten herriak dira. Pasai Donibane eta San Pedro herrigune historikoak dira, arrantzari lotuta egon diren herriak. Trintxerpe eta Antxo, aldiz, XX. mendean bertako portura eta arrantzara lanera etorritako galiziarrek eraikitako auzuneak direla esan daiteke.

Pasai Donibane herri txikia da, eta, aurretik esan den moduan, orain dela hamarkada gutxi arte arrantzari oso lotua egon da. Familia asko bizi ziren arrantzatik. Gizonezkoak arrantzara joaten ziren itsasontzi eta txalupetan, eta ohikoa zen emakumeak sareak konpontzen ikustea bertako plazan, lurrean eserita. Horri lotuta, itsasontzietan ekarritako arraina bateletan eramaten zuten emakumeek, ahalik eta azkarren,

lonjan saltzeko. “Batelerek” garrantzia zuten, eta gaur egun herriko identitatearen ikurra dira, arraun munduan ere eraginez. Herri izaera du Pasai Donibanek.

Etheen arkitektura eta itsasoari itsatsitako harrizko kale estua igarotzean senti daiteke herriaren historia hori: herri arrantzalea zela agerian dago. Oraindik ere, kale izkinetan txalupatxo soil batzuk ikus daitezke, itsasoan ainguratuta dauden txalupetara joateko erabiltzen dituztenak: txintxorroak. Baina kirol portu edo txalupa gune berriak egin dituzte, eta desagertzeaz den arrantza herri haren azken hondarrak dirudite.

Gaur egun, Pasai Donibane ez da herri arrantzalea, ia inor ez da hartatik bizi, eta gehienak bertako portuan edo kanpoko lanetan (zerbitzuak edo enpresa desberdinetan) aritzen dira. Eta herriko adinekoenak joatearekin batera joango dira herri arrantzale haren ahozko testigantza eta bizipenak. Eta herri txikiko izaera edo bizimodua mantentzen badu ere (eta hori nabaritzen da komunitate sentimenduan), esan beharra dago herrian bizitza egiten ez duen zati esanguratsu bat ere badagoela, Pasai Donibane lotokitza soilik duena eta hiriburuko etxebizitza prezio altuengatik bertaratu dena.

Atzerritarrek nabari dira; turismoak presentzia du. Erretegiak eta jatetxeak ospetsuak dira, eta jende asko joaten da arraina jatera. Lau bat urte dira turismoaren gorakada nabarmentzen hasi dela, urte guztian.

Mendizaleak ere ikus daitezke; izan ere, Hondarribitik Pasaiarako GR ibilbide bat dago, itsasertzetik egiten dena. Herritarrek paseatzeko ohitura ere badute.

Portuges dezente daude herrian, eta haien kulturara gerturatzeko jende pila mugitzen da (kontzertuak, hitzaldiak, gastronomia...). Indarra hartu du, eta antolatzen dituzten jaiak itzelak dira (oso herrikoak, beraienak, txosnekin...); jaietan, adibidez, Habanerak egiten dituzte, eta jende pila mugitzen da, telebistan ere botatzen dituzte.

Herriko festak Santiagotan ospatzen dira (uztailean, San Juanak baino potentegoak dira hauek), eta San Pantaleon egunean edo arrantzale egunean, sardina jatearekin, ezin izaten da herrian ibili. Herri sarreratik bukaeraraino postuak jartzen dituzte kuadrillek eta elkarteek. Udalak sardinak ekartzen ditu, eta jendeak egin eta doan bantzen ditu. Egun horretan ezin da herrian sartu, ezin da aparkatu, masifikatua dago. San Inazio egunean ere, uztailearen 31n, su artifizialak egiten dira, eta jendeak bokatak hartzen ditu, eta kuadrilla-familia giroan afaltzeko eta suak ikusteko planak egiten dira.

Inauteriak ospatzen dira herrian (nahiko egun potentea izaten da).

Aipatutako ekintzetan haur, gazte, heldu, emakume, gizon... guztiek hartzen dute parte (Habaneretan helduak batez ere). Etorikin gutxi daude; talderik handiena marokoarrena izan daiteke (ez daude talde bezala antolatuta), baina badira ere errumaniarrak, kubatarren bat, aljeriarren bat... Liburutegira joan ohi dira etorkinak, Interneta erabiltzeko edo paperekin laguntzeko eskatuz. Elkarrizketatu batek dio herrian loturak egiten hasi orduko, joan egiten direla; beste elkarrizketatu batek dio, ordea, Donibanen nahiko integratuak daudela etorkinak, eta, oro har, ideologia desberdineko jendea ere batera ibiltzen dela.

Herri txikia, herri arrantzalea eta herri euskalduna izatea bertako identitatearen ikur izan da, bai kanpoko begiradatik bai barneko sentimendutik. Baina egun, ez da herri arrantzalea, eta euskararen inguruko datuek esaten dute euskara ez dela bertako hizkuntza nagusia.

Kostaldeko herria izaki, bi aldi nabarmen bereizten dira urtean: negua eta uda. Negua nahikoa "hiltzen" da herria, eta goiko zonaldeko parkean eta tabernetan ibili ohi dira herritarrak. Udan "bizitza" hartzen du. Egun eguzkitsuetan ohikoa da lagunartean arroketa edo Alabortza kalara joatea, baita inguruko herrietatik bizikletaz joatea ere. Alde zaharreko plazak saltsa asko izan ohi du, bertakoak eta bisitariak nahastuta.

Aurrez aipatutako komunitate sentimendu horrek asko laguntzen du proiektuak aurrera eramaten. Intereseko gaia baldin bada, herri osoa edo talde handi bat mugitzen da.

Gainera, badu ezaugarri berezi bat: Pasai Donibane ez da bidean gelditzen den herria, bertara joan egin behar da; ez da pasokoa; hara propio joan behar da. Atzetik, Lezotik du errepidea. Eta baita San Pedrorantz ere, txalupa motordun batek badia zeharkatzen du, Pasai Donibanetik San Pedrora joateko. Horrek ematen dio "irla" izaera, eta hala bertakoek han egiten dute bizimodua, "oso sanjuandarrak" dira, nahiz eta herrian ez dituzten zerbitzuen bila (erosketak, zinea...) Errenteriara joaten diren, edo Lezora (medikua, musika eskola...). San Pedrokoek joera gehiago dute Donostia alderantz, hortxe beste adibide nabarmen bat, Pasaiak herri izaera ez duela erakusten duena.

Behin herri barrenean, bi parte bereizten dira nabarmen, tartean aparkaleku batek banatuta. Alde batetik, "Maipi" goiko partea da, tabernak dituen plaza batek erdigunea hartzen duelarik. Auzoak, gorantz, mendialderantz daude eraikiak. Portugaletik etorritako langile familia asko auzune horietan kokatu ziren. Bestetik, Alde zaharra. Behean dago hirigune historikoa, aspaldiko herri arrantzalearen estetika mantentzen duena. Hirigintza ikuspegitik ezin du hazi inguruaren mugengatik (mendia eta itsasoa), eta honen ondorioz populazio zaharragoa du, aldaketa gutxi izaten ari dena.

Beheko parteak barne biltzen du herriaren erdigunea, "herri nortasuna", nahiz eta goiko parteak "bizitza" gehiago duen. Alde zaharreko irudiak turista asko erakartzen ditu, aldaketa, batez ere, azken lau urteotan nabari delarik, bertako jatetxeek arraina jateko duten ospea aspaldikoa bada ere. Ohikoa da bertako plazako argazkia, eta hor turistak argazkiak ateratzen ikustea.

Ezaugarri horiekin loturik, bertako kirol talde garrantzitsuena eta kapital sinboliko handiena duena Koxtape arraun elkartea da, herriaren ordezkari bilakatuta. Prestigio handia dute arraunlariak, eta bandera bat irabaztean harrera egiten zaie herriko plazan, herri osoan zehar musikariekin kalejira egin ondoren. Hainbat balkoitan ere haiek ordezkatzeko dituen kolore arrosa ikus daiteke. Arraunak gorpuzten du herri arrantzalearen irudia, eta herria kohesionatzen du.

Eragile garrantzitsua da arraun elkartea, bere baitan ehundik gora gazte hartzen baititu. Arraunaren bidez, eta bertako entrenamendu ordutegi eta diziplinaren ondorioz, arraun taldea kuadrilla bilakatzen da elkarteko kideentzat. Barnetik, talde sentimendu handia dute; kanpotik, ia "sekta" moduan ikusten dute (umorez).

Baina badaude beste talde batzuk ere: areto futbola, dantza taldea, Sanju kirol taldea, Badia antzerki taldea... Horiekin batera, herriko elkarteak ditugu: Bixi-bixi, Itsasmendi eta Jola. Elkarte horiek dira herriko motor kulturala. Mugimendua duen herria da, baina kexu dira gauzak antolatzeko jendea falta delako. Belaunaldi berriek ez dute jarraitu orain arteko funtzionamenduarekin; distantziamendua egon da. Izan ere, elkartegintza herriaren motor kulturala izatea herri askotako joera izan zen duela zenbait hamarkada; 80ko hamarkada inguruan. Baina herri askotan jada ez dira eragile nagusiak. Pasai Donibanen hala izaten jarraitzen du. Hala ere, azken urteetan aldaketa azpimarragarriak eman dira: liburutegia eta Xantixa gazte elkarte.

Liburutegia berezia da, oso berriztatzailea delako zentzu askotan. Funtzionamendua parte hartzean oinarritzen du, haurrei eta gazteei eragile izatea onartzen baitie. Eredu da hainbat liburutegirentzat. Hala ere, haurrak dira erabiltzaile proiektu honetan, eta gazteek ez dute jarrera aktiboa. Haien zentzuzko tokia lasai bat da. Bestetik, zerikusirik ez badu ere, gazteek Xantixa sortu dute, eta elkarte berri hori kirol esparruko zein kultura mailako ekimenak antolatzen hasi da, nahiz eta duela urte batzuk polemika handia sortu zuten "Ibiza" izena zuen txosna antolatu zutelako; izan ere, bertan ateratako diruarekin haien zentzuzko Ibizarako bidaia ordaintzeko asmoa zuten. Horrek talkak sortu zituen herriko hainbat eragileekin eta jai batzordekoekin.

Eragile bat da egun Xantixa, eta eragina du gazteen artean. 20-26 urteko gazteak dira antolatzaileak, gehienak mutilak. Maipin ibiltzen dira normalean (tabernetan). Behar batetik sortu ziren: gazteek gazteentzako ekimenak antolatzea. Jende asko hurbiltzen da haien ekimenetara: futbol areto txapelketa, eski irteera... Eta eragile horrek sortu du ilusioa, eraberritze edo berpizte sentsazioa.

Bestela, gazteak beste herrietako egungo beste gazteen tankeran bizi dira: okupatuta. Ikerketan zehar agenda beterik zuten gazteekin egin dugu topo, ikasten edo lanean dabiltzanekin, eta asteko gainerako ordu guztiak kirolarekin edo beste zereginekin betetzen dituztenekin. Ildo horretatik, nabarmen ikusi dugu ia globala den fenomenoak: teknologia berriek eragin handia dute, harreman birtualak (sare sozialak eta whatsapp-ak) ere egunerokotasunean presentzia hartuz, erreferentziatzeko herritik haratagoko harremanak elikatuz eta norberaren identitatean eraginez. Horrela, ikerketan zehar presente izan ditugun bi hizkuntzez gain (euskara eta gaztelania), ingelesa ere agertu da: "Baino egia da badagoela orain tendentzia bat sare sozialetan emateko "ciudadano del mundo", nahiz eta ingelesa ez izan erreferente, esaldi asko erabiltzen dituztena" (D5). Jada herria ez da eremu bakarra.

Euskal Herriko herri gehienetan bezala, kuadrillak funtzionatzen da Pasai Donibanen, baina dinamika horrek badu zerbait berezia: herri txikietan ageriago ikusten den moduan, kuadrillak errazago nahasten dira, eta ohikoa da adin desberdinetako gazteak elkarrekin ibiltzea. Kuadrillak mistoak diren edo ez esateko iritziz kontrajarriak jaso ditugu. Neska gazte batek aipatu zigun 22 urtetik gorakoan artean kuadrilla misto gehiago dagoela. Horren arrazoia neska gutxiago egotea dela uste zuten, ez batera ibiltzeko joera dagoelako, nahikoak ez daudelako baizik. Adin txikiagoa dutenen artean, neska askoz gehiago daude. Aldiz, mutil gazte baten iritziz, lehen kuadrillak generoaren arabera banatuago zeuden; orain gehiago nahasten dira neskek eta mutilak.

Tabernak dira elkargune gazte garaian, baina aurretik hainbat espazio erabili ohi dituzte, ia adinagatik markatuak. Kuadrillategi egitasmoa, gaztelekua... baita txokoa,

ur depositua edo garai batean gaztetxea izandakoa ere, non zigarroak erre edo alkohola edan baitzuten lehenengoz. Deigarria da ere, uda partean, hondartza ez dagoen kostako herri honetan nola hartzen dituzten gazteek itsas bazterreko eremuak: Escalerillan biltzen dira herriko eta inguruko herrietako 13-17 urte bitarteko gazte txoak. Eta bide edo paseo horri jarraituz, espazioa ia adinka banatua, Alabortza kalaraino joaten dira. Neguan tabernak dira bilgunea; udan aire libreko eremuak: itsasertza, tabernetako terrazak, edo udaletxearen aurreko bankuak (jende asko biltzen da eguraldi onarekin duen kokapenagatik). Ostiral eta larunbat arratsaldetan nabaritzen da gazteak herrian daudela; batez ere, udan (neguan ez da inor ibiltzen, eguraldiak ez du laguntzen). Larunbatetan, goian afaldu eta gero, beste taberna batera trago bat hartzera jaisteko ohitura dago. Ondoren, parrandan jarraitu nahi dutenak Erreteriarra joaten dira.

Uda igaro ostean, bertako ikastolan bilduko dira asko. Lizeoa ikastola elkarteko ikastola da, erreferente bat Pasaiako eta Lezoko guztientzat. Hor nahastuko dira inguruko barruti eta herrietako ikasle asko. Lezon, eskola publikoa ere badago. Pasai Donibaneko ikasle gehienak (% 70 inguru) Lizeora joaten dira, eta % 30 inguru eskola publikora. Barrutien arteko harremanak sortzeko elkargune bakarra da Lizeoa. Bestela, barrutien arteko mugimendu handirik ez da sortzen.

Pasai Donibane eta Lezoko gazteek antzeko egoera dute. Parrandazaleak dira; hau da, parranda baldin badago mugitzen dira (orduak aktibatzen dira; jaiak antolatzen edo txosnetarako jende pila egoten da prest, baina beste gauza batzuetarako kosta egiten da). Ikastolan elkarrekin ibili dira. Gehienak euskaldunak dira, baina euskara gutxi erabiltzen dute.

Elkarrizketatutako gazteen iritziz, zenbait "tribu" bereiz daitezke: *fumetak*, herrian laguntzen dutenak (jaiak antolatzen...; herritarrengandik mirespena dago hauengan), herrikoak direnak baina ez dutenak ezer egiten (arraunlariak hemen sartuko lirateke, beti entrenatzen ari baitira), *txoniak* (16 urte inguruko jendea, Antxon gehiago ibiltzen direnak, "se la suda todo", "ez zait gustatzen nire herria eta banijoa hemendik"...).

Lehen, bereizketa nahasiagoa zen: patinatzen ibiltzen zirenak, rapeatzen... (underground kulturatik zetozenak); eta bazeuden beste batzuk "hijos del deskontrol" esaten zietenak (futbolarekin eta musikarekin lotuta). Gaur egun, ordea, herrian 50 gazte baldin badaude, bi talde nabarmen bereiz daitezke: jarrera politiko oso aktiboa dutenak (gutxi dira egun, garai batean mugimendu handia zegoen, markatua, pentsamenduak sortzen zuen taldea), eta pasiboak.

Diotenez, Trintxerpen errazagoa da galiziarra entzutea euskara baino. San Pedron, dena gaztelaniaz omen da, eta Pasai Donibanen euskara gehixeago zaintzen dutela uste da. Horren arrazoia izan daiteke apartatuta egotea. Lau barrutien artean euskaldunena da, baina erdara asko erabiltzen da.

Goiko eta beheko aldeetan erabilera desberdina da. Meipi aldean, gaztelania gehiago entzun daiteke; eta portugesa ere bai, etorkin kopuru asko biltzen baita han. Baina ez dago hainbesteko kontrastea plazatik/herritik (behetik) Meipira (gora).

Jendeak badaki, baina ez du erabiltzen. Euskaraz bizitzeko guneak: liburutegia, Lizeo. Giza proban eta herri kiroletan, euskara hutsean.

Pasai Donibaneren inguruko herriak ez dira oso euskaldunak. Gaztelania “naturalizatuagoa” dutela dirudi, eta euskara ikastolarekin lotzen da. Aisian ere, arraunean esaterako, gaztelaniak presentzia handia du, eta, antza denez, euskarak ez du jakin gazte espazioak limurtzen.

Adinekoen kasuan, euskara beste modu batera bizitzen dute, sentimendu gehiagorekin; nabari da euskara haien hizkuntza dela. Azken batean, adinekoak euskaraz bizi izan dira, eta gazteek hori aldarrikatu egin behar dute.

Euskararen gaia jorratzeko talde bat sortu zen, “Prest” taldea; gauza interesgarriak egin ziren, baina bat-batean desegin zen.

Herrian euskara Lizeoarekin lotzen da, mundu akademikoarekin. Horregatik, beharrezkoa da herriko elkarteak konturatzea, erreferenteak diren heinean, kirolaz gain, bestelako eginkizunak badituztela (euskararen zabalpenean, berdintasunean...). Haurrei aisia euskaraz eskaintzea beharrezkoa da. Horretarako lan egiten du guraso elkarteko euskara taldeak (“Euskara Talala”).

Lehen, zaharren artean gehiago erabiltzen zen. Orain, jendea zahartzen joan den neurrian, euskaraz aritzeko ohitura galtzen joan da. Baina lehen ere gazteek ez zuten euskaraz egiteko ohitura handirik.

Hizkuntza paisaian euskara topa daiteke. Elkarrizketatu batek hau dio: “nik uste hori dela gehiena dagoena euskaraz (barreak)”. Baina egia da ere elkarteetan egoera informalean sortzen diren oharrak gaztelaniaz topa daitezkeela.

Adinekoen artean, euskarazko klaseak ematen dituen talde bat dago. Lurdes Sistiaga erreferente bat da, Lizeoko irakaslea izan zena eta orain klaseak ematen dituena.

Euskaraldia herrian aurrera eramateko talde bat osatu zen: Bixi-bixi elkartekoak eta kultur eragileak egon ziren. Jende asko animatu zen Ahobizi izatera, baina guztiak izan ziren benetako Ahobizi?

Euskaraldiak Pasai Donibanen ez zuen asko funtzionatu; izan ere, herri txikia denez, guztiak ezagutzen dira (jendea badaki non egiten den euskaraz eta non ez), eta hainbesteko konfiantza maila horretan, zaila da hizkuntza ohiturak aldatzea. Liburutegian ez da asko nabaritu (oro har, euskaraz hitz egiten da bertan). Euskaraz hitz egiten ez duenen bat txaparekin etorri zen, eta berarekin euskaraz hitz egin zen, baina ez da asko nabaritu.

Askotariko ekimenak egin ziren: piragua taldeak, arraun elkarteak... dekalogo bat sinatu zuten, non esaten baitzen, besteak beste, entrenatzaileak euskaldunak izango zirela. Baina gero inpaktu handirik ez zuen sortu...

Haur guztiek euskaraz egiten dute (plazan eta...). Hirugarren mailatik aurrera aldaketa dago (8 urterekin); izan ere, ikastolan gelaz nahasten dituzte Trintxerpeko, San Pedroko eta Antxoko jendearekin. Dibertsitate gehiago dago, eta jende gehiagok hitz egiten du gaztelaniaz. “Jendea hasten da erretzen, eta aldatzen du hizkuntza”.

Gazteek 13-14 urte arte erabiltzen dute euskara (beste elkarrizketatu batek 10 urte arte dio). Gero aldaketak gertatzen dira gaztelaniara, eta elkarrizketatu baten ustez, gero ez da itzultzen.

Lizeon, ikasle askok gaztelaniaz hitz egiten diete irakasleei (lehen pentsaezina zen). Gainera, hainbat kasutan euskararen ezagutza oso kalitate baxukoa da (ia ezin dute euskaraz adierazi). Batzuek familian gaztelaniaz hitz egiten dute, eta euskaraz hitz egiten dutenek ere lagunartean gaztelaniara jotzen dute. Ez dakite zer egin ikastolan egoera iraultzeko: “agian moda bat da”.

Gazteen euskara erabiltzeko ohitura kuadrillaren arabera mugitzen da. Euskaraz ari-zen diren kuadrillak badaude, 25 urte ingurukoena, 20 urte ingurukoena eta 14 urte ingurukoena. Gero, beste gazte batzuk “bakarka” harrapatzen badituzu, euskaraz hitz egiten dute; baina taldean daudenean, ez.

Instagramen gaztelania da nagusi.

Aurretik esanda dago: ikastolarekin lotzen dute euskara, ikasketekin (unibertsitatean askok euskaraz jarraitzen dute, ohitu direlako), baina ez dute erabilgarri ikusten. Adibidez, Whatsappean bilerak antolatzeke, txosnen antolaketaz, jai batzordeaz aritzeko... euskaraz egiten da; baina egunerokotasuneko taldeetan ez. Hizkuntza formalean, euskarara jotzen dute, baina norbait kalera jaistekoa den galdetzeko, normalean gaztelania erabiltzen dute. Formala euskara da, eta informala, gaztelania.

Ikastolak, hainbeste “euskaraz egin” esanda, sortu du, nahigabe, euskara hizkuntza formalizat soilik hartzea, ez kaleko hizkuntzatzat. Lehen debekatua zegoen euskaraz egitea, eta ziurrenik euskaraz egingo litzateke; orain “behartuak” gaude euskaraz egitera, eta ez dut egingo.

Elkarrizketatuek hainbat arrazoi aipatzen dituzte euskararen erabilera hain eskasa izateko. Batetik, haurrek etxean ikusten dutena errepikatzen dute. Gurasoen ohiturek edo euskararekiko duten loturak eragina du. Etxeko ohitura aldatzeak lagunduko luke gazteek euskara gehiago erabiltzen. Bestetik, etorkin pila bat etorri zen hona, eta behar ez denez, inork ez du euskara ikasi. Haien haurrek jakin badakite, baina haiek ez dute horren beharrik, gaztelaniaz bizi daitezke. Gainera, taldean kanpotarren bat badago, gaztelaniaz egiten da (“aitzakia”). Era berean, kuadrillakoren batek ez badu euskaraz hitz egin nahi (ohiturarik ez duelako edo), gainontzeko guztiek gaztelaniaz jarraitzen dute. Aisiak ere eragina du: gazteak entrenatzailearekin euskaraz egin behar dute; egia da. Baina gerta daitezke batzuetan gazteen gaztelaniazko ohitura berari (entrenatzaileari) ere itsastea. Azkenik, euskara derrigortasunarekin lotzen dute gazte askok. Gaztelekuan, “euskaraz egitera behartzen gaituzte, eta ez dut egingo” esaten dute. Hezitzaileek euskaraz erabiltzeko hautua egin behar dute gazteek hala egiteko.

Gazteek euskara lotzen dute behartze horrekin (“ya estamos con el euskera”). “Euskara inposaketa bezala bizi dute”. Gazte batzuek ez dute beren identitatearen parte sentitzen euskara, galdu egin dute. Gazte batzuen ustez, euskara ez da modernoa, “pasado de moda”. Gaztelania erabiltzen “guai” sentitzen dira.

Beste gazte batzuen kasuan, talka bezala bizitzen dute lagunartean euskara erabiltzeko ezintasuna: “Ari zara batekin euskaraz, etortzen da, eta esaten duzu: Orain

erregistroa aldatu behar det nik hiruak gustura egoteko? Ulertu, ulertzen du soberan baino”.

Ikastola lotzen da euskararekin, orain baita liburutegia ere. Ikastola=euskara, euskara=formaltasuna ekuazioek indarra hartu dute, ia horretara sinplifikatzeraino. Formaltasunarekin lotzen dute euskara askok, ikasketa hizkuntzarekin. Eta kalean, lagunartean gaztelaniara jo badute ere, unibertsitate garaian euskaraz jarraituko dute, jada euskaraz ikasten ohituta daudelako. Hala ere, ikastola euskararen eremu bada ere, ez da harrizkoa atsedean orduan gaztelaniaz ari diren gaztetxoak entzutea. Eta garai horretako hizkuntza aldaketak urte askotan iraungo du, kasu askotan bizitza guztian. Honela, imaginario bat sortu da, non euskara haurren eta aitona-amonen hizkuntza baita.

Zentzu horretan, “postureoa” (itxurakeria) nabari da: euskara da hizkuntza politikoki zuzena, baina erabileraren bestelakoa. Euskara da Donibaneko identitatea ezaugarritzen duen sinbolo bat, baina erabileraren gaztelania nagusi da. Ildo horretatik, eta lehen aipatu den moduan, Euskaraldia bezalako ekimenek arrakasta gutxi izan dute, jendeak ez duelako ariketa behar bezala egin, edo txapa “postureo” (itxurakeri) moduan jarri dutelako: Ahobizi. Horri lotuta, arraun elkarte edo piragua taldeak dekalogo bat sinatu zuten, besteak beste, entrenatzaileak euskaldunak izango zirela zioena. Baina gero praktika beste kontu bat da. Sakonago azalduko dugu hau aurrerago, ikerketan jasotako datuak kontuan izanda.

Honaino herria eta herriko hizkuntza egoeraren gaineko deskribapen orokorra. Jarraian, jasotako datuen analisisian murgilduko gara, eta hasteko, gazteen hizkuntza ideologian sakonduko dugu.

Pasai Donibaneko gazteek zer diote euskarari buruz? Zer irudi, balio, ideia... dauzkate hizkuntza, hizkuntza politika edo hizkuntza plangintzari buruz? Eta euskalgintzari buruz? Zer pentsatzen dute Euskaraldiaren inguruan?

2.4.2. Gazteen hizkuntza ideologia: euskararen gaineko ideiak

Hainbat uste eta eri

Ia estereotipo bat da (modu positiboan) “herri euskaldunaren” izaera Pasai Donibanen. Etiketa edo irudi hori sortu izan da. Azken finean, identitateak bi norabidetan osatzen dira: kanpotik zein barrenetik. Eta Pasai Donibane euskalduna da, bai kanpoko begiradatik zein barnetik. Egia da Pasaia osatzen duten beste barrutiek alderatuta (Antxo, Trintxerpe eta San Pedro), Donibane dela euskaldunena, eta gu/besteak horretatik, herri euskalduna duela ikur: Pasai Donibanekoak euskaldunak/beste pasaitarrak erdaldunak. Positiboan bizi dute askok, harrotasun moduan. Eta herritik kanpora ere, oro har, Pasai Donibane herri euskalduna izatearen ideia da nagusi.

Identitatearen ikur bat da euskara, baina ez praktika: “euskaldunak gara, baina euskara oso gutxi erabiltzen dugu”.

Elkarrizketatuek diotenez, duela hamarkada batzuk Donibane oso euskalduna zen. Oraindik nabari da aitona-amonen jardunean, gainera, bestelako erregistro batean dihardute: beste hitz batzuk eta adierazpide batzuekin. Hala ere, frankismoaren ondorioz, batik bat, hurrengo belaunaldiaren zati handi batek euskara galdu zuen, eta hizkuntzaren kaleko presentzia asko jaitsi zen. Betiere gaztelaniaren mesedetan. Hori

dela eta, hizkuntza aldaketa ez da egun batetik bestera gertatu. Duela urte batzuk ere, kalean gaztelania entzutea ohikoa zen.

Adinekoek hitz egiten dute euskaraz, batik bat, baita haurrek ere. Elkarrizketatutako batek Haur Hezkuntzako gradua egin du, eta haren Gradu Amaierako Lanean euskara eta hurrak elkarlotzean, ondorio argi bat atera zuen:

(D6): Garbi ikusi zen gaur askoz gehiago erabiltzen dela euskara, bai gazteak bakarrik egon haurrekin, helduak bakarrik egon haurrekin, aiton-amonak bakarrik egon haurrekin, haurren bat baldin badago, euskara disparatu egiten da gorantz kasu horietan. Orduan badirudi, bakoitzak badakila zer den transmititu behar duen hori, baina gero praktikan, haur horiek ez daudenean, asko tiratzen dugula gaztelerara.

Adina kontuan izanda, bi muturrak dira euskara gehien dutenak ahoan. Tartean hainbat belaunaldi daude gaztelaniaz mintzo direnak, baina karga gazteengan jarri da, beste hainbat arlotan bezala. Gazteak “etorkizuna” direnez, gazteak erreferentzia dira. Hala sentitzen du elkarrizketatuko gazte batek:

(D5): Erabilera oso ona da oso helduetan baino gero ya ez dakit esango nukeen gazteek gutxiago egiten dutela helduek baino. Gero badago joera bat gazteei ardura ematekoa, gero helduek ez dutena hartzen: "eske gazteek ez dute egiten!". Barkatu? Joan zaitetz parrera eta ume guztiak euskaraz eta gurasoak inor ez.

Aldaketa egon da hamarkadetan, baita euskararen baitan ere. Gazte askoren iritzi, euskarak ez du informaltasunerako bidea ematen bidea, eta eskolarekin eta ikastarekin lotzen dute; espazio formaletarako hizkuntza da. Gaztelania, aldiz, kaleko hizkuntza bezala dute; lagunartekoa. Eta hori diskurtsiboki zein modu praktikoan sentitu dugu, gure lekuan lekuko lana egitean. Gainera, haiek jabetzen dira horretaz, eta beste herrietako hizkerak inbidiaz ikusten dituzte.

Ohituren "naturalizazioa"

Gaztelania hizkera informala eta euskara hizkera formala izatearen irudia “naturalizaturik” dute. Hala da, euskaraz ikasten jarraituko dute unibertsitatean, euskaraz ikasten ikasi dutelako, baina aisialdian gaztelaniak presentzia irabaziko du. Ez da harritzekoa bertako badian arrosez jantzitako arraunlariak hala entzutea: “uno, dos, tres... vamos”.

Ikerketa guztian zehar, argi nabaritu da hizkuntza aldatzeko duten bizkortasuna. Oso aldakorra da haien praktika, eta ia “modu instintiboan” bereizten eta erabakitzen dute norekin edo non hitz egin edo ez euskaraz. Ez dute jarrera politikorik horren inguruan, ezta eragiteko beharrik ere. Batzuek modu aktiboagoan eta eragile moduan hartzen badute ere, hizkuntza aldaketa ohikoa da, testuinguruaren arabera.

Sarreran aipatu moduan, Pasai Donibanen dago Pasaiako ikastola nagusia: Lizeoa. Bertan, lau barrutietako ikasleak elkartzen dira, eta nahasketa burutzen da Lehen Hezkuntzatik aurrera, Haur Hezkuntza bakoitzak bere barrutian egin eta gero. Horrek gaztelaniarekin lehen kontaktu nagusia izatea suposatzen du, euskaraz soilik bizi izan

diren sanjuandarrentzat. Bestelako hizkuntza errealitatea duten barrutietatik, gaztelaniak presentzia gehiago duen eremuetatik ikasle berriak bertaratzean, harreman berriei atea irekitzen zaie, eta, horrekin batera, komunikazio tresna berriei. Gaztelaniak irabazten du hizkuntzen nahasketa horretan. “Naturala” jotzen dute joera hori, baita euskara ikastolarekin lotzea ere.

Imajinarioaren indarra

Aurretik esan den moduan, euskara ikastolarekin lotzen da, baita liburutegiarekin ere. Azken horretan, modu aktiboan hautu hori egina dutelako, eta erabiltzaileek oso barneratuta dutelako euskara eremua dela: “liburuzainari ezin zaio egin gaztelaniaz”. Horrenbestez, liburuekin harremana duena euskararen sinonimo da askorentzat.

Hezkuntzarekin lotzeaz gain, euskarak eskaintza kulturean presentzia handia du, eta horretan, Bixi-bixi elkarte gastronomikoak eragin zuzena du. Herriko dinamikan aktiboki murgilduta dagoen taldea da, eta euskara lehen lerroan jartzen dute. Baina bertako antolatzaileak 40-50 urtetik gorakoak dira, gazteengandik jada adin tarte nabarmena dutenak (gazteen guraso ere izan daitezke). Horrek gazte kulturarekiko distantziamendua dakar, baita, elkarte gastronomikoa izanda, bertan parte hartzeko oztopoa izatea ere, arrazoi ekonomikoak edo ohitura aldaketak tarteko.

Eragileekin distantziamendua badago, hura are eta handiagoa da Pasai Donibanen euskara hiztunak direnekiko, alegia: adinekoak. Askorentzat aitona-amonak izango dira, eta horrek urruntzea dakar: jada ez da gurasoen hizkuntza, baizik eta aitona-amonena. Salto handia dago, eta imajinarioan eragin dezake euskara lortzea lehengo, garai bateko eta arrantzaren munduarekin; hau da, herriaren historiarekin. Adinekoek gorpuzten dute bertako identitatea, asko euskaraz aritzen direlako eta herri arrantza haren testigu direlako. Bi ikurrak zaharrenen bizkar daude, lehenaldiarekin loturiko zerbait.

Ikerketan zehar ere, hori nabaritu dugu. Euskara non eta noiz entzun dezakegun galdetzean, eskola eta liburutegiarekin batera, giza probak egiten dituztenean esan digute. Giza probetan, harriari tiraka ibiltzearekin bat, herri kirolak egiten dira: aizkora, lokotx biltzea... Euskal Herriko ohitura zaharrak, eta hoei adibide izan daiteke euskara zerekin lotzen den pentsatzeko. Hala kontatzen digu elkarrizketaturiko gazte batek:

(D6): Holandarekin egin genuen interkambioa eskolan, eta gelditu ziren flipatuak. Erakutsi behar genien gure kultura eta esaten zuten: zarete zaharrak! (barreak) zuen arropa ez dakit zer, zuen musikak dirudi funerala. Zaharra eta nostalgia moduko zera hori.

Euskararekin loturiko egunak ere ekartzen dituzte mahai gainera. Elkarrizketa batean aipatu ziguten badagoela joera bat horrelako egunak trikitia eta halako elementuekin lotzeko, urtetik urtera errepikakorra dena. “Nere amona super gustura dago plan horiekin, baina justu hori arazo bat da. Igual lortu behar dugu haserretzea, puskatzea betiko estereotipoak” (D5). Eta horrekin batera, imajinarioan euskarari loturiko eskema itxiegiak edo zurrunegiak ez ote ditugun eraiki hausnartzen da:

(D6): (...) ta nik uste horrek eragiten duela jendearengan euskara arrotza sentitzeko. “Neri ez zait gustatzen horrelako jantzia, ez horrelako musika, ez zait gustatzen trikitixa...”. Zerk eskeintzen dit

beste zerbait? Pues hara nijoa. Igual puntu bat arte oso itxiak izan gara, hau da gure herria eta hemen mantenduko gara eta defentsa egitea hemendik inor ez da ateratzen. Eta ateratzen dena ez da sartuko, ez dakit. Pixka bat ate horiek zabaltzea. Musika aldetik egin dugu aurrera.

Badirudi euskara “folklorearekin” lotzeko joera dagoela. Eta galdera sortu zaigu: zergatik ez da arrauna modu berdinean euskararekin lotzen? Izan daiteke arrauna ez delako folklore bezala bizi, baizik eta gaur egungo kirol moduan. Arraun elkarteak gazte asko mugitzen ditu, eta eraikin bikainak ditu herriaren erdigunean: bulegoak, frontoi txikia, gimnasioa, arraunerako igerilekua, tailerra, hainbat traineru eta batel gordetzeko garajea... Hain “herri” txikia izanda, deigarria da hori, haren garrantziaren erakusle.

Arrauna=euskara lotura ez da egiten, eta kalean gertatzen denaren ispilu da hori. Gaztelaniaz mintzo diren entrenatzaile edo zuzendaritzako kideekin gaztelaniaz mintzo dira, baina, bestalde, entrenatzaile euskalduna izateak ez du esan nahi euskara taldean nagusitzea. Askotan arraunlari gazteen hizkuntza ohiturek eragingo dute: talde batzuetan euskarak presentzia gehiago izango du, eta beste batzuetan, gaztelania.

Kultura edo folklorearekin batera, euskara ideia politiko batzuekin “markaturiko” hizkuntza izatearen sentsazioa ere hautematen da. Militatzen edo herri mugimenduan dabilzan herritar gutxi horiek euskara dute hizkuntza, eta hainbat alorretan mugitu eta lan egiten duten horiek dira ere euskararen inguruko ekimenetan aritzen direnak. Horrek irudi eta ideia batzuekiko lotura sortzen du, eta batzuek badakite hori haien herriko edo eskualdeko kontu bat dela. Zumaiaren kasua aipatzen dute, eta han euskara beste era batera bizi dutela sentitzen dute: “nere kuadrillako batzuk esaten zidaten: “eske han ez zea giro jakin bateko izan behar euskaraz hitz egiteko”(D5).

Nahiz eta imajinario horrek eragina izan dezakeen, politikak indar gutxi du sanjuandar gazteen artean eta euskararen baitan. Topatu ditugu hausnarketa oso garatuak dituzten gazteak, ideia landuak dituztenak, kritikoak direnak, eta diskurtso eratuak dituztenak. Baina gutxiengo bat dira. Euskararen inguruan ez da asko hausnartu, askok ez dute kritikotasunetik eraikitako ideiarik, eta sumatzen da euskara ez dela kezka bat haien bizitzan.

Euskararen burokratizatzea

Folklorearekin erlazionatzen da, baita adinekoekin, zerbait “fossilizatu” balitz bezala. Baina, batez ere, ikastolarekin lotzen da: Lizeoarekin. Ikastola da euskara eremua, eta euskara, ikasteko hizkuntza. Euskaraz ikasten dute, eta unibertsitate garaian ere, euskaraz jarraituko dute, nahiz eta askorentzat jada gaztelania izan kaleko hizkuntza. Hala, formaltasun/informaltasun hizkuntzak eratzen dira:

(D3): Eremu akademikoan euskaraz hitz egiteak, oso formala egiten du. Eta oso formal egiten duen horretatik, kentzen dio informaltasuna. Gaztelania irabazi du informal/formal eremu hori, ez delako berdina hitz egitea con tu profesor de lengua edo zure kuadrillako lagun batekin, ba euskaraz hori ez du lortu.

Gainera, kontuan hartu behar da Pasai Donibaneko berezitasuna: nahiz eta haur garaian ia denak euskaraz aritu, eta haien hizkuntza nagusia izan, Lehen Hezkuntza hastean (6-7 urte) beste barrutietako adinkideak etortzen dira Lizeora. Hirugarren mailan (8 urte), denak nahastuko dituzte, eta horrek harreman berriei atea irekitzen die; gaztelaniaz hitz egiteko ohitura duten lagun berriekin hizkuntza berriarekin jolasten hasten dira, edo lagun berriak egiten dituzte. Hainbat kasutan, distantzia hartuko dute euskararekiko, irakasle eta ikastolaren hizkuntza delako, eta lagun berriak gaztelaniaz egingo dituzte.

(D4): San Juan euskaldunagoa izan daiteke, ama hizkuntza eta guraso hizkuntza kontuan izanda, baina Lizeoak elkartzen ditu oso erregistro desberdinak. Ez da herri bateko ikastola, non badakizun ze hankatetik kojatzen dugun. Ordun ez da berdina, San Juango batek bizi izan dun infantzia hori, itsasoarekin, arrantzatzen, edo mendira joaten. Antxo edo Trintxerpe batean bizitakoarekin. Eta hori gertatzen da. Esaten da “nahikoa dela hamar euskaldun eta erdaldun bat egotea, hamaikak gazteleraz aritzeko”.

“Euskara, zigorra, eskola, irakaslea, bronka...” josten dituzte, euskara irakasle eta arauekin lotuz. Ikastolak bere helburuak lortu ordez, askotan kontrako ondorioa ere sortzen duela diote:

(D4): Nik uste ikastolak, nahi gabe, eta helburu hori eduki gabe, sortzen dula... hainbeste “euskaraz egin”, “euskaraz egin”... horrek, egiten du. Lehen debekatuta zegoen euskaraz egitea, euskaraz egingo nun. Orain behartuta nago, ez det egingo.

Horrela, hainbatentzat transgresio modua bilakatuko da gaztelania; eskola, irakasle eta arauari aurre egiteko modua. Hizkuntza ere ekintza delako. Beste sentsazio bat emango die gaztelaniak, euskarak eman ezin diezaiekeena. Guaismoa zabaltzen da: “gaztelania guai da”. Hainbat kasutan behintzat, kaleko hizkuntzaren eremua bereganatuta du gaztelaniak, Pasai Donibanen. Gainera, herrian egotea tabernetan egotea da, bai behintzat neguan, eta taberna gehienak, salbuespenak salbuespen, gaztelania dute hizkuntza. Horrenbestez, lagunarteko hizkuntza da.

Lagunartean, gaztelania, eta espazio formalean, euskara. Bai eskolan bai beste eremu batzuetan, euskararen “burokratizazioa” ematen da.

(D4): (...) gehiago egiten euskaraz, jaiak datozela eta, txoznen antolaketarekin eta festa komisiorekin... eta gauza burokratikoetan gehiago jotzen dugu euskarara. Adibidez whatsapp-ean daukagu egunerokotasuneko taldea, eta gero beste bat daukagu, bakarrik bilerak antolatzeko, nola doa hau edo bestea... eta hor dena egiten dugu euskaraz, baina egunerokotasunean ez.

Badira hainbat lagunarte euskara hizkuntza dutenak. Baina haien bizipenetik, oso barneratua dute euskara mugatua dagoela, bai behintzat hainbat momentutarako, batez ere, une informalenetarako:

(D6): (...) eta gero sentitzen zara, gazteleraz edukiko bazenitu bezala baliabide gehiago, egoera desberdinetan hizkuntza hori erabiltzeko. Nire bigarren hizkuntza da, eta benetan abaniko zabalagoa daukat berekin. Berez euskararekin izan beharko nukeen abaniko

hori gaztelerarekin daukat? Edo haserretzen banaiz, edo edozer gauzatarako, edo txisteak egiteko edo...

2.4.3. Gazteen hizkuntza praktikak: hizkuntzarekin "egiten" dutena

Ideologia galduetatik praktikara

Gazteen esparruan, hizkuntza ideologiaren arloa nahiko hustuta dagoela esan daiteke. Aurretik ere esana dago: ideia eta hausnarketa oso garatuak dituzten gazteak ere topatu ditugu, baina ez da zabalduen dagoen joera. Euskarari buruz, hizkuntzen ideologiaren inguruan, gutxi pentsatu da. Euskalgintzaz galdetuta ere, esan bezala, ez ziren gai eragile asko aipatzeko, eta horrek ematen du zer pentsatua.

Gaurko gazteek, euskararen arloan, ideologiatik edo ideien multzotik baino, praktikatik hitz egiten dute. Ez dituzte euskalgintzako eragileak ezagutuko, baina azpimarratzen dute ideietatik baino gehiago praktikatik eragin daitekeela: elkarrizketa batean, Gorka Urbizu aipatu dute; Berri Txarrakeko liderra. Elkarrizketatuen ustez, musika talde horrek eragina du Euskal Herrian, baita kanpoan ere, euskara balioan jartzen duelako. Herrira hurbilduz, Bixi-bixi elkarteak aipatzen dute, nahiz eta teoriarik ez den euskalgintzako eragile bat. Halere, ekintzen bitartez edo praktikatik euskararen bultzatzaile gisa ikusten dute. Xantixa elkarteak ere komunikazio guztia euskaraz egiten du; kartelak edo beste edozein ekimen euskara hutsean egiten dituzte. Horrek aldaketa ekarri du Pasai Donibanen, euskara talde berriei lotzen delako, gazteek osaturiko eta gazteentzako ekimenak egiten dituen taldearekin.

Kanpora begira euskara da hizkuntza, ikur hori erakutsi nahi da: euskara da haien hizkuntza publikoa. Baina espazio intimoagoetan, lagunartean, gaztelania erabiltzen da, oro har.

Elkarrizketatu batek ideologia horren indarrean sinistu, eta aukera bezala ikusten du, eta arraun taldean jarria du begirada. Arraunlariak herrian eragiten duten heinean, gazteagoentzat erreferente diren momentutik, jarrera aktiboagoa izan beharko lukete hainbat alorretan; esaterako, euskararen eremuan. Euskarak presentzia gehiago beharko luke, haren ustez, arraun elkarteetan. Badaude adibideak: liburutegia edo Badia antzerki eskola. Euskara lantzen eta lotzen dute beste eremu batzuetatik (ez zuzenean euskalgintzatik), eta hala, euskara zerbait transbertsala da, ideologiatik baino gehiago praktikatik mintzo da.

Praktikatik ere, erakusten dute hizkuntza batetik bestera aritzeko gaitasuna. Gazte askok ez dute hizkuntza bakarrik egunerokotasunean, eta oso modu errazean aldatzen dute batetik bestera, etxean, eskolan, lagunartean... baita lagun bat etorri eta elkarrizketaren hizkuntza aldatzean ere, etorri den lagunak gaztelaniarako joera duelako.

(D6): Hemen ohitura dago erderaz egiten badizute erdera egitea. Ahalko nuke guztiz guztiz euskaraz bizi, ziurrenik, baina egia da ohituragatik, batzuk hartu dute erabakia nahiz eta euskara jakin gazteleraz bizitzeko, ta egia esan, nahiko zaila da, askotan esaten den hori, nahiz eta besteak gazteleraz hitz egin zuk euskaraz erantzutea. Nahiko konplikatu izaten da, saiatzen naiz, baina nahi baino gehiago erabiltzen det gaztelera. Saiatzen naiz euskara erabiltzen. Gure aldetik askoz gehiago egin dezakegu...

Behin baino gehiagotan entzun dugu. Iritzi edo bizipenetan asko entzuten da beren jarrera aldatu beharko luketela, “politikoki zuzena” den hori egin. Gazte batek esan zigun moduan, “gaztelanizazioa” gertatzen ari da Pasai Donibanen, eta izan daiteke euskararen ideologia ahuldu delako, haren inguruko imajinarioa aldatu delako, (batez ere eskola eta formaltasunari lotua) edo, izan daiteke ere, Pasai Donibaneko identitatea “herri euskalduna” izaerari loturikoa, beste maila batera igaro delako.

Gazte kultura, praktika komunitatea eta euskara elkartzen direnean, aldaketa eta eraginkortasuna nabaritzen da, eta esan bezala, Xantixa horren adibide argia da, eta arraun elkarteak, berriz, potentzial izugarria du.

Haur eta gazteen artean arreta jartzea ondo dago, baina adin tartea zabaltzea ere garrantzitsu ikusten dute batzuek. 30-40 urte artekoetan ere arreta jarri, horiek ere eragiten dutelako ondorengoengan.

Familiatik “familiara”: aldaketa.

2.310 biztanle dituen herri honetan, familia “tradizionala” da nagusi, nuklearra: gurasoak eta seme-alabak. Nukleo horrek sortzen du bizitzako erdigunea askorentzat, baina bizitzan zehar aldatuz joan ohi da, baita haren baitako eraginetan ere. Bizitzako lehen urteetako gurasoen zaintza, babesa eta erreferentzia ezinbestekoa da, baina intentsitatez aldatzen da bizitzan zehar, eta gazte denboran gertatu ohi da, kasu askotan, bigarren zilbor hestearen mozketak.

Hizkuntza praktikan eragina du familiak, azken finean lehen hizkuntza etxean ikasten delako, gurasoekin ikasitakoa, kasu gehienetan. Lekuan lekuko lan guztian zehar, ia elkarrizketa guztietan, familia faktore garrantzitsu moduan agertu zaigu norbanakoaren hizkuntza praktikari dagokionez: familia eta eskola. Askotan gainera, determinantea balitz bezala esplikatzeko da: familiaren hizkuntza praktikak baldintzatuko du seme-alaben hizkuntza praktika. Oso barneratua dagoen ideia da hori, “mitifikatua” egoteraino.

Kontrara, gazteen praktikak aztertzean ikusi dugu mito hori nola erortzen den. Etxe askotan, hizkuntza ohitura bat izan arren, kalean bestelakoa izan daiteke, eta hori norabide desberdinetan gertatzen da. Badaude kasuak etxean gaztelania hizkuntza izan eta kalean gazte horrek euskara gehiago erabiltzea, edo etxean gurasoetako batek ez jakitea euskara, baina seme-alaba euskaraz aritzea lagunartean. Beste aldetik ere, badaude kasuak, eta ez gutxi, etxeko hizkuntza euskara izan eta kalean gaztelania erabiltzen dutenena.

(D6): Nahiz eta zortzi abizen euskaldunak ez eduki, etxean betidanik euskara jaso det. Aita familia euskaldunetik dator, ama erdaldunetik baino amak karrera eta egin zuenerako euskaraz bazekin, eta ordun bizitza euskaraz egiteko erabakia hartu zun, nahiz eta bere familia erdaldunai izan, bere familiako inork ez zekien euskaraz. Berak erabaki hori hartu zun. Ni gogoratzen naiz nire aitona hil zela 6 urte nituenean, eta nik nire aitonarekin ez det inoiz hitz egin: ze nik gazteleraz ez nekin, eta berak euskaraz ez zekin.

Aitonak ez jakitetik, bilobak euskara lehen hizkuntza izateraino. Azken hamarkadetan gertatu den fenomeno da, baina bestelako istorioak ere entzun ditugu.

(D2): Nire amona Galiziatik etorri zan aspaldi, eta euskara hutsean egiten zun. Euskara ikasi zun Donibanen. Hori da bazekitelako. Lehen zaharren artean bai erabiltzen zan gehiago euskera baino, jendea zahartzen joan den neurrian, jun dala uste det... Ni gogoratzen naiz, ni txikia nintzenean, nire aiton-amonek dena beraien artean euskaraz egiten zuten. Nik uste hori galtzen joan dela.

Ezin uka familiaren eragina garrantzitsua dela, baina determinantea izatea mito hutsa da gaur egun. Ideia hori azpimarratu nahiko genuke Pasai Donibaneko kasua ezagututa: familiak eragina du, baina ez erabatekoa. Hizkuntza praktikak aldatzen dira zuhaitz genealogikoetan.

Eta Pasai Donibaneko familietako hizkuntzaren zuhaitz genealogikoan barneratuko bagina, hizkuntza aldaketak topatzeaz gain, euskararen baitako aldaketak ere gertatu direla ikusiko genuke. Herri guztietan aldatzen da euskara, hizkuntzak bizidunak direlako, eta etengabeko mudantzan daudelako. Baina Pasai Donibaneko kasua aipagarria da, hamarkada gutxitan bertako euskara nabarmen aldatu delako. Hitz, esatera eta hitz egiteko modu propioa izatetik euskara batura saltoa egin du. Gazteek askotan aipatu dute hori; alegia, egun euskara formala dutela: “amonak euskalkia du, nere amonak hika hitz egiten du, ta nere amak ez dauka euskalkirik eta ez dauka hikarik. Zer esanik ez nik”.

Hizkuntza aldaketak gerta daitezke, adibidez, transmisioa ez delako gertatzen, edo transmisioaren eragina murrizta delako. Azken finean, iturria ez da bakarra, eta hainbat norabidetako transmisioak egiten dira, bai goitik beherakoak, bai behetik gorakoak, baita familiatik kanpoko eremuetan ere. Ikerketa honetan familiaren kontzeptu zabalago batekin egin dugu topo. Herri bakoitzean espazio zehatz bat ikertu dugu, eta Pasai Donibanen duen garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboagatik arraun elkarreko taldetxo batekin egon gara.

Arraun elkarteko familia

Berriketan egon gara gazte arraunlariekin, eta “familia” bezala deskribatu digute taldea. Askotan umetatik hasten dira bertan, eta, urteak pasata ere, bertan jarraitzen dute, zenbaitetan talde berdinean. Horrek esan nahi du ia egunero elkartzea; izan ere, astean sei egunetan entrenatzen dute, larunbatak eta igandeak barne. Entrenamenduak gainera luzeak izan ohi dira: “badakizu noiz sartzen zaren, baina ez dakizu noiz aterako zaren”. Hori dela eta, elkarrekin ordu asko igarotzen dituzte, eta denborak nahiz bizipenek taldea sortzen dute, kasu honetan kuadrillaren pisutik haratagoko kuadrilla edo taldea indartuz: “ni gehio egoten naiz arraunekoekin nere kuadrillarekin baino”. Hainbat kuadrillatako parte hartzaileek euren taldea sortuko dute, arrauneko kuadrilla. Arraun talde guztiek eta adin askotako jendeak elkarreko taldea sortuko dute, arraunak elkartuta.

Taldea sortzen da, gainera kirola bera ere oso taldekakoa da, talde izaera duena: arraun egiten da taldean, denak aurrera egiteko uretan. Egunero egoteak astero ordu asko egotea esan nahi du; kasu askotan, arraunlariak gehiago egoten dira elkarrekin, familiako kideekin baino. Askok lan edo ikasi egiten dute, eta arratsaldean entrenatu: korrika, gimnasioa... eta arraunean egin. Arrauna egitean, txapelketan parte hartzean, momentu asko elkarrekin bizitzea da: momentu on asko, baita txarrak ere. Harremanek berebiziko protagonismoa dute, eta haiek ere horretan jartzen dute arreta, kontziente dira horretaz: “gure ekipoan giro ona daukagu, bai, ta gero dena

kontatzen gea. Gaizki baldin badago, badaki berarekin egongo garela” (D7). Gogorra delako, gorabeherak sortuz, eta norbaiten beheraldiak besteengan eragin dezake, bai arraunean bai gogo aldarlean.

Eta tarteka garaipenak egoten dira: “emozionatu egiten zara eta adrenalina hori igo egiten da”. Herriak ospatuko du. Erritua martxan jartzen da: arraun elkartera bandera eraman, eta musikariekin batera kalejira egin herrian zehar, herriko erdigunean, plazan, balkoitik garaipena ospatzeko. “San Juanen da oso famatua bezala. Herriak bultatzen zaitu ere bai, herriarengatik ere bai egiten duzu” (D8). Motibazioa eta ilusioa pizten dira.

Familia berri bat sortzen da, eta hor pasatzen dituzte ordu gehienak, “odol bereko” senideekin baino ordu gehiago igarotzen dituzten arrauneko kideekin. Baterak sakrifikatzen dira, elkarrekin bizi beheraldiak, edo irabaztearen ospakizuna eta aparraldia. Arraunetik kanpo ere, askotan ibiltzen dira elkarrekin. Horregatik diote beraiantzat arrauna “familia” dela, kanpotik “sekta” bezala ere ikusten den hori.

Gazte kulturak elkartzeko dira bertan; komunitatea osatzen dute. Kasu batzuetan euskara izango dute taldeko hizkuntza, eta beste batzuetan, gaztelania. Baina “famiak” eragingo du hizkuntza praktikan, arrauneko famiak.

Praktikaren deserosotasuna

Arraun elkarrean gaztelania eta euskara entzun daitezke arraunlarien artean. Deigarri egiten da itsasoan patroiarri “un, dos, tres...” esaten entzutea. Adibide hori errepikatzen dugu, behin baino gehiagotan esan digutelako eta guk ere ikusi dugulako. Deserosotasuna sor dezake arraunlari batzuen artean, baina normala ere izan daiteke askorentzat. Gainera, pentsa daiteke goitik behera gertatzen dela eragina, entrenatzailetik arraunlarietara. Gerta daiteke. Baina arraunlariak ere eragiten omen dute, eta entrenatzaileak euskaraz egiteko ohitura izanda ere, arraunlari gazteek gaztelaniaren erabilera ezar dezakete.

Deserosotasuna herriko ikurrak diren euskara eta arrauna elkarren kontraesanean dabilzanean, hala bizi du hainbatek. Deserosotasuna sortzen da ere, bestelakoa, euskararen gaia arraun elkartera eramaten denean, eta sentipena “behartze” horrekin izatean. Baiezkoa erabakiko da, baina ez du eraginik izango, ez du funtzionatuko, ideologiatik egingo delako praktikatik baino.

Deserosotasun hori sumatzen da Pasai Donibanen orokorrean: “euskaraz egin beharko genuke”. Batzuen artean. Beste asko eroso daude gaztelanian. Gazte asko gaztelania dute beren hizkuntza, euskaraz ikasi badute ere, euskara ahazten ari bazaie ere. Baina nabari da Pasai Donibanen euskararen inguruko ideien eta praktikaren artean sortzen den talkaren deserosotasuna.

Euskara ez bada ere kalean gehien entzuten den hizkuntza, errespetuzko hizkuntza da, bertakoa. Eta deserosotasuna sentitu dute beste errealitate soziolinguistikoetan, euskara beste modu batera bizi denetan:

(D5): Ni Bilbora iritsi nintzenean eduki nuen sentsazio bortitzenetako izan zan, jo, Donostin toki askotan ez dute euskaraz jakingo, baino orokorrean, eta beti el que no, orokorrean ez naute sentitzen

"¿adonde vas hablando euskera?". Ni iritsi nintzen Bilbora, eta zerbait txarra egiten ariko banintz bezala.

Nerabezaroko gaztelania fasea

Deserosoa da halako jarrera sentitzea zure hizkuntzarekiko. Hala ere, norberaren hizkuntza aldatu egiten da. Bizitzaren zenbait fasetan hizkuntza aldaketak gertatzen dira. Norbanakoaren baitakoa da noski, baina Pasai Donibanen nabaritzen da ohikoa dela bizitzako fase batzuk taldeka igarotzea.

Hurtzaroa, oro har, euskaraz da Pasai Donibanen, salbuespenak salbuespen. Ikerketa batzuen arabera, helduek haurrei euskaraz hitz egiten diete. Lehen Hezkuntza garaian, ordea, barruti guztietako haurrak nahastu egiten dituzte ikasgelan, eta horrek errealitateen aniztasuna dakar, baita hizkuntzena ere:

(D3): Nik nabaritu nun pila bat hirugarren mailara pasatzean. Zeren orduan nahasten dizute gelaz Ikastolan. Eta nahasten zea Trintxerpe eta San Pedroko jendeakin, eta Antxoko jendeakin. Egiten dizute un pupurri de gela, eta ikusten dezu dagoela dibertsitate gehiago, eta jende gehiagok hitz egiten duela gaztelera. "Ah, eta zein ondo erortzen zaiten hau, baino gaztelera hitz egiten du, or-dun, yo también".

Lehen aldaketa da. Agian oraindik ez da hizkuntza erabat aldatuko, ordea. Elkarrizketatu batek kontatu zigun —kaletik gindoazela—, parke batean hainbat adinetako gazteak biltzen direla. Gazteenak (12 urte) euskaraz mintzo dira, besteak (17 urte) gaztelaniaz. Nerabezaroko hizkuntza aldatzeko fasea izan ohi da, eta hori nabarmena da Pasai Donibanen. Nerabezarokoan "umeegia zara tabernara joateko, eta helduegia parkean egoteko", informazio emaile batek dioten bezala, aldaketen garaia da. Heldu izan nahi horretan eredu global asko erdaldunak dira, eta lokalak ere gaztelaniaz mintzo dira herrian. Esperimentazio garaia da, tabakoa probatzeko, esaterako. Herrian badaude bi txoko, non tabakoa erretzen hasten diren. Hainbat belaunaldi pasatu dira hortik, eta han elkarrizketatuek diote beti gaztelaniaz hitz egiten dela. Hizkuntza aldaketa burutu da.

Transgresio garaia da batzuentzat, arauak haustekoarena. Ez erretzea araua da, euskaraz hitz egitea ere bai: norma. Hala bizi du elkarrizketatu (heldu) batek ere:

(D2): Gaztelera guay da, eta bestea da irakasleen araua... eta guk hemen, eskolan daukagu "Euskara Taldea" (guraso elkarteko euskara taldea), dena euskararen aldeko taldea, eta egiten ditugu tailerrak eta... Donibane eta Lezoko gurasoak gaude, elkartzen gara eta batek esaten zuen, eske nere semeak gorroto edo... agian ez da hori hitza, baina euskara dela... ez dela ondo pasatzeko hizkuntza, baizik eta behartutakoa.

Nerabezaroko fase horretan hizkuntza aldaketa burutzen da. Askotan ez dago itzulerririk, betirako izango da. Batzuetan errehabilitazio fasea egongo da, euskararena hurbiltzeko, hainbat urtetako distantzia ondorengo batzeko nahia. Hausnarketa hau jaso genuen elkarrizketa batean:

(D6): ta gero ere bai egia da momentu hortan, gazte hizkerarako tresnarik edo baliabiderik jaso ez dugunez, gazte hizkera euskara izateari uztea. Euskaraz modu gazte batean hitz egin ezin dezakenez, pues, zuzenean pasatzen naiz gaztelerara, badakala gazte rolo hori.

(D5): eske dauka rolo, ez dakit hitza justu zein dan. Igual 20 urterekin 20 piko urterekin, ez duzu hainbesteko beharra. Gero ya gutxitzen da.

(D6): baina badago momentu tonto bat, edo ez dakit nola esan, behar dezuna zure helburuentzako rolo hori eduki hitz egiterakoan, eta euskarak ematen ez badizu, zuzenean gaztelerara pasatzen zara, badakizu gaztelerak badaukala.

Beraien ustez euskarak galdu du hizkuntzaren bizitasun hori. Oraindik, ordea, bizirik dago.

3. HIZKUNTZA BIZIPENAK. EUSKARA NAIZ, EUSKARA DAUKAT, EUSKARAZ ARI NAIZ

Azken atal honetan, pausu bat aurrera ematen saiatu gara. Euskararekin lotutako ideiak eta ideologiak (iritziak, aurreiritziak, pentsamenduak, argudioak, arrazoiak) jaso eta aztertu ondoren, euskararekin lotutako praktika zehatzak (euskararekin egiten dutena, non, noiz eta zeinekin egiten duten) ikertu eta gero, hiztun gazteen bizipenetan murgildu nahi izan dugu. Helburua, norbanakoak euskararekin duen loturaz gogoeta egitea izan da. Lotura sentitzen dut, bai ala ez? Nolako da lotura hori? Zer osagai ditu? Nola sentitzen naiz lotura horrekin? Beste hitz batzuekin ere esan daiteke: euskarak norbanakoaren egunerokoan, bizimoduan eta sentimenduetan duen tokiaz eta zentzuaz galdetu zaie gazteei. Beti, bakoitzaren bizipen eta sentipenetatik.

Gogoeta bideratzeko, eguneroko bat diseinatu genuen. Hori oinarri hartuta, astebe-
tez, egunez egun betetzeko eta ikerlari bati bidaltzeko eskatu zitzaizen gazteei. Ida-
tzizko kontakizunak zein ahozkoak onartu ziren, eta gehienek bigarren aukera hori
lehenetsi zuten¹⁶. Eranskinean atxikita dagoen gidoian ikus daitezkeen moduan, egu-
nerokoak bi zati zituen. Lehenengoan, gazte bakoitzak bere burua, bere testuingurua
eta bere hizkuntza profila aurkeztu zituen. Helburua zen gaztearen profila eta haren
testuingurua hobeto ezagutzea. Zati hau ariketaren lehenengo egunean bakarrik
erantzun behar zuten. Bigarren zatia egunerokoaren muina zen, eta, bertan, gazteek
azaldu behar zituzten egun bakoitzean euskararekin lotutako pasadizo, egoera, emo-
zio, sentimendu eta hausnarketak.

Oro har, ariketa mamitsua izan dela uste dugu. Batzuetan, aurkitu dugun informazi-
oaren interesagatik; beste batzuetan, egunerokoetan agerian geratu diren hutsune-
engatik. Gazte batzuk gogotsu aritu dira ariketa egiten; beste batzuei asko kostatu
zaie egunerokoa betetzea eta astebeteko konpromisoa amaieraraino eramatea. Bi
egoera horietatik ikasi dugu; bi egoerek informazioa eman digutela uste dugu. Ba-
tzuei gaia erakargarria egin zaie eta gogoeta sakonak, adibideak eta pasadizo de-
zente kontatu dituzte. Beste batzuek hitz edo esaldi solteekin erantzun diete plante-
atutako galderei. Kasu batean zein bestean, aztergaia eta bete beharreko gidoia ber-
dinak zen. Alde horiek, berez, adierazgarriak iruditzen zaizkigu, kontuan hartu beha-
rrekoak.

Horrekin lotuta, beste gogoeta pare bat gehitu nahiko genituzke proposatutako tek-
nikaren inguruan.

Lehenengoz, nabarmendu nahi dugu teknika baliagarria ikusten dugula. Batetik, une
bateko gogoeta izan ordez, astebeteko lagina lortzen dugulako. Horrek hainbat ego-
era eta pasadizo eskuratzeko parada ematen du, aste barruko zein asteburuko dina-
mikekin lotuta. Era berean, zazpi eguneko tarte horretan hiztunak dituen harremanen
erradiografia egiteko aukera ematen digu. Azkenik, pertsonaren praktiken bilduma
islatzen du egunerokoak, praktika bakoitzarekin lotutako guneak eta hartu-emanak

¹⁶ Denera, 9 eguneroko egin dira ikerketan zehar, eta batek bakarrik erabaki zuen idatziz bidaltzea.

irudikatzen bidea eman. Horrela, modu laburrean bada ere, hiztunaren errutina-
ren zirriborroa lortzen dugulakoan gaude. Zirriborro horrek, hain zuzen ere, aukera
ematen digu hizkuntza bizipenak azalertzeko; izan ere, norberak hizkuntzarekiko
dituen sentimenduak egunerokoan suertatutako egoerekin lotzeko aukera du. Ho-
rrela, maila diskurtsiboan erabiltzen diren ideiak edo leloak bizitakoarekin lot dai-
tezke.

Bigarrenez, teknikak eskaintzen dituen aukerekin batera, zailtasunak ere aipatu nahi
ditugu. Kasu honetan, izandako esperientzia oinarri hartuta, bi aspektu nabarmendu
nahi genituzke. Batetik, gazteak aurkitzeko izan ditugun zailtasunak. Ate asko jo di-
tugu egunerokoa egiteko prest zeuden gazteak aurkitzeko. Askotan ezezkoa jaso
dugu. Denbora falta, batetik, eta gogo falta, bestetik, izan dira ezetz esatean gehien
aipatu diren arrazoiak. Helduen moduan, gazteek ere agenda beteta dute, eta egu-
nerokoa aurrera eramatea lan karga gisa irudikatzen zuten batzuek. Gaiarekiko ja-
rrera apala azpimarratuko genuke ere. Egunerokoan landu beharreko gaia zein zen
azalduta, askok ez zuten interes berezirik adierazi eta gonbidapena ez onartzea era-
baki zuten. Hainbatetan, egunerokoa egiteko prest zeuden galdetu eta erantzunik
ere ez genuen jaso, isiltasuna ez bazen.

Hasierako asmoa egunerokoa hainbat profiletako gazteek betetzea bazen ere, den-
borak aurrera egin ahala aurreikuspenak egokitu behar izan genituen. Halere, puntu
honetan esan nahi dugu lagin aberatsa lortu dugula eta espero genuena baino aniz-
tasun handiagoa topatu dugula. Horrek emaitza politak lortu izanaren inpresioa utzi
digu. Edozein kasutan, eta etorkizunari begira, iruditzen zaigu garrantzitsua dela
gazteekin kontaktatzeko egin beharreko lanaren inguruan gogoeta egitea. Ziur aski,
ikerlarien bidez baino, egokiagoa litzateke beste gazte batzuen bitartez bideratzea
egin behar hori. Alegia, iruditzen zaigu emankorragoa izan daitekeela pertsona batek
bere herrian eduki dezakeen sareaz baliatzea; hau da, harremanak herriko gazte
bateg (edo batzuek) zuzenean egitea, ikerlari ezezagun batek egin ordez.

Teknikaren gaineko oinarrizko azalpen hau eginda, egunerokoetan jasotako mamiaz
aritutako gara jarraian. Analisia egiteko orduan, jaso ditugun 9 egunerokoak hartu di-
tugu kontuan. Ondoren ikusiko den moduan, euskararekiko bizipenak hiru multzotan
sailkatu edo bereizi ditugu. Bakoitzean, euskararekin lotutako harreman mota bat
irudikatzen da. Kasu honetan, bizitokia ez dugu aldagai gisa kontuan hartu. Aztergai
izan ditugun herrietako gazteen egunerokoak batera landu ditugu, eta, analisia egin
ondoren, goian aipatutako hiru multzoak irudikatu ditugu. Halere, profil horietako
bakoitza azaldu aurretik, esan behar da proposatutako ariketan parte hartu duten
gazteek ezaugarri asko partekatzen dituztela.

Ia gazte guztiak ikasleak dira. Unibertsitatean edo Lanbide Heziketan ari dira. Hori-
etako batzuk, ikasteaz gainera, lanean ere ari dira, tabernaren batean edo aisialdia
alorrean, gehienetan haurren munduarekin lotutako zeregin batean. Gazte langile
bakarra dugu laginean. Hau ere haur eta gazteekin ari da lanean.

Denak familiarekin bizi dira: gurasoekin eta anai-arrebekin¹⁷. Eta familia da, hain
zuzen ere, euren bizitzako zutabe nagusienetarikoa. Hala diote, behintzat. Familiatz

¹⁷ Salbuespena dira herritik kanpo ikasten ari direnak. Astegunak beste herri/hiri batean igarotzen
dituzte, eta asteburuan familiaren etxera itzultzen dira.

aparte, lagunak dira protagonistak euren bizitzan eta egunerokotasunean. Bai "betiko" lagunak, kuadrillakoak; bai beste alor batzuetan ezagututakoak. Kasu horretan, unibertsitatea eta kirola dira lagun berriak egiteko aukera ematen duten alor aipatu-enak. Horiez gainera, sarritan beste pertsona batzuekin elkartzeko ohitura nabarmentzen da: izan familiako beste kide batzuk (aitona-amonak; izeba-osabak edo lehengusuak) izan ikaskide ohiak, edo herriko jende ezaguna. Bisitak, bazkariak edo afariak, edo jaiak izan daitezke bilkura horietarako aitzakiak.

Egunaren zati handiena ikasten igarotzen dute gure gazteek. Kirolak ere pisu handia du egunerokotasunean, eta bai bakarka (korrika egin) zein taldeka (kirol talde batean edo lagunekin mendian), askotan aritzen dira jarduera fisiko baten bueltan. Esana dago, lagunekin elkartzea dute bereziki gogoko, eta hori egiten dute sarritan, bai astean zehar bai asteburuetan. Paseatu, pipak jan, zerbait hartu, zinemara joan, afaldu, bazkaldu, parranda... egiten dute. Familiarekin otorduak egiten dituzte, eta batzuetan bestelako planak ere bai: adibidez, erosketak egitea. Bakarka, zenbait gauza egitea dute gustuko: atsedean hartu, siesta egin, irakurri, bideoak egin, pelikulak edo serieak ikusi, musika entzun, eta abar. Eta taldeka zein bakarka: bidaiatu, mendira edo hondartzara joan.

Oinarrizko argazkia osatuta, jarrai dezagun orain gazte hauen bizipenen azterketa-rekin.

3.1. EUSKARA, "NI"-AREN PARTE

Anek¹⁸ dio: "hizkuntza, euskara, ez da hizkuntza bat bakarrik. Izateko era bat ere bada. Eta lotura du Euskal Herriarekin, kulturarekin, tradizioarekin, lagunekin, pen-tsamendu batekin, guztiarekin... Hizkuntzak alor asko ukitzen ditu."

"Euskara nirekin datorrela esango nuke, gaztelania ondoan eta ingelesa urruti, ze kostata egiten dut". Horrela deskribatzen du Naroak ezagutzen dituen hizkuntzekin duen harremana. Eta hizkuntzak bereganatu eta baztertu egin daitezkeela erakusten digu ere: "ingelesa ikasi dut ikastolan, eta egia esan hortxe geratu da".

Julenek euskara ama hizkuntza du. Beti ikasi du euskaraz, aurtengo ikasgai batzuk izan ezik. Baina, gehitzen du: "tamalez, gero eta gutxiago hitz egiten dut euskaraz, nire kuadrillako askok ez dakitelako eta klaseko asko ere ez direlako eroso sentitzen". Halere, Julenek dio: "sentitzen dut euskara nire hizkuntza dela". Berarentzat, euskara eta hurbiltasuna sinonimoak dira. Hurbila sentitzen duena euskaraz izan ohi da; eta euskaraz bada, dena hurbilagoa sentitzen duela dio. Baina ekuazio hori beti ez omen da posible. Baditu hurbileko lagunak euskaraz egiten ez dutenak edo egin nahi ez dutenak:

Gaur, ia ostiralero bezala, lagun batekin Sopelara joan naiz, kostan kafe bat hartzera. Oso harreman estua dut lagun honekin, baina berekin gazteleraz hitz egiten dut beti. Askotan ahalegindu naiz berekin euskaraz hitz egiten baina beti esan izan dit gazteleraz

¹⁸ Atal honetan, nahiago izan dugu kodeen ordez izenak erabili. Halere, izenak asmatuak direla nabarmendu nahi dugu, gazteen anonimotasuna gordetzeko.

nahiago duela, ez baita euskeraz eroso sentitzen. Askotan izan ditugu horren inguruko elkarrizketak baina azkenean gure harremana ez okertzeko gazteleraz hitz egitea erabaki genuen. Bere kausa bitxia da, izan ere, ezkertiar independentista da, baina euskeraren inguruan hitz egiten dugunean, argumentu atzerakoiak erabiltzen ditu beti. Gainera, hau nire kuadrillan askorengan ematen den patroia da.

Baina, bestelako egoera batzuk ezagutzen ditu: euskarari eusten dioten institutuko lagunak daude, adibidez.

Arratsaldean, institutuko lagun batekin kafe bat hartzeko gelditu naiz. Norarekin beti erabiltzen dut euskara, berak ia denekin hitz egiten baitu euskeraz, beraz behar bada bere meritua izango da, nirea baino.

Eta txikitako lagunak, poztu direnak txikitako hizkuntz ohiturak aldatzeko gai izan direlako:

Arratsaldean liburutegira joan naiz lan bat egitera. Bertan kuadrillako lagun batekin topatu naiz. Hau, txikitako laguna da ere, baina orain dela gitxi hasi gara euskera gure artean erabiltzen. Nahiz eta hasieran arraroa agin, azkenean ohitu eta gero eta euskera gehiago erabiltzen hasi gara, baita gaur ere. Berak ere askotan esan du euskeraz egitean poztu egiten dela.

Joan-etorri bat da euskara, toki, egoera edo pertsonen arabera. Horrela bizi dute gazteek:

Klaseko afaria izan dugu. Gure taldean batez ere bilboko lagunak daude eta hauekin batera bilboko diskoteka batean pasatu dugu gaba. Harreman ia denak gazteleraz izan dira. Izan ere, lagun horiek, nahiz eta ikastolako ikasleak izan eta gradua euskeraz ikasi, haien bizitza gazteleraz egiten dute eta eguneroko harremanetan ez dira euskeraz eroso sentitzen. Diskotekako giroak gainera, ez du laguntzen. Nik, beraz, gaba gehiena gazteleraz hitz egiten pasatu dut.

Gero ere bai, nere kuadrillan dago neska bat (...) etorri zan herrira bizitzera ez dakit, 14 urterekin edo hola. Euskaraz perfekto daki, perfekto ulertzen du, eta erderaz egiten du. Guk orokorrean, berai hitz egiten diogunean euskaraz egiten diogu, baina askok erderaz, ez? Ta nola euskaraz dakiten pertsonen nola... jo ba beraiek hartu dute erabakia ez hitz egitea euskaraz ez dutelako ondo menperatzen, edo segurtasun falta, edo sinplemente ez dutelako nahi, baina zeba guk aldatzen dugun gure hizkuntza beraiengatik, batzuetan nahi gabe izaten da, bestetan konsziente baina azkenean pena bat da. Beti esaten dana: ez dala hizkuntza bat galtzen ez dakitenek ez erabiltzeagatik, baizik eta dakitenek ez erabiltzeagatik. Beraiena baina baita gurea ere, zergatik ez diegun inzitatzan erabiltzera. Atzo pixka bat bronka bota nion onea, beraiena baina baita gure rola.

Gaur egun, sare sozialak dira mugikortasunaren sinonimo. Mugikortasun birtuala bada ere. Eta sare horietan, zein hizkuntza? Gehienetan, gaztelaniaz, edo gehienez bietara (euskara eta gaztelera) eta, tarteka (gero eta gehiagotan) ingelesez.

Jonek dio euskaraz aritzen dela normalean. Are gehiago, gehienetan bere lehenengo hitza euskaraz izaten dela... Halere, badira salbuespenak: nazioarteko enpresa baten testuinguruan (Zaran erosketak egitean, MacDonals-en afaltzean, eta abar) edo etorkin baten aurrean, gaztelaniara jotzen du.

Egoeraren arabera konektatzen eta deskonektatzen ikasi dute gazteek. Gatazka edo deserosotasuna sentitu bezain pronto, hizkuntza aldatzen dute: euskaratik gaztelaniara. Aurpegi txarrek edo arraroek, begiradek... alerta egoera pizten dute. Hizkuntza egoerak kudeatzen ikasi dute.

Gabaz, kuadrillarekin taberna batean afaldu eta trago batzuk hartu ditugu herritik. Ostiralean azaldu nuen moduan, gaur ere taldeko elkarrizketa guztiak gaztelera izan dira eta gutxiarekin erabili dut euskara, eta hau batez ere, gure arteko aginduak emateko orduan izan da. Gainera, euskaraz hasi dugun elkarrizketa batean, ondo menperatzen ez duten batzuek deskonektatu eta aurpegi "arraroa" jarri dutela igerri dut. Baina hau ere, aurrekoan azaldu nuen inseguritatean kokatuko nuke.

Toki, leku edo egoeraren arabera bakarrik ez, bizitzan zehar igarotako garai ezberdinetan ere gertatu dira aldaketak eta mudantzak.

Ia guztiek aipatu dute nerabezaroan izandako bolada "arraroa". Beste bizipen moten artean, askok hizkuntzarekin dute lotura. Jonen arabera, "bada momentu bat bizitzan non 'guay'-ago sentitzen zaren gaztelaniaz dakizulako. Hortik denok pasa gara, denok pasatzen gara".

Garai hori atzean utzi dutelakoan daude, baina, orain, historia ingurukoekin errepikatzen dela konturatzen dira, eta kezka, arduraz edo amorrus bizi dute:

(...) gero eta gehiago entzuten da, beno ez dakit gehio, baina umetan eta ez, pertsona guaya sentitzen direla, osea umiak dia, no tienen ni idea baino, erderaz egiten due, eta gero igual edadeakin, gero igual euskaraz hitz eitten due, asko entzuten da halako guayetan, ez dakit, porruak eta horrela erretzen dituen jendea, no sé si me explico, ez dakit nola esan, baina da asoziazio bat buruak egiten duena „soy guay“, asoziazio inkorretoa esan genezake, ez-zuzena, eta horregatik erderaz egiten dute. Zeba? Ez dakit, guayago sentitzen direlako. Baino gero nerekin hitz egiten due, eta nerekin euskaraz iten due. Simplemente haien artean komunikatzeko modua bezala, ere bai izango du zerikusia etxeran erderaz egingo dutelako, baina ez beti eh? Eta hori da nere reflexioa, pena ematen dit egia esan, baina orokorrean euskalduna gara gehiengoa, euskaraz egiten dugu asi ke, edade tontoa badakizu... ke txapa.

"Hizkuntza ni naiz, nirekin doa", horrelakoak esan dizkigute gazte batzuek. Eta horregatik, hizkuntzarekiko harremanetan eboluzio bat egon dela aitortzen dute gehienek. Jonek, adibidez:

Nik esango nuke hizkuntza aldetik... bai egon dela garapen bat, baita hizkuntzari balioa emateko garaian. Garapena, inguruko influentziagatik ere bai... hau da, hizkuntzari garrantzia ematea ez zait pasa niri bakarrik burutik, ingurutik ere jaso dut. Zentzu honetan bai esango nuke garapen bat egon dela.

3.2. BIZI NAIZENAREN PARTE

Paula eskertuta dago. Gaztelania da bere lehen hizkuntza, baina ikastolan euskara erakutsi zioten:

Yo no fui a la ikastola sabiendo euskera y mi familia no lo sabe, por tanto, a mi en la ikastola me lo enseñaron desde cero todo el profesorado que he tenido. Entré a la ikastola sin saber nada y salí sabiéndolo todo, además lo utilizo bastante y me ha abierto muchos caminos.

Aurreko atalean landutako bizipenekin alderatuta, ikus daiteke Paularen kasuan euskara ez dela “ni” baten parte, “gu” baten parte baizik. Euskara zerekin lotzen duen galdetuta, hauxe erantzuten du: “pues con nuestra cultura, con nuestra historia, nuestro territorio y nuestra identidad.”

Hizkuntza paisaian ikusten du, Gernika bezalako herri batean, adibidez. Bertan bisitan zegoela, jatetxe batera joan zen bazkaltzera eta horrek eman zion aukera euskara bizitzeko edo euskaraz bizitzeko:

(...) he ido a comer a un restaurante de Gernika y para hablar con los camareros he hablado en euskera y era un restaurante que estaba dentro de un caserío antiguo reformado, tenía decoración vasca también”. Eta tokiak, egoerak, euskaraz egitera bultzatzen du: “En el restaurante mencionado, he hablado con los camareros, para pedir la comida y después la cuenta. Todo el trato en el restaurante ha sido en euskera.

Jai eta ospakizunetan ere hautematen du euskara.

Hoy ha sido el día de Santo Tomás y he pasado todo el día y gran parte de la noche en Bilbo y sí me he sentido euskalduna porque es una fiesta euskalduna y he estado con mis amigos inmersa en un ambiente muy vasco, donde hemos bebido sidra, comido talo y escuchado y bailado canciones euskaldunas.

Testuinguru horietan, euskara bizi egiten da eta horrek bidea ematen du gehiago erabiltzeko:

Hoy sí he hablado bastante euskera porque ha sido el día de Santo Tomás y en gran parte del día y en cuantiosos momentos he hablado en euskera con mis amigos, para pedir en los puestos sidra y talo, para hablar con gente que he conocido este mismo día,...

Patriciaren kasuan ere, gaztelania du lehen hizkuntza. Kanpotik etorri zen Euskal Herrira, umetan. Prozesu luzea izan zen:

Luego el euskera, que también lo sé, que lo aprendí cuando vine aquí, tenía clases particulares dentro del cole, y me sacaban de clase y me llevaban a una salita y allí me explicaban las cosas, todos los verbos y todas estas cosas. Y luego por parte del Gobierno Vasco me daban clases de 2 horas 3 veces a la semana, esto fue hasta DBH 2 más o menos, y así fui aprendiendo un poco el euskera. Luego lógicamente escuchando mucho, y mis amigos casi siempre me han solido hablar euskera, es verdad que al principio me hablaban castellano pero luego cuando vieron que entendía un poco más, ya se soltaban y me hablaban más en euskera. Pues eso, escuchándolo y con clases particulares.

Gaztelaniak, euskarak eta ingelesak dute toki bat bere bizipenetan, baina hizkuntza bakoitzarekin duen loturaz galdetuta, Patriciak argi bereizten ditu bere sentimenduak:

Yo siento que mi idioma es el castellano, y el euskera me gusta mucho, o sea, me parece un idioma muy bonito, y pues eso, no sé si es por falta de seguridad o lo que sea, paso de hablarlo. Y con el inglés pues nada, y pienso que es un idioma muy común, y al final nos vemos un poco como obligados a aprenderlo, más que nada por eso.

Euskara Euskal Herriko kulturarekin lotzen du: “lo relaciono mucho con la cultura que hay en el País Vasco”. Kultura eta ohiturak dira, berarentzat, hizkuntzaren sinonimoak: “También está relacionado con la cultura que tenéis, y que al final vas aprendiendo con el idioma diferentes costumbres. Y eso es una cosa que me gusta mucho”.

Patriciari polita iruditzen zaio euskara, eta berriro, kulturarekin lotzen du: “me parece un idioma muy bonito, luego la cultura y así me gusta mucho”. Eta interes horrek zer pentsatu ematen dio: “igual sí que debería dar ese paso e igual intentarlo”.

Bere kasuan ere, euskararekin duen harremana prozesu baten ondorio da, garapen bat gertatu da, baina nonbait, amaitu gabeko zerbait bezala bizi du:

Ha ido a más el aprenderlo, primero en las clases, lo primero que aprendí fue a escribirlo, entenderlo un poco, más o menos en DBH 1 o DBH 2 lo empecé a entender, y luego ya empecé a escribirlo, a hacer los exámenes en euskera, y luego me queda hablar fluidamente. Y sinceramente no creo que no sea porque no sepa, sino porque me siento insegura, con un poco de vergüenza, luego también igual es la costumbre de que no lo he hecho desde que vine, y luego al final pues eso es lo que me ha fallado.

Inguruan du euskara, oso gertu. Lagunek erraz eta maiz egiten dute, baina badago muga moduko bat, deserosotasun bat ere.

(...) no me incómoda para nada que me hablen euskera, pero suelo responder en castellano, pero si es una frase corta en euskera. E igual la facilidad que se contagia el seguir hablando en castellano, igual yo respondo y cómo que se contagia y el grupo igual empieza a hablar en castellano. (...) No sé que sentimiento es. Es un poco raro, como que la gente cambia el idioma por tí, y sí que es un poco incómodo.

Patriciaren aurrean jendeak hizkuntza aldatzen du, euskaratik gaztelaniara. Baina Paularen kasuan alderantziz gertatzen da. Bezeroei harrera egiteko euskara erabili behar du, maiz. Eta bera ondo sentitzen da zerbitzu hori eskaintzeko gai delako:

Si yo no supiese euskera a estos visitantes que han venido hoy la visita se la tendría que haber hecho en castellano porque no quedaría otra, pero si ellos han solicitado la preferencia de idioma en euskera es porque se sienten más cómodos en ese idioma por tanto los visitantes han recibido la información en un ambiente más agradable y cómodo para ellos.

Paularentzat garrantzitsua da testuingurura egokitzea, eta euskarak horretarako aukera ematen dio: taberna “euskaldunetan” badago, euskaraz eskatuko du kontsumizioa. Bermeoko laguna bisitan baldin badatorkio, euskaraz egingo du berarekin: “esta amiga es muy euskaldun y hemos hablado todo el rato en euskara”.

Pozik dago, euskara dakielako eta txikitatik ikasi zuelako. Nahiz eta egunerokotasunean, erabilerara mugatua izan.

Hoy solo he hablado en euskera a la mañana en el ámbito de trabajo, en el resto del día no me ha hecho falta utilizarlo ya que con las personas que he estado preferían hablar en castellano, por tanto, pienso que yo solo hablo euskera cuando el resto de las personas “me lo piden”.

Paula eta Patricia euskara dute inguruan eta errealitate horren parte sentitzen dira, lotura gorabehera: azalekoagoa (“yo siento que mi idioma es el castellano, y el euskara me gusta mucho”) edo sendoago (“pues el euskara es un idioma milenario que está vivo, vale mucho y es parte de nuestra identidad y cultura”). Denborak emango digu lotura horien berri.

3.3. EUSKARA ARAU SOZIALEN AMARAUNEAN

Aurreko atalean ezagutu ditugu Paularen bizipenak. Bat bereziki ekarri nahi genuke hona. Haren egunerokoaren azken hitzak dira: “pienso que yo solo hablo euskera cuando el resto de las personas me lo piden”.

Gogoeta hau lagungarria da azken bizipen mota hau azaltzen hasteko. Goian, Jone, Julen, Ane eta Naroaren kasuetan, hizkuntzaren eta identitatearen arteko loturak aztertu ditugu. Ikusi dugu pertsona horiek hizkuntzarekin duten harreman estua, bi elementuak (“ni”-hizkuntza) bat sentitzeraino. Horrela, hizkuntzaren eta norbanakoren garapena deskribatu digute: heldutasunean aurrera egin ahala, hizkuntzarekiko kontzientzia piztuz joan da. Barrutik (norbanakotik) zein kanpotik (inguruko jendearengandik) sentitutako ardura litzateke.

Paulak eta Patriciak hurbil dute hizkuntza: paisaian, lan munduan edo lagun artean hautematen dute. Egoeraren eta unearen arabera, euskararekiko harremana aktibatzen egiten da. Orduan, nolabait esateko, sentitzen dute hizkuntza eurengana datorrela. Jai edo ospakizun batean, lagun batek euskaraz hitz egiten dienean, edo lanean, norbaitek euskaraz aritzea eskatzen duenean. Ñabardurak ñabardura, kasu horietan arazorik ez dute euskaraz egiteko, euskaraz erantzuteko eta hitz egiteko.

Euskara Euskal Herriko hizkuntza da, bertako ikur kulturala. Aberastasuna da, altxorra ere bai.

Orain arte landutako bi bizipen mota horietan, ikusi dugu harremanen munduak duen garrantzia, hizkuntza hautuan ez ezik, baita hizkuntzarekin lotutako bizipenetan ere. Elementu horretan sakondu nahi dugu hirugarren atal honetan. Izan ere, jasotako testigantzek harreman horiek jarri dituzte erdigunean.

Hizkuntza eta harremanak egunerokoan kudeatu beharreko gakoak dira, eta eginkizun horrek betetzen du pertsona hauen (hizkuntza) bizipenen erdigunea.

Mirenek dio harreman estua duela euskararekin. Familiarekin (zehazki amarekin) lotzen du bereziki, baita kulturarekin eta politikarekin ere. Familiako gertaera garrantzitsu batean, euskara eta errepresioa elkarrekin agertzen direla dio, eta horrek nolabaiteko arrastoa utzi duela, beragan eta familia osoan. Ikasketekin ere lotzen du euskara (unibertsitateko ikaskideak, liburutegia...), bere herriko kuadrillarekin eta kalearekin. Halere, berehala aitortzen du lagunekin gaztelaniaz egiten duela. Gaztelaniaren erabileraz galdetuta hauxe dio Mirenek: "Gaztelania gehiago lagunekin, lagun gehienekin erdaraz egiten dut. Festa giroan gehiago erdaraz, telebista ere erdaraz ikusten dut gehienbat".

Gabon garaian bete zuen berak egunerokoa eta arratsalde batez lagunekin aritu zen Gabon kantak abesten: "arratsaldean lagun artean hasi gara Gabonetako kantak kantatzen eta horrek grazia egin dit. Dibertigarria izan da." Horren aurrean, gogoeta hau egin zuen: "Euskara erabili daiteke egunerokotasunean eta txantxetarako ere bai".

Mireni euskararekiko kontzientzia familiaratik datorkio. Halere, bere testigantzak erakusten duenez, hori ez da nahikoa, praktikan, erabilerari eusteko. Hutsune horretaz jabetuta ere, euskararen inguruko aurreikuspen onak ditu:

Nik esango nuke euskararen etorkizuna hobea izango dela iragana baino, ze azkenean asko aurreratu degu honen inguruan. Gakoak izango lirateteke ba, abestiak esaten duen bezala: dakitenek erabiliz, eta ez dakitenek ikasiz. Baina bueno, nik uste euskara orain munduan zehar ezagunagoa egin dela, eta horregatik uste det etorkizuna hobea izango dela.

Aitorren bizipenek antza handia dute Mirenek kontatutakoekin. Bien lehen hizkuntza euskara da eta biek lotzen dute euskara, bereziki, familiarekin. Aitorrek dio euskaraz sentitzen dela bereziki eroso, baina, egun, aitortzen du "ez da orain erabiltzen dudana lehen hizkuntza". Lagunen artean, kuadrillan, gaztelania da nagusi gaur egun.

Egunerokoan, aukera zehatzak ditu euskaraz aritzeko eta "euskaldun" sentitzeko: Bergarako ikaskideekin ("Bergarako euskalkian hitz egiten dute") eta irakasleekin (zerbait galdetzen diedanean). Beste egoera puntual batzuk jaso ditu egunerokoan: manifestazio batera joan da, eta han euskaraz egin du garrasi; kirol taldeko kideekin Ordiziara joan da partida bat jokatzerako ("han ezagunak genituen eta hitz egiten euskaldun sentitu naiz. Euskara gehienbat beraiekin hitz egin dut, partiduan eta partidua amaitutakoan"); astean zehar bizi den erresidentziako kideekin musean jolastean euskara erabili du.

Kalean, lagunekin eta ezagunekin erdarara jotzen duela dio. Kezka puntu bat sortzen dio egoera horrek: "lagunekin, klasean bezala, euskaraz hitz egitea oinarrizkoa izan beharko luke. Eta lehen hizkuntza, klasean bezala, euskara izan behar zen". Baina errealitatea beste bat da, kuadrillakoekin bakarrik ez, baita oso gustukoa duen musika bandakoekin ere gaztelaniaz egiten du:

Ze gero taldekako entsaioan txarangako beste kideak ni baino helduagoak dira, ba 40 urte ingurukoak, ta beraiek ez dute hainbeste ohitura, ez dute euskara asko erabili beraien bizitzan, ta ez dugu hitz egiten hainbeste euskaraz.

Egoera horren aurrean, zer? "Bada, pixka bat ere euskara bultzatu beharko genuke".

Badirudi egunerokoaren ariketak ispilu baten aurrean kokatu duela, eta Aitor ez da guztiz eroso sentitu. Badaki erabilera dela arazoa, baina horri ihes egiteko joera hartzen du. Hori dela eta, pozik dago berarekin erresidentzian bizi diren kanpotarrak "ikasten ari direlako": "Nahi baduzu, ikas dezakezu euskara. Kanpotik datozenei eta ikasi nahi dutenei lagundu egin behar diegu".

Pozik agertu zen ere ikastolako ikaskide ohi batzuekin sagardotegira joan eta han euskaraz aritu zirelako ("ikastolan egiten genuelako euskaraz"). Pozik, une batean konturatzen delako lagunek, euskaraz egiten ez badute ere, oraindik badakitela: "nahiz eta ez hitz egin, badakigu, eta hasi beharko genuke euskara gure oinarrizko hizkuntza berriro izan dadin saiatzen".

Poz une txikiak dirudite hauek, gaztelaniaren inertzia apurtzean sortutakoak. Miren eta Aitor arau sozialen amaraunean harrapatuta sentitzen dira. Lagunartean gaztelaniaz agintzen du arauak; aldiz, helduen eta haurren artean edo irakasle-ikasleen arteko harremanetan, euskaraz. Familia askotan euskara tradizioa bilakatu da, familiaren historia eta istorioei lotuta. Ikastolako ikaskide ohien artean bezala, mus joan edo sagardotegietan bezala.

"Saiatu beharko genuke" egoerari buelta ematen, baina harreman sareak inertzien eta ohituren mende daude. Nola irauli egoera?

4. ONDORIOAK

Gernikan, Amorebieta-Etxanon, Zumaian eta Pasai Donibanen bildutako datuen azterketari amaiera jarri diogu, baita azken 10 hilabete hauetan egindako ikerketa lanari ere. Tartean, behaketa saioak, elkarrizketak, talde elkarrizketak, ibilbideak eta egunerokoak kudeatu ditugu, eta 55 lagunekin bildu eta hitz egin dugu.

Material honekin guztiarekin, prozesuaren hasieran mahai gainean jarritako galderen erantzuna bilatzen saiatu gara. Orain, une egokia izan daiteke txosten honen abiapuntuan zehaztutako helburuetara itzultzeko.

Azterketa honen helburu nagusia izan da gazteen euskararen erabilera eragiten duten aldagai kualitatiboak ezagutzera eta ikertzea. Bereziki, testuinguruarekin lotutako aldagaiak azaleratu nahi izan dira, arreta jarriz erabilera eragin dezaketen elementu soziokulturaletan.

Zehazki, ikerketaren asmoak hauek izan dira:

- Gazteen errealitatera eta egunerokotasunera hurbiltzea, haien bizitzan eta harremanetan garrantzitsuak diren elementuak jasotzea eta aztertzea.
- Erradiografia honetan kokaturik, gazteek hizkuntzen inguruan, eta bereziki euskararen inguruan dituzten ideiak (ideologiak), garatzen dituzten praktikak eta pilotzen dituzten bizipen zein sentimenduak jasotzea eta aztertzea.

Helburu horietatik abiatuta, sakon aztertu ditugu lau herriak. Tipula bat zuritu behar izango bagenu bezala, bakoitzaren ezaugarriak azaleratuz joan dira, geruza bat bestearen atzetik agertuz. Herriaren eta gazteen bizimodua aurrena; euskararen egoera orokorra eta gazteekin lotutakoa, ondoren. Hasierako hurbilpen hori eginda, beste urrats bat eman eta gazteengana jo dugu, zuzenean galdetzeko eta haien kontaktuzunak entzuteko.

Zer entzun dugu? Zer ikusi dugu? Zer ikasi dugu ariketa hau eginez? Tipularen irudiarekin jarraituz, orain, bildutako ideia nagusiak aletuko ditugu, ondorio gisa. Nabarmendu nahi ditugun ideiak dira hauek. Ez dira jarraibideak, gogoeta egiten jarraitzeko ildoak baizik; ez dira sendabide edo formula magikoak; gehienez, kontuan hartu daitezkeen oharak dira.

Gazteen artean hizkuntzaren erabilera handituko duen errezetaren bila gabiltza, baina ez dago formula magikorik. Denontzako balio duen formula bakarra ez dagoela uste dugu. Badira aztertutako lau herrietan errepikatzen diren elementuak; baina badira herri bakoitzarekin lotutako berezitasunak. Batetik zein bestetik aipatuko ditugu jarraian. Ondorioak zerrendatzeko garaian, txosten osoan jorratutako hiru ardatz nagusiak erabiliko ditugu: hau da, hizkuntza ideologiak, hizkuntza praktikak eta hizkuntza bizipenak. Hala nola, uste dugu hiru ardatz horien inguruan biltzen direla hitzunek hizkuntzarekin dituzten loturak eta esperientzia gehienak: hizkuntzaren inguruan duten ideia multzoa, hizkuntzarekin gauzatzen dituzten praktikak eta hizkuntzarekin lotutako bizipenak eta emozioak.

4.1. HIZKUNTZA IDEOLOGIAK

Hizkuntzen gaineko ideologiari dagokionez, hustuta aurkitu ditugu gazteak. Ez dute diskurtso sendorik eta garai bateko politizazioa¹⁹ ia desagertu egin da. Hizkuntza politikaren eta hizkuntza plangintzaren inguruan espreski galdetuta, ez dute erantzunik. Oro har, herrian hizkuntzarekin lotuta antolatzen diren ekimenen berri badute, baina ez dute parte hartzen: edo bai, baina “kontsumitzaile” gisa eta, gehienbat, ekimenek jai edo ospakizun itxura hartzen badute.

Euskalgintza oso urruti ikusten dute gehienek eta elkarrizketatutako gazte gehienak ez dira mugimendu horren parte (sentitzen). Mugimendu horretako kideek azpimarratzen dute egun ikusten duten arazo handienetako bat: gazteen hutsunea.

Euskaraldiak oihartzuna eman dio euskalgintzari, baina gazteen begietan zalantza eta galdera asko utzi ditu, bai dinamika berari dagokionez, bai parte hartzeari zein lorpenei dagokienez. Rolan inguruko nahasmena, rolan arteko bereizketa eta mailaketa, itxurakeria... aipatu dituzte gazteek, baina baita herritarren inplikazioa eta egingadako lana ere. Gazteen iritziz, inplikazio eta lan horrek aitorpena merezi du.

Diagnostiko, gogoeta eta diskurtso sendo baten faltan, gazteek aurreiritziak dituzte helduleku. Horiez baliatzen dira egunero, egunean zehar bizi dituzten hizkuntza egoerak kudeatzeko. Beste pertsonetik harremanetan zein hizkuntza jokaera hartu dute kezka nagusi, hiztun gisa dituzten hizkuntza baliabideekin hainbat egoeratan aurrera egiteko modua baino gehiago. Eta horretan bereziki trebeak direla ikusi dugu. Azkar sumatzen dituzte inguruko “aurpegi arraro” zein “harridura keinuak”. Euskara tartean dela, batzuen deserosotasuna arin antzematen dute. Eta hizkuntza aldaketa berehala dator. Euskaratik gaztelaniara. Di-da batean, automatikoki. Horrela, egun osoa konektatzen eta deskonektatzen igarotzen dute; batetik bestera igaroz. Ariketa hori oso barneratuta dute eta “naturaltasun” osoz egiten dute. Egoerak berehala “irakurtzen” dituzte, eta gatazkak edo talkak ekiditeko estrategiak aplikatzen dituzte. Ezin da ahaztu, gehienetan, egoera deseroso horietan inplikaturik daudenak ezagunak edo lagunak dituztela eta, horrelakoetan, tentsioa ekiditea nahiago dutela. Hori ez da kontu berria. Esate baterako, Soziolinguistika Klusterrak bultzatutako Aldahitz ikerketan ere nabarmen gelditu da gertuko arteko hizkuntza ohiturak direla aldatzen zailenak. Zenbat eta sendoagoa harremana, orduan eta garrantzitsuagoa aldaketa, “loturak ugariagoak baitira, eta horiek hizkuntzaren marka dute ezinbestean”²⁰.

Egoera horien adibide asko eman dituzte gazteek eta, gehienetan, esan dugun moduan, egunerokotasunean, ikasgeletan edo kuadrilla giroan gertatu ohi dira. Hau da, kide eta lagun artean. Horrek zer pentsatu eman digu. Iruditzen zaigu gazteek hizkuntza egoerak kudeatzeko baliabideak eta kultura mugatuta dituztela. Ziur aski antzeko errealitatearekin egingo genuke topo ikerketaren erdigunean helduak edo haurrak jarriko bagenitu.

¹⁹ Kasu honetan “politizazioa” esaten dugunean, politika “tradizionalaz” edo alderdietako politikaz ari gara; garai batean nahiko lotuta egon zena euskararen inguruko diskurtsoekin. Jakin badakigu “politika” zerbait zabalagoa eta konplexuagoa dela, feminismoak erakutsi duen moduan.

²⁰ Ikus: <http://www.soziolinguistika.eus/aldahitz>

Inpresioa dugu gazte hauek txikitatik, eskolaren eremuan, ohitu egin direla horrelako estrategietara: egoeraz jabetu eta jokaera horretara moldatu. Gutxi hitz egiten da, gutxi gogoetatzen da, gutxi adosten da. Hizkuntza aniztasunak gure herria eta gure bizimodua zeharkatzen ditu, baina asko dugu oraindik pentsatzeko eta, batez ere, hitz egiteko. Babes guneak ("safe spaces") beharko genituzke hizkuntzaren inguruan, hizkuntzari buruz eta hizkuntzaren gainean aritzeko. Burura datorkigu feminismoaren eremuan adierazpen bera erabiltzeko dagoen ohitura. Miren Guilló antropologoak horren aipamena egiten du bere doktorego tesian, eta horrela definitzen ditu espazio horiek (Guilló 2020, 134):

Feminismoan bereziki, espazio seguru izendatzeak talde horretan egoteko modua inplikatzeko du: gainontzekoen iritziak ez epaitzea; errespetuz entzutea; elkar ahalduzko espazioak sortzea; funtsean, lasaitasunez, askatasunez eta arduraz jokatzeko litzateke.

Eta ez gaude pentsatzen (ez behintzat derrigorrez) espazio berriak sortu beharraz. Nahikoa izango litzateke egungo espazioak ikuspegi honetatik ere lantzea eta, beharrezkoa balitz, birmoldatzea. Ikasgela bat, euskaltegiko talde bat, kirol talde bat, musika talde bat... bihurtu daitezke babes gune.

Bien bitartean, gazteek, estereotipoak lagun, euren egunerokotasuna kudeatzen dute, ahal duten moduan, eta, orokorrean sentsazio gogaikarri batekin: jakin bada-kite euskara gehiago erabili beharko luketela. Gehienek, haurtzarotik entzun dute, behin eta berriro, "euskaraz egin", familian batzuk, eskolan denok. Elkarriketatutako askorentzat, garai hori atzean geratu da, baina halere, lelo horren oihartzuna entzuten dute oraindik. Honekin lotuta, aipatu nahiko genuke gazte hauen hizkuntza ideologiaren oinarrian eskolaren eragina sumatzen dela. Gazte batzuen kasuan, gurasoak edo familiako kideak euskalgintzan edo herrigintzan murgilduta daude edo egon dira, eta, ondorioz, erreferentzia gehiago eduki ditzakete. Baina beste askorentzat eskola izan da hizkuntzaren gaineko ideiak, irudiak, erreferenteak edo baloreak jasotzeko bide bakarra. Eta kasu horretan ere, eskolak dituen mugak agerian geratzen dira. Eskolatik kanpo ez da aurkitzen gazteen testuinguruan bestelako hizkuntza eragilerik. Gutxitan topatuko dituzte aisialdian edo adinkideen artean; hau da, haien garrantzitsuak diren esparruetan.

Gazteen hizkuntza ideologian eskolak duen nagusitasuna aipatu da jada beste ikerketa batzuetan. Era berean, agerian geratu da haur, nerabe eta gaztetxoentzat garrantzitsuak diren bestelako esparruek hizkuntzaren arloan duten eragin mugatua. Soziolinguistika Klusterrak bultzatutako D ereduko kirola izeneko ikerketan²¹, argi geratu zen kirolak izugarritzko pisua duela adin talde hauetan, maila sinbolikoan (errepresentazio, ideia eta balioen garapenari dagokionez) zein maila praktikokoan (gazteen eguneroko jardunean). Halere, oro har, mezu, ideia eta eredu gutxi jasotzen dituzte euskararekin lotuta, eta, oro har, hizkuntza egoerarekin lotuta. Hizkuntzaz ari garela, kirolak (eta neurri handi batean aisialdiak) ez du, oraingoz, eskolak duen erreferentzialtasuna.

²¹ Ikusi: <http://www.soziolinguistika.eus/Deredukokirola>

Erreferente gutxi eta diskurtso ahulak. Aurreiritziak gidari eta lelo ikasiak, iritzi konzienteen orde. Politikoki zuzena dena berehala hautematen dute gazteek eta, horrekiko kritikoak²² badira ere, ezer gutxi egiten dute horren aurrean. “Postureo”-a, itxurakeria... salatu dute behin eta berriro ikerketan parte hartu duten gazteek, baina argi dute hori dela jarrera nagusia, gazte zein helduen artean. Eta kritikatzear gainera, ez dakite zer gehiago egin. Honekin lotuta, interesgarriak iruditu zaizkigu “Euskaraldiak” eragindako gogoetak. Kasu honetan, gazteek ekimenean berriz ikusi duten “itxurakeria” aipatu dute (“txapa” jarri eta kito), baina, aldi berean, asko izan dira herri mailan egindako lana eta jarritako ilusioa aitortu eta goraiatu dituztenak. Batez, beraz, irizpiderik jokaera ezberdinak interpretatzeko eta baloratzeko. Horregatik, uste dugu gazteekin edo gazteei begira egiten den guztiak ez duela balio, eta finfin jokatu behar dela. Batez ere, zintzotasunez, gardentasunez eta gertutasunez. Azken hori ezinbestekoa iruditzen zaigu une honetan. Horrela, uste dugu lehentasuneko dela datozen hamarkadetako hizkuntza politikak, plangintzak edo ekimenak gazteekin batera egitea, edo haien ekarpenekin behintzat. Orain arte helduok izan ditugun ardurak gazteekin partekatu beharko genituzke; haien kezkei bidea eman eta protagonismoa utzi. Erraza ez bada ere, egingarria ikusten dugu maila guztietan, baina batez ere, toki mailan: herrian, ikastetxean, aisialdian edo kirol taldean...

Neurri batean, gazteak ari dira, zenbait kasutan, lidergo hori hartzen, baina batez ere eskala txikian, haien erreferentziazko taldeetan. Hori da behintzat gazteen hizkuntza praktikak aztertzean sumatu duguna.

4.2. HIZKUNTZA PRAKTIKAK

Hizkuntza praktikak aztertzean, gazteek euskararekin egiten dutena eta egiten ez dutena arakatu dugu. Aurretik aipatu den moduan, norbanakoaren mailan jartzen badugu arreta, konturatuko gara gazte bakoitzak bere errealitatea (hizkuntza errealitatea barne) ahal duen moduan kudeatzen duela. Familiaren testuingurua eta, bigarren maila batean, hezkuntzaren testuingurua dira hizkuntza praktiken zutabe egonkorrenak. Horietan, hizkuntza arauak nahiko finkatuta daude eta, oro har, aldaketa gutxi gertatzen da: urteen poderioz, oso finkatuta dituzte hizkuntza ohiturak gurasoekin, anai-arrebekin eta gainerako familia kideekin (aitona-amonak, izebasabak, lehengusuak, eta abar.)²³. Aldahitz proiektua aipatu dugunean esan dugunez, testuinguru honetan oso zaila egiten zaizkie aldaketak. Hezkuntza, eskola, kasu gehienetan hizkuntza zutabe garrantzitsua da, baina ez beti, ez toki edo kasu guztietan. Jakina da euskarazko irakaskuntza oso zabaldua dagoela, behintzat Derrigorrezko Hezkuntza amaitu arte, baina hortik aurrera kasuistika oso zabala da, bai unibertsitatean bai lanbide heziketan. Batzuek ez dute aukerarik erdi edo goi mailako ikasketak euskaraz egiteko²⁴. Beste batzuek bai, baina kasu horietan ere egoerak askotarikoak dira.

²² Gure aldetik, oso ausarta iruditzen bazaigu ere, esango genuke, oro har, egungo gazteriak oso presente duela “itxurakeria” edo, euren hitzetan, “postureoa”. Oso trebeak dira zurikeria hori hautematen eta sarritan salatzen dute. Gutxiago hautematen dira beste jarrera mota kritiko batzuk.

²³ ARRUE ikerketaren arabera (2015), EAEko haur eta nerabe gehienek gaztelaniaz egiten dute beti edo nagusiki etxean. DBH2ko ikasleen artean, hamar familiarik bitan besterik ez da euskara familia hizkuntza (%22). Ikus: <http://www.soziolinguistika.eus/arrue>

²⁴ Esate baterako, EAEn Lanbide Heziketako ikasleen %20k besterik ez dute D erudian ikasten. (Iturria: Euskararen Adierazle Sistema, <http://www.euskadi.eus/eusadierazle>)

Gazte askok euren esperientziak kontatu dizkigute. Euskaraz matrikulatu dira unibertsitatean, baina bertan aurkitzen duten errealitatea etsigarria iruditzen zaie, euskararen erabilera edo euskara maila espero zutenetik urruti geratzen delako. Antza, irakasle-ikasleen arteko harremana da araututako ia gauza bakarra. Hor euskarak badu tokia; gainerako arloetan, esan den moduan, aniztasuna da nagusi.

Halere, familian zein hezkuntzan egoera edozein izanda ere, esparru horiek gazteen unibertsoetan duten eragin mugatuaz jabetu gara ikerketa egitean. Txosten honetan behin baino gehiagotan aipatu denez, familiak eta eskolak euskararen ezagutzarako eta erabilerarako oinarri bat ezarri dezakete (eta praktikan ezartzen dute); oso garrantzitsua den oinarria, baina jauzi handia sumatu dugu hortik erabilerara. Familia euskaldunetako gazteak aurkitu ditugu etxetik kanpo gaztelaniaz baino mintzo ez direnak. Hezkuntza ibilbide guztia euskaraz egin dute, baina unibertsitate giroan gaztelania dute hizkuntza nagusi. Eta kontrakoak. Familia ez euskaldunetan hazitakoak eta euskararen aldeko hautua egin dutenak. Etorkin gazteak, euskara lagunartean ikasi dutenak eskolan baino gehiago, eta harremanetarako hizkuntza bilakatu dutenak.

Beraz, familia eta eskola zutabeak dira, baina erabilera sostengatzeko ahalmen mugatua dute. Izan ere, etxeko zein ikastetxeko atetik kanpo eragin eskasa dute. Etxeko eta eskolako hizkuntza praktikek askotan ez dute hortik kanpo jarraipenik. Gazteen unibertsoan, gazteen kulturen, euskarak oinarri eta euskarri gutxi ditu. Kasu askotan, gazteen artean, hizkuntza 0-tik abiatzen da. Sare sozialak, ikus-entzunezkoak, musika, moda, kirola, kuadrilla, lokalak, diskotekak, jaiak... gazteen mundua betetzen duten elementu, produktu eta praktika dira, eta hor euskarak oso toki gutxi dauka. Gazteen kulturak eta euskarak bat egiten ez badute, erabileran eragiteko aukerak oso mugatuak izango direlakoan gaude. Gazte kultura horietan eraikitzen dituzte nerabe eta gaztetxoek euren identitatea, bizimodua eta mundua. Inporta zaiena hor dago, eta euskarak toki bat behar du unibertso horretan. Bestela, erabilera ez da handituko, erabilera helburu ez delako gazteen bizitzan. Erabilerak bidea izan behar du gazte gisa agertzeko. Horrela gertatzen da gazteen artean erabilera handiagoa den tokietan. Gernikan, adibidez. Txostenean jasota geratu den moduan, Gernikan gazteentzako erreferenteak diren zenbait gune daude, eta, horietan, euskararen erabilera trinkoa ikusi dugu, Iparragirre elkartearen kasu. Bertan, musikak eta euskarak bat egiten dute eta kideen arteko harremanak euskaraz gauzatzen dira. Kasu horretan, musika eta euskara parez pare doaz gazte identitatearekin batera.

Antzekoa ikusi dugu Zumaian. Bertan, kuadrilla baten praktikak aztertu ditugu eta kideen arteko harremanetan euskarak duen pisua hauteman dugu. Harremanak, konfiantza eta pertsonen arteko lotura estuak dira, kasu honetan, euskararen erabilerarako oinarriak. Hori ikusi dugu, adibidez, kanpoko²⁵ norbait iritsi denean taldera. Orduan kuadrillak bere izaera babesteko ahalegina egin du, hizkuntza ere babestearen alde eginez. Whatsapp-eko taldean denak gaztelaniaz hasi beharrean, beste talde bat sortu zuten kanpoko lagun horrekin harremanetan egon ahal izateko. Bi kasu horiek Gernikan eta Zumaian kokatuta daude, baina beste nonbait egon zitezkeen. Bi kasuetan, gazteen artean euskararen erabilera garatzeko oinarritzakoak diren elementuak topatu ditugu: gazteen berezko esparru bat, gazteen arteko konfiantzazko harremanak, hizkuntza(k) kudeatzeko baliabideak eta gaitasuna. Hizkuntza ezagutza

²⁵ Kasu honetan, Espainatik etorritako pertsona batez ari gara.

eta hizkuntza baliabideak funtsezkoak dira, noski, baina horiek ere denborarekin landu daitezke. Garrantzitsua da taldeak eta testuinguru zabalagoak (herriak, edo beste erreferentziazko taldeek) eskain dezaketen babesa.

Gernikako kasua aztertzean, herrian, euskara “erabateko egitate sozial” bezala irudika daitekeela nabarmendu dugu. Izan ere, Gernikan (Zumaian bezala) euskarak bizitza (ia) osoa blaitu egiten du, eta horrek, dudarik gabe, testuinguru bat jartzen dio gazteen erabilerari. Gernika eta Zumaia herri trinko gisa irudika daitezke. Identitate oso ezberdinekin, baina bi kasuetan, sendoa.

Amorebieta-Etxanon eta Pasai Donibanen, aldiz, ez egitura soziala ez sinbolikoa ez dira euskararen ikuspegitik hain sendoak eta irmoak. Amorebieta-Etxano, kanpotik, herri “maketo” gisa irudikatzen dute batzuek; beste batzuek Bilbori begira dagoen herria dela diote. Pasai Donibane euskalduna da, garai batean izan zelako. Baina garai hori mundu jakin batekin zegoen lotuta, arrantza munduarekin, egun desagertu dena. Izan al daiteke arraunaren mundua belaunaldi berriekin konektatzeko gakoa? Herriaren nortasuna berrasmatzeko aukera izan daiteke hori? Lortu al dezake Amorebieta-Etxanok lonjek edo gazteen lokalek duten talde egitura eta antolaketa eremu pribatutik publikora ateratzea? Lortu al daiteke alor pribatuko ekimenean parte bat behintzat herriko “plazara” ateratzea?

Gerniak eta Zumaiak dituzten baldintzei eustea litzateke helburua eta, aldiz, egun Pasai Donibanek eta Amorebieta-Etxanok dituztenak aldatu edo moldatu beharko lirateke erabilera datuak hobetzeko. Arlo eta eremu ezberdinetan dago zeregina: hizkuntza ezagutzan daude erronkak, ideologia edo diskurtsoen mailan ere bai, baita hizkuntza praktiken arloan ere. Baina ezin dugu norbanakoaren esparrua ahaztu. Izan ere, beharrezkotzat jotzen dugu hiztunen bizipenei eta emozioei ere erreparatzea.

4.3. HIZKUNTZA BIZIPENAK

Esan daiteke azkenengo lau hamarkadetan euskarazko irakaskuntza izugarri zabaldu dela. Jakina da, eskolaren bidez, belaunaldi berriak, milaka ume eta gazte euskaldundu direla. Baina hedapen horrek homogeneizazio faltsu baten irudia sor dezake.

Argi dago haur eta gazte guztiak ez direla modu berean euskaldundu. Denek ez dute euskara maila bera lortu. Baina, askotan D ereduko datuak edo euskararen ezagutza datuak ematean, badirudi irudi trinko edo konpaktu bat sortzen dela. Baina irudi hori urratu eta azpian dagoena jaso edo entzun nahi duenarentzat, testigantza eta bizipen askotarikoak agertzen dira. Horietako gutxi batzuk bildu ditugu ikerketan. Bildu eta sailkatu egin ditugu, nahiz eta ondo jakin sailkapen horri ñabardura asko egin behar zaizkiola.

Txostenean bertan azaldu den moduan, hiru testigantza mota hauteman ditugu, agian hiru (gazte) profil zirriborratzen lagun dezaketanak. “Agian” diogu, horien inguruan lanketa zabalagoa eta sakonagoa egin beharko litzatekeelako. Beste ikerketa baterako abiapuntua izan daiteke.

Lehenengo testigantza motan, azpimarragarria da hiztunak euskararekin duen lotura sendoa. Bertan, hiztunak eta hizkuntzak bat egiten dute. Estua izateaz gain, mamitsua ere bada harremana. Eta intimoa. Batera doazen heinean, errazago ohartzen dira gazteak hizkuntzarekiko duten harremana aldatuz joan dela denborak aurrera

egin ahala. Eta denborak aurrera egin ahala, euskararen egoerarekiko kontzientzia hartu dutela aitortzen dute. Egun, kezka eta ardura adierazten dute askok. Egiten dutena baina gehiago egin nahiko lukete, baina egunerokotasunean muga eta oztopo asko aurkitzen dituzte. Handiena, agian, ohiturak irauli beharra.

Bigarren testigantza multzoan, hizkuntza distantzia batekin bizi duten hiztunak topatzen ditugu. Lotura zuzena eta intimoa izan ordez, azalekoagoa da, eta aldizkakoa. Batzuetan "konektatu" egiten dute hizkuntzarekin; beste batzuetan, ez: egoeraren, tokiaren eta unearen arabera. Hizkuntza "gu" zabalago baten parte gisa identifikatzen da, identitate kolektibo baten ikur gisa ulertzen da; paisaian dago, kulturaren oro har..., eta hortik sortzen da hiztunarekiko harremana. Hizkuntza ospakizunekin, festarekin eta talde identitate horrekin lotzen da. Horren parte izan nahiak aktibatzen du hiztuna, une jakin eta berezietan, edo egoerak edota aurrean dauden pertsonen horrela eskatzen dutenean.

Hirugarren testigantza multzoan kokatutako hiztunak euskara harremanekin identifikatzen dute erabat; batez ere, horien kudeaketarekin. Ez bereziki pertsonari edo bizitza istorioari lotuta, ez paisaian edo ospakizunetan...; hizkuntza, batez ere, harremanen mategi kokatzen dute. Eta harreman horien baitan kudeatzen dituzte beren hizkuntza praktikak eta jokabideak. Euskararekin lotutako arau sozialak errespetatuko dituzte bereziki, batzuetan kontraesankorrak gertatzen bazaizkie ere. Zer hizkuntza erabili norekin, zer hizkuntza erabili egoera batean edo bestean... Ezarritako ohiturak bere horretan uztea da aukeratzen dutena. Izan ere, zenbaitetan, hizkuntza egoerak kudeatzea deserosoa eta nekagarria izan daiteke.

4.4. AZKEN OHARRAK

Honaino, txostenean landutako hiru ardatz nagusien gainean egindako laburpena eta azken gogoeta ariketa. Dena dela, dokumentua amaitzeko, bi hitz esan nahi ditugu ikerketa osoa zeharkatu duten bi elementuren inguruan. Gehien errepikatu diren elementuak dira. Eduki edo esanahi ezberdinekin bada ere, lau herrietan ikusi ditugun fenomenoak dira. Horregatik, horiek aipatuz bukatu nahi dugu analisi hau.

Batetik, beste behin ere "naturalizazioaren" nozioa azpimarratu nahi dugu. Askok aipatu dute hitz hau gazteek. Guretzat, behintzat, deigarria izan da behin eta berriro, eta testuinguru ezberdinetan, entzun behar izatea. Hizkuntza jokoerak eta joerak naturalizatu egin dituzte sarritan elkarriketatutako gazteek. Testuingurua, familia edo lagunartean arabera, "naturala" da euskaraz egitea; eta modu berean, testuingurua, familia edo lagunartean arabera, "naturala" da gaztelania aukeratzea. "Naturala" denaren azpian dagoenaz ez dakigu gehiegi, gazteek ere ez dutelako zehazten. "Natural" hitz egiten dute gazteek euskaraz Gernikan eta Zumaian, eta horrela ikusten da bai herri horietan baita kanpotik ere. Horrela, Amorebieta-Etxanon edo Pasai Donibanen naturala izan daiteke euskaraz ez egitea, edo familia euskalduna izanda euskaraz aritzea. "Natural" ateratzen zaie batzuei euskaraz aritzea; beste batzuei, gaztelaniaz. Zergatik? Noiz, nola eta zergatik naturalizatzen dira hizkuntza(k) eta hizkuntza erabilera(k)?

Ikerketan jaso dugunaren arabera, oro har, hizkuntza bat "naturalizat" hartzen da edo "natural" erabiltzen du -edo erabil dezake- hiztun batek: 1) familian euskara ikasi eta hitz egin duelako beti edo ia beti; 2) hiztun hori herri edo testuinguru oso euskaldun batean bizi delako; 3) hizkuntza modu "naturalean" erabili dezakeelako (hau da, hizkuntza horretan gaitasun eta jario nabarmena duelako); eta 4) dena

delako hizkuntzaren "marka"²⁶ ezartzeko aukerarik ez dagoelako. Oro har, esan daiteke baldintza horietan "natural" bizi eta erabiltzen dela hizkuntza bat.

Dena dela, elementu horien atzean, zer da naturala? Zer da kulturala? Frankismoak familia hizkuntzaren eremuan izandako eraginak erakutsi zigun arlo pribatuak duen izaera soziala eta politikoa, modu horretan erabili nahi izan zuelako diktadurak euskara desagerrarazteko. Egun ere, Familia Hizkuntza Politika izeneko ikerlerroak (*Family Language Policy*) adierazten digu eremu honetan ere hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza diseinatzen eta gauzatzen direla (Hernández 2015).

Gauza bera esan daiteke testuinguru soziolinguistikoaz. Eremuak (auzoak, herriak, hiriak, lurraldeak) ez dira, berez, hizkuntza batekin blaitzen. Komunitateak euskalduntzeko edo komunitateak euskarari eusteko ahaleginak egiten dira, askotan aurkako eraginei aurre eginez.

Bestalde, hizkuntza ezagutza eta gaitasunak erakutsi, landu eta garatu egiten dira, hainbat baliabide, tresna, ekimen edo egitasmoren bitartez. Eta Euskal Herriak badu horretan esperientzia luze, mamitsu eta aberatsa.

Azkenik, zer da "marka" bat etiketa sozial bat ez bada? Marka hori "orban" gisa irudikatzen badugu, horren izaera ulertzeko, Mary Douglass (1991) antropologoak garbitasunaren (purutasuna) eta arriskuaren inguruan egindako saiakeran erabiltzen dituen zenbait ideia aplikatu ahalko ditugu.

Haren hitzak ekarri nahi izan ditugu lerrootara (1991, 14):

La suciedad, tal como la conocemos, consiste esencialmente en desorden. No hay suciedad absoluta: existe sólo en el ojo del espectador. Evitamos la suciedad, no por un temor pusilánime y menos aún por espanto o terror religioso. Tampoco nuestras ideas sobre la enfermedad dan cuenta del alcance de nuestro comportamiento al limpiar o evitar la suciedad. La suciedad ofende el orden. Su eliminación no es un movimiento negativo, sino un esfuerzo positivo por organizar el entorno.

Hainbat testuingurutan edo zenbait une edo egoeratan, euskara orban bat izan daiteke, (hizkuntz) ordena kolokan jartzen duena. Eta horregatik hiztunak "markaren" pisua jaso dezake, eta horregatik sortzen da presioa orban hori desagertzeko, ordenara itzultzeko, berriz gaztelaniara jotzeko.

Jabetzen gara euskararen inguruan esandakoak balio dezakeela hainbat kasutan gaztelaniaren edo erdararen erabileran aplikatzeko. Seguruenik. Baina kasu honetan, azpimarratu nahi duguna da hizkuntzaren naturalizazioak duen karga kulturala. Edo beste hitz batzuekin esanda, kultura naturalizatzeko prozesuek duten indarra. Eta antropologian sarritan salatu den moduan, kultura naturalizatzen denean, dikotomiak eta parekotasunik eza ezkutuan geratzeko arriskua dago.

²⁶ Ikerketan parte hartu duten gazteek sarritan aipatu dute euskarak testuinguru batzuetan sortzen duen "marka": euskara erabiltzen duena "markatuta" gelditzen da, hau da, ageri edo nabarmen agertzen da, testuinguru zehatz horretan hizkuntza hori erabiltzeko ohitura ez dagoelako. Gazte askorentzat traba handia da hori euskara erabiltzeko. Hori esanda, argi dago gaztelerak ere hainbat egoeratan marka sor dezakeela.

Naturala dena, naturalki "ateratzen" zaiguna, aldaezina litzateke; ez du bestelako azalpen edo argudiorik behar, eta indibidualismoa bultzatzen du ("gazteak horrelakoak dira, zer egingo diogu?"), irtenbide kolektibo eta orokorrak alboratuz.

Gizarte zientzietan badakigu jokaera sozialaz ari garenean ezer gutxi dela naturala. Teresa Del Vallek sarritan ohartarazi digu diskurtso naturalistek bultzatzen dituzten iruzurrez (Del Valle 2006/2007, 51). Horregatik, "natural" hitza entzutean, nozio horrek ezkututzen duenak pizten digu interesa. Kasu honetan, nozio horrek ezkututzen duena, euskal gizarteak euskararen egoera hobetzeko azken hamarkadetan egindako lana dagoelakoan gaude. Herri bakoitzean eragileek egindako lana eta ahalegina dago. Ikusezin-edo bilakatu dena. Era berean, naturalizazioak gizarte eremu ezberdinetan gertatzen diren botere harremanak, desorekak eta parekotasunik ezak ezkututzen ditu. Inertzia naturalizazioaren eskutik doa, eta hausnarketa (soziolinguistikoa ere bai) egin ezean zaila dirudi joera horren kontra egitea.

Eta aurrera begira, zer?

Ikerketa hau egin eta gero, zenbait ikaspen atera ditugu, etorkizun hurbilean ditugun erronkei buruz pentsatzen laguntzen digutenak. Amaiera honetan, hiru aipatu nahi ditugu, bereziki argigarriak izan direlako eta, agian, beste batzuentzat ere horrela izan daitezkeelako. Lehenik, ikusi dugu azken urteotan gizartean izandako aldaketek, euskararen egoera "okertu" baino gehiago, agerian utzi dituztela euskarak aurretik zituen ahulguneak. Batzuetan, "arazo" gisa kontsideratutako zenbait fenomeno gizarte aldaketei egozten dizkiegu, baina praktikan "arazoak" aurretik zeuden. Gertatuko mudantzek agerian utzi dituzte gabezia horiek, besterik ez. Dolores Julianok migrazioaren inguruan egiten duen hausnarketa baliagarria iruditzen zaigu ideia hau argitzeko (Juliano 2002, 488):

Los problemas en la escuela suelen ser previos a la llegada de los hijos de los inmigrantes: falta de equipamiento, hábitat degradado, bajo nivel económico y social del conjunto del alumnado. Los recién llegados se transforman en el símbolo visible de esta situación que ellos no generan.

Bigarrenik, lehen aipatu dugun moduan, jabetu gara euskararen hedapenak (eskolarren bidez) irudi homogeen bat sortu duela ("Zumaia, euskaldun"). Horrek, praktikan, zenbait bereizketa eta arrakala estalita geratzea eragin du: jatorriak, adinak edo generoak sortutakoak, adibidez. Azkenik, eta beste ezerean gainera, argi ikusi dugu (hizkuntz) gizarte egitura zabal eta sendo baten beharra, datozen belaunaldietan erabilera mantendu eta handitu nahi badugu. Ezagutzak ez du erabilera ekarriko egitura hori gabe, eskolatik kanpo gazteen (euskararen) erabilera sostengatuko duen egitura hori gabe.

5. BIBLIOGRAFIA

Bucholtz, Mary; Casillas, Dolores Inés; Lee, Jin Sook. 2016. "Beyond Empowerment: Accompaniment and Sociolinguistic Justice in a Youth Research Program"; 25-42. <https://escholarship.org/uc/item/6033d7jj>

Del Valle, Teresa. 2006/2007. "Construcciones, significatividad y perspectivas futuras de la antropología feminista". *Kobie* 12; 35-60.

Douglass, Mary (1991). *Pureza y peligro. Un análisis de los conceptos de contaminación y tabú*. Madrid: Siglo XXI.

Hernández García, Jone M. 2015. "Familia hizkuntza-politika: transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 94; 47-62.

Juliano, Dolores. 2002. "Los desafíos de la migración. Antropología, educación e interculturalidad". *Anuario de psicología* Vol. 33, Nº. 4; 487-498.

Mauss, Marcel. 1971. *Ensayo sobre el don, forma y función del intercambio en las sociedades arcaicas*. Madrid: Sociología y Antropología.

Pujolar, Joan. 2008. "Els joves, les llengües i les identitats". *Noves SL. Revista de Sociolinguística* Hivern 2008. <http://www.gencat.cat/llengua/noves>.

Pujolar, Joan; GONZALEZ, Isaac; MARTINEZ, Roger (2017). "Gazte katalanen muda linguistikoak". *BAT Aldizkaria* 104: 51-70.

Sorolla, Natxo; Altuna, Olatz; Larrea, Imanol. 2019. "Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerrri mailako analisia". <http://www.soziolinguistika.eus/erabilerafaktoreak>.

6. ERANSKINAK

6.1. IKERKETAREN LEHENENGO FASEA

6.1.1. Adituekin-Arituekin elkarrizketa egiteko gidoia

Elkarrizketatuak gure ikerketaren berri izango duela pentsa dezakegun arren, elkarrizketa hasi aurretik, gogorarazi behar zaio zertan ari garen. Modu orokorrean bada ere, ikerketaren gaia eta helburuak aipatu behar dira. Baita noren izenean ari garen lanean ere (Soziolinguistika Klusterraren enkargua dela eta UPV/EHUko ikerlariak garela).

BETI, baimena eskatu behar da elkarrizketa grabatu ahal izateko. HAU GRABATU BEHAR DA. Hau da, grabagailua martxan jartzean entzun behar da gure ahotsa elkarrizketa grabatzeko baimena eskatzen eta elkarrizketatuak baimena ematen.

1. Sarrera (10 minutu)

- Elkarrizketatuen aurkezpen orokorra: beren kokapena herrian (bertakoa den, kanpotik etorri den, edo lanera datorren...)
- Zer dela eta harremana du herriko gazteekin, noiztik...

1.- Gazteei buruz hasi aurretik, herriari buruz bi hitz... (15 minutu)

- Herriaren deskribapen orokorra: ezaugarriak, elementu bereizgarriak (kanpotik etorritako norbait..., zertan erreparatuko luke edo zer egingo litzaioke deigarriena?)
- Herriko dinamika: zerk eragiten du mugimendua(k), bizimodua...?
- Zein esparruk, zein unek biltzen du jendea? (jaiak, kirola, politika, kultura...???)
- Biltzeko gune/une horietan, zein biltzen dira normalean? (helduak, gazteak, adindunak, umeak; gizonezkoak, emakumezkoak...)
- Kanean, ekimen sozialetan... zein daude agerian (ikusgai) eta zein ez, zer jende mota botatzen duzu faltan herrian (zein geratzen diren ikusezin)?
- Herria ezagutzen duzuetik... aldaketa bereziren bat nabaritu duzu edo baten bat nabarmenduko zenuke?

2.- Herriko gazteak (20-30 minutu)

- Nolakoak dira ezagutzen dituzun gazteak? Ezaugarriak. Zer familia motak dira?
- Zer gustatzen zaie? Zer egiten dute normalean?
- Non eta zertan ibiltzen dira? Asteazken zehar eta asteburuetan.
- Nola elkartzten edo taldekatzen dira? (zeren arabera: adina, ikastetxearen arabera, zaletasunen arabera...) Eta GENEROAREN ARABERA? Neskak batetik eta mutilak bestetik? Talde mistoak ikusten dira?
- Ezagutzen dituzu haien kezka, nahiak, estualdiak...?
- Sozialki... mugitzen dira? Zertarako? Zeren inguruan? Adibidez, parte hartzen dute herriko mobilizazioetan?

- Zerk du indarra gazteak erakartzeko?
- Herriko gazteen artean, ba al dago liderrik (norbanako edo taldeka)?
- Badago herrian gazteentzat erreferentea izan daitekeen norbait (politikari, kultur eragile, artista, musikaria, kirolaria...)?
- Gazte tipologiak egin daitezke? Zeintzuk lirateke?
- Herriko gazteak aurkitzeko nora joan beharko genuke? Non biltzen dira? (asteaz zehar eta asteburuetan). Lonja edo lokalen presentziari buruz galdetu.
- Zein dira herriko gazteen "ohiturak"?

3. Herria, euskara, gazteak..., zer nolako ekuazioa? (20-30 minutu)

3.1.- Herria eta euskara: kokapen orokorra:

- Euskararen ikuspuntutik, nola definituko zenuke herria?
- Ezagutzen duzu euskarak herrian izan duen historia edo ibilbidea? (euskara Francoren garaian, ikastolaren sorrera, euskaren inguruko taldeak...)
- Non, zertan, zeinen artean topatzen dugu euskara bizien?
- Zerekin lotzen da euskara herrian? Zer praktikarekin? Zein GUNEekin? Zein UNEekin? Zein talderekin? Zein izen-abizen edo pertsonarekin? Badago herrian hizkuntza ondare bat, ezaguna dena?
- Euskara herriko bizitzaren parte da? Herriko kaleetan dago? Herriko paisaiaren parte dela esango zenuke?
- AURRETIK EZ BADA AITATU EUSKARALDIAREN GAIA, orain aipatu: Euskaraldia, nola bizi izan da herrian? Nor mugitu da? Zer "mugitu" du Euskaraldiak?

3.2.- Herriko gazteak eta euskara

- Herriaren eta euskararen arteko harreman horretan (goian aipatu dena): non daude gazteak?
- Gazteen artean ikusi edo hautemandako jarrerak, diskurtsoak, praktikak...
- Euskara eta gazteak: zer tipologia bereiz daitezke? (bakoitzaren ezaugarriak)
- Euskararen erabileraren (edo EZ erabileraren) atzean hautematen diren faktoreak (elkarrizketatuaren arabera): Familia? Eskola? Aisialdia? Lagunak? Maila ekonomikoa? Ideologia? Generoa?
- Euskararekin lotutako ekimen positiboak (eragin positiboa eduki dutenak gazteen artean): izan direnak, daudenak

6.1.2. Herriko ibilbidea egiteko gidoia

Ariketa honen helburuak hauek lirateke:

- Herriko gazteek euren denbora (librea) non, norekin eta zertan ematen duten ezagutzea. Modu apalean bada ere, gazte horien bizimoduaren inguruko oinarritzko informazioa jaso nahi da. Herri bakoitzean, gazte izatea zer den ulertzeko saiakera egin nahi da.
- Gazteen esparruen berri jaso, toki horiek kokatu eta deskribatu.
- Herriaren “hizkuntza paisaia” eta, zehazki, gazte esparruen “hizkuntza paisaia” jaso eta deskribatu.

Teknika hau aurrera eramateko prozedura eta gidoia:

i. Prozedura:

- 1.- Harremanetan jarri pertsonarekin.
- 2.- Gogoeta ariketa sinple bat planteatu, bildu aurretik egiteko (ikusitako behean: “gaztearentzako gogoeta ariketa”).
- 3.- Elkartzeko eguna eta ordua adostu.
- 4.- Gazteak nahi duen tokian elkartu. Printzipioz, interesgarria litzateke toki hori izatea...:
 - * normalean lagunekin elkartzen den tokia.
 - * herriko gazteen (bere adinekoak) ohiko biltokia.
- 5.- Ibilbidea hasi. Elkarrizketa hasi (elkarrizketa grabatu beharko genuke, mugimenduan bada ere).

ii. Gidoia:

Herriko gazteen guneen mapa osatu nahi dugu (beraz, aurretik ekarri beharko luke zirraborro bat eginda. Zirraborro hori elkarrizketa egunean jasoko genuke). Beste ezer baino lehen, mapa horren gainean arituko ginateke, eta posible balitz bion artean toki horiek bisitatzeko ibilbidea adostuko genuke.

Goazen toki horiek ezagutzera.

- 1.- Toki bakoitzaren deskribapena:
 - Nolakoa da tokia?
 - Zer du tokiak gazteentzat erakargarria izateko? Zergatik dute gustuko gazteek hor biltzea?
 - Zertan aritzen dira hor gazteak? Zer egiten dute?
 - Edozein gazte talde biltzen da bertan? Edozein adinetakoak? Neskak zein mutilak? Familia euskaldun nahiz erdaldunetakoak? Bertakoak zein beste herri batzuetakoak?

Espazio eskusiboak dira (gazteentzat bakarrik) ala partekatuak (umeekin, helduekin...)?

Espazioak berdin erabiltzen dira astegunetan eta asteburuetan?

(*) Arreta berezia jarri beharko dugu "lonjen" fenomenoan: noraino dago zabaldua herrian? Zenbat? Zeintzuk dute lonja propio bat (adina, gazte tipologia)?

- 2.- Hizkuntza paisaia: ibilbidean zehar saiatuko gara elkarrizketatuen arreta pizten, bidean topatzen ditugun hizkuntza elementuen inguruan.

Euskararekin identifikatzen diren espazioak, zeintzuk dira? Non daude? Nor ibiltzen da leku horietan?

Kalean zehar goazela entzuten diren elkarrizketak: gaztelaniaz, euskaraz, zeintzuk hizkuntza batean, zeintzuk bestean...

Herriko hizkuntza topografia: zer auzo, gunee, tokitan... nagusitzen da euskara? Eta gaztelania?

Gazteen kasuan zehazki: zein da topografia hori (euskaraz noiz, non, zeinekin, zein praktikarekin lotuta... gazteen artean zer arau daude euskararen erabileraren inguruan -noiz onartua, noiz ez-).

- 3.- Gazte profilen inguruan: era berean, ibilbidean zehar saiatuko gara jasotzen herriko gazteen profilen inguruko informazioa.

Zer gazte mota aipatzen dituzte gazteek euren artean? "Gazte triburik" badago? Zeintzuk dira "tribu" edo tipologia horiek? Zer ezaugarri ditu bakoitzak? Zeren arabera sailkatzen dira taldeak, tipologiak edo "tribuak"? Interesgarria litzateke jakitea herrian ikastetxe bat baino gehiago dagoen ala ez. Ikastetxe bat baino gehiago dagoen kasuetan, publikoak/pribatuak diren... eta ikastetxeen inguruan sortzen diren beizketak (sortzen badira) nolakoak diren.

Oro har, gazte guztiak eskola eremuan biltzen dira, euskarak duen eremu nagusia, baina zer jarrera hautematen dira hizkuntzaren inguruan? Eta jarrera horiekin, zer praktika?

Badira herrian erreferenteak diren gazteak? Hau da, zein dira gazte "ospetsuak"? Zeren baitan dira erreferente edo ezagunak?

Eta inguruko herrietako gazteak, erreferenteak dira? Harremanak egin dira inguruetakoko herrietako gazteekin? Non? Zertan?

Amaitzeko, egindako mapan edo ibilbidean herriko zer gazte portzentaje biltzen den galdetuko genuke. Hau da, egin dugun ibilbidea eta aipatu ditugun bilguneak, tokiak... zenbat gazteentzat dira erreferente? (noski, ez gaude kopuru zehatz baten bila, baina jakin nahi dugu asko

edo gutxi diren, gehiengoa, gutxiengoa...). Era berean, galdetuko genuke "mapatik" kanpo geratzen diren gazteen ezaugarriak zeintzuk diren, orokorrean bada ere.

(*) Gaztearentzat gogoeta ariketa: elkarrizketatuko dugun gazteari eskatuko diogu gurekin bildu aurretik etxean mapa sinple bat marrazteko, bertan herrian gazteak biltzen dituzten esparruak kokatzeko asmoz. Eskatuko diogu, halaber, posible bada bereizteko (adibidez, bi kolore erabiliz) astegunetan erabiltzen diren gunek eta as-teburuetan erabiltzen direnak.

Eskatuko diogu mapa hori ekartzeko elkarrizketa egunean, ibilbidean erabiltzeko. Elkarrizketa amaitzean, mapa gordeko dugu.

(**) OHARRA: komeni da ibilbidean argazki batzuk egitea. Erotu gabe, baina behintzat lagin batzuk izateko. Gu oso "lanpetuta" baldin bagaude ibilbidea grabatzen (printzipioz, gaztearekin dugun elkarrizketa grabatu beharko genuke), argazkiak egiteko eska diezaiokegu gazteari. Horrela, bere "ikuspegia" jasoko dugu.

6.2. IKERKETAREN BIGARREN FASEA

6.2.1. Hizkuntza ideologiak: talde elkarrizketa egiteko gidoia

Kasu honetan, hizkuntza ideologiaz hitz egitea litzateke helburua. Horrekin batera, hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza ere izango lirateke hizpide. Dena gazteen errealitatetik, gazteen kulturatik, gazteen kezka eta interesetatik.

Diskurtsoa, ideologia, pentsatzen dutena, dituzten iritziak... jakin nahi ditugu.

0.- Sarrera.

- Gazte bakoitzaren aurkezpena: izena, adina, ikasten edo lanean ari den, bakoitzak gehitu nahi duena (zaletasunak, gustuak, herriaren inguruko iritziak...)
- Aurkezpen pertsonala egin dugu, eta hitzun gisa, nola aurkeztuko genuke geure burua hitzun gisa? Eta, zehazki, euskal hitzun gisa, nolako euskal hitzun gara? (bakoitzaren "istorioa", esperientzia, gaur egungo euskararekiko sentimendua, lotura...).
- Egunerokotasunean, bakoitzak bere testuingurua, bere eginbeharretan, non ikusten du euskara? Non, zer egoeratan du harremana euskararekin? Zer egoeratan ez?
- Eta zehazki, euren harremanen munduan zer rol du euskarak? (bereizi aurrez aurreko "harremanak" eta mundu digitalean dituztenak)

1.- Euskararen gaineko diagnostiko orokorra (gazteen aurrean nabarmendu behar dugu euren iritzia eta gogoeta interesatzen zaigula, euren inpresioak. Ez zaigu interesatzen ikustea edo neurtzea zenbat dakiten).

- Zein da oro har (Euskal Herriaz hitz egiten) euskararen egoerari buruz egiten dugun diagnostikoa/gogoeta? (gerta daiteke zaila egitea horrelako galdera orokor bati erantzutea; horrela bada, lagun daiteke diagnostiko hori zatikatzen. Beraz, galde dezakezu (1) euskararen ezagutzaren inguruan, (2) erabilerari buruz eta (3) euskararen gaineko jarrerei buruz).
- Ezagutzen dugu (kasu honetan ere, orokorrean, Euskal Herri mailan) euskararen inguruan egin dena edo egiten ari dena (betiere euskara bultzatzeko, euskararen ezagutza, erabilera...)? Zer ekimen ezagutzen ditugu? Zer iritzi dugu ekimen horien inguruan? Zer gustatzen zaigu? Zer ez zaigu hainbeste gustatzen? (galdera hau hainbat modutan planteatu daiteke, "gustatu" beharrean beste hitz bat erabiliz; adibidez, zer baloratzen dugu modu positiboan? Zer ez da hain positiboa?)
- OHARRA: interesgarria litzateke ikustea noraino gertatu den "transmisioa" euskalgintzaren inguruan, edo euskararen gizarte mugimenduen inguruan, ikastolen mugimenduan... Agian ez dugu galdera zehatz bat egin behar, baina bai buruan eduki ideia hau.
- Ezagutzen ditugu euskararen garapenean ari diren eragileak (orokorrean Euskal Herrian)? (egokia ikusten badugu, eska dezakegu ezagutzen dituzten eragileak zerrendatzeko, eta gero zerrenda horren gainean lan egingo dugu: Zer eragile dira nagusi? Nor ari da eragiten gehien euskararen egoeran?)
- Zerekin lotzen ditugu kontzeptu hauek? Hizkuntza politika, hizkuntza plangintza. Nola azalduko genituzke kontzeptu hauek?
- Eta euskalgintza? Badakigu zer den euskalgintza? Zertan aritzen den? Zeintzuk dira haren helburuak, lan esparruak...?
- Badugu non/norekin hitz egin euskararen egoerari buruz, galderak, kezak...? Badugu gaiaz gogoeta egiteko ohitura, aukera, gune aproposik?

2.- Euskararen egoera orokorra (gure) herrian.

- Euskarari dagokionez, zer egoeratan dago gure herria?
- Herri mailan, zein esparrutan du euskarak presentzia handiena? Eta txikiena?
- Euskararekin lotuta, zer eragile daude herrian? Zer nolako ekimenak bultzatzen dira nagusiki? Nola baloratzen ditugu ekimen horiek?
- Herrian euskalgintza bizirik dagoela esango genuke?

- Jakingo genuke esaten zein den herriko hizkuntza politika? Esango genuke herriak baduela hizkuntza plangintzarik (hau da, badago herrian plan bat euskara bultzatzeko?)
- Euskararekin lotuta, zer eragile daude herrian? Zer nolako ekimenak bultzatzen dira nagusiki? Nola baloratzen ditugu ekimen horiek?
- Nolakoa da gure parte hartzea?
- Herrian kokatuta, zer nolako ideiak, diskurtsoak, jarrerak... nagusitzen dira -zuen ustez- euskararekin lotuta?
- Eta zein izan da orain arteko gure jarrera?
- Azken urteotan aldaketaren bat sumatu dugu -euskararekin lotuta-? Zer joera ikusten ditugu? Etorkizuna, nola irudikatzen dugu? Zerk kezkatzen gaitu gehien? Zerk ematen digu itzaropena?
- Herriaren gainean egin dugun (hizkuntz) diagnostiko hau dela eta, nola definituko genuke gure herria?
- Eta non kokatzen dugu geure burua?

3.- Gazteak eta euskara, oro har zein herrian

- Gazteak garen heinean eta gure belaunaldian kokatuta..., nola ikusten dugu gazteen eginkizuna euskararen munduan: Zer egiten dugu gazteok? Zein da gure eginkizuna? Nola sentitzen gara eginkizun horrikin? Zer egin beharko genuke? (edo zer nahiko genuke egin?).
- Zer jarrera ikusten dugu gure inguruan? (gure adinkideen artean...): pasiboa, aktiboa, zertan aktiboagoak? Zertan pasiboagoak?
- Zer diskurtso entzuten ditugu inguruan? (gure adinkideen artean...)
- Badago gazteriaren artean gatazkarik? Hizkuntzak (euskarak) eraginik badu gazteen arteko tirabiretan edo gatazketan?
- Hizkuntza gatazka edo tentsio gune bilakatzen denean, nola bideratzen edo kudeatzen da tentsio hori?
- Ibiltzen garen esparruetan (feminismoa, gaztelekua, bestelako militantzia edo parte hartzeak...), euskara kezka da? (adibidez, berdintasuna, generoa edo feminismoa den bezala). Gure ustez, izan beharko luke?
- Hizkuntza politikan edo hizkuntza plangintzaren esparruan, gazteek parte hartu beharko lukete? Zentzua izango luke horrek? Eta, gazteen aldetik, interesa, kezka edo ardura egon daitekeela uste duzue?
- Zuen ustez, gazteen artean badago euskararen alde militatzeko gogorik? Euskara bada (gazteentzat) militatzeko gune bat? Zer nolako militantzia litzateke?
- Herriko gazteek badute lotura euskalgintzarekin? Nolakoa da lotura hori?

- Euskaraldia dela eta, nola bizi izan zenuten? Horren inguruan, gogoe-taren bat partekatu nahi duzue?

4. – AMAIERA EMAN

- Nola sentitu zara dinamika honetan zehar? Nola baloratzen duzu ho-rrelako dinamika bat?

6.2.2. Hizkuntza praktikak: talde elkarrizketa egiteko gidoia

Gazteen espazioak eta guneak arakatzea litzateke helburua, espazio edo gune hori-etako hizkuntza errealitatean sakonduz. Gune horietan euskara non dagoen eta non ez dagoen. Zer harreman, eta nolako harremanak gauzatzen diren, eta euskarak hor-harreman horietan- duen rola aztertuko genuke. Gune horietan gauzatzen diren praktikak interesatzen zaizkigu, eta praktika horiek euskaraz garatzeko dauden au-kerez, legitimateaz... hitz egingo genuke.

0.- Sarrera.

- Gazte bakoitzaren aurkezpena: izena, adina, ikasten edo lanean ari den, bakoitzak gehitu nahi duena (zaletasunak, gustuak, herriaren in-guruko iritziak...).
- Zer lotura du bakoitzak ikerketa gai den gunearekin (kirol taldearekin, musika taldearekin (?), kuadrillarekin, lokalarekin): noiztik bertan, bertan egindako ibilbidea...
- Zer toki hartzen du gune horrek bere bizitzan: garrantzia, pisua...
- Guneari eskaintzen dion denbora, arreta, konpromisoa...
- Gunean garatzen diren harremanak, zer pisu duten bestela euren bizi-tzan.

1.- Gunearen definizioa, izaera eta ezaugarriak.

- Nola iritsi zara talde horretara (kirol taldea, musika taldea, kuadrilla, lokala)? Norbaiten eraginez?
- Nola definituko zenuke (gunea: kirol taldea, musika taldea, ku-adrilla, lokala)? Imajinatu deskribatu behar diozula "kanpoko" norbaiti: Zer ezaugarri erabiliko zenituzke? Ezaugarri horietatik zein nabarmen-duko zenuke?
- Badu berezitasunen bat beste batzuekiko (beste kirol talde, mu-sika talde, kuadrilla edo lokalekiko? Zerk egiten du berezi?
- Ezagutzen dituzue horrelako beste talde batzuk? Zer iritzi -edo espe-rientzia- duzue horiekiko?
- Loturaren bat du herriko beste taldeekin? Nolako lotura? Zeren eragi-nez edo zeren inguruan?

- Esango zenukete taldea herrian txertatuta dagoela, herrian dagoen giroa edo ezaugarrien parte dela?
- Zer da (taldea) zuretzat?

2.- Gunearen dinamika eta harremanak.

- Zer egiten da bertan -elkartzen zareten- egun arrunt batean? Zein da bertako ohiko dinamika? Zein errutina daude? Zer jarduera burutzen dira bertan?
- Noiz edo zeren eraginez irteten dira gauzak ondo (taldean)? Zerk oztopatzen du martxa ona?
- Haserreak pizten dira? Zergatik edo zerk eraginda? Eta nola konponetzen dira arazoak?
- Badago ohitura bereziren bat? Erritu, ospakizun... bereziren bat?
- Eta arauak? Zer arau daude?
- Zenbat taldekide daude? Nolakoak dira?
- Nola definituko zenituzke kideen arteko harremanak?
- Dituzuen beste harreman batzuekin konparatuta, zer ematen dizuete harreman hauek?

3.- Gunearen hizkuntza praktikak.

- Zer pisu du euskarak talde harremanetan? Eta talde-praktiketan (taldeak egiten duen horretan, egiten diren ekintzetan, antolatzen diren planetan...)?
- Euskarari dagokionez (ezagutza, erabilera...), nola definituko zenituzkete taldekideak? Zer hiztun mota daudela esango zenukete? Zerk sortzen ditu ezberdintasunak?
- Zein da oro har erabilera? Zerk (egoerak, uneak, pertsonak...) laguntzen du euskararen erabileran? Zerk oztopatzen du?
- Esango zenukete badagoela nolabaiteko konpromisoa euskararekin? Praktika mailan edo diskurtsoan geratzen da?
- Aldaketak egon dira denboran zehar erabileran? Zer nolako aldaketak? Zerk edo zeinek bultzatuta?
- Euskararen inguruan hitz egiten da taldean? Horrela bada, zer jarrera/iritzi plazaratzen dira?
- Euskara dela eta, aldatuko zenukete zerbait egungo (hizkuntz) egoeran?
- Euskarari dagokionez, zer konparazio egin daiteke taldearen egoeraren eta herriko gazteen egoeraren artean? Asko aldatzen da inguruko herriekin konparatuta? Zertan? Zergatik?

6.2.3. Hizkuntza bizipenak: egunerokoa egiteko gidoia

Lehenengo zatia

OHARRA: lehenengo atal honetan agertzen diren galderak **BEHIN BAKARRIK** erantzun behar dituzu. Gomendatzen dugu egunerokoa egiten hasi aurretik erantzutea.

Lehenengo zati honetan, hiru galdera atal ikusiko dituzu. Ondo iruditzen bazaizu, eskatuko genizuke hiru atal horietan agertzen diren galderak audio batean erantzuteko. Edo, nahiago baduzu, hiru audio egin ditzakezu, bakoitzean atal bat erantzuteko. Zuk erabaki zer den zuretzat errazena edo egokiena.

Edozein kasutan, nahiago baduzu erantzunak idatziz eman, ez dago inongo arazorik. Adierazi hori zurekin harremanetan jarri den pertsonari.

1.- Nire burua (aurkezpena):

- Mesedez, aurkeztu zeure burua. Ez zaitugu ezagutzen, egin zeure buruaren argazki bat.
- Argazkia egin eta gero, aukeratu sei ezaugarri zeure burua definitzeko. Horrelakoa naiz: 1), 2), 3), 4), 5), 6)
- Astegun arrunt batean honetan ematen dut denbora gehiena (adib.: ikasten, lanean, lana bilatzen,))
- Eta horretan (ikasten, lanean, lana biltzen...) ez nagoenean, gustatzen zait (adib.: musika entzutea, kirola egitea, lagunekin egotea, atsedean hartzea...):
- Asteburuetarako plana honako hau izan ohi da:.....

2.- Nire testuingurua (harremanak):

- Zein pertsona sentitzen dituzu bereziki gertu (familiakoak, lagunak, ikaskideak, lankideak...)?
- Egunerokoan norekin duzu harremanik handiena? Herrikoak dira? Harreman "presentzialak" dira? Harreman birtualak?
- Aurrerago hitz egingo dugu hizkuntzei buruz, baina, momentuz, zer toki du euskarak harreman horietan (presentzialak edota birtualak)?
- Erraz moldatzen zara harremanak egiteko?
- Zure ustez, zer biltoki daude herrian? Orokorrean? Zure adinekoentzat?
- Nola definituko zenuke biltoki horietako giroa?
- Zer girotan sentitzen zara erosoan?

3.- Nire hizkuntza(k):

- Zenbat hizkuntza dakizkizu? (behintzat zertxobait hitz egiteko moduan)? Non, noiz edo nola ikasi duzu bakoitza?
- Zer harreman duzu hizkuntza horietako bakoitzarekin? Zer lotura sentitzen duzu?
- Zer hizkuntzatan sentitzen zara oro har erosoan?
- Zenbat euskara erabiltzen duzu? Noiz, norekin...
- Euskararen erabilerari dagokionez, garapen bat egon da? Nondik norakoa izan da zure ibilbidea euskarari dagokionez?
- Orokorrean, euskara zerekin lotzen dugu?

Bigarren zatia

Jarraian, beste eskaera bat dator. Mesedez eskatzen dizugu egunean zehar audio bat edo gehiago (beharraren arabera) bidaltzeko ondoren agertzen diren elementuekin lotutako pasadizo, pentsamendu, hausnarketa, gertaera, eszena, sentimendu, bizi-pen bat (edo bat baino gehiago)... partekatuz. Grabazioak astebetez (zazpi egunetan) bidaltzeko eskatzen dizugu.

Goiko atalean aipatu dugun moduan, erantzunak ahoz eman ordez idatziz eman nahi badituzu, ez dago inongo arazorik. Adierazi hori zurekin harremanetan jarri den pertsonari.

Azkenik, OHAR GARRANTZITSU bat: guk ez ditugu epaituko edo baloratuko esaten, egiten edo pentsatzen dituzun gauzak. Ez gara inor hori egiteko. Gure ikerketa osatzeko erabiliko ditugu bakarrik. Zentzu horretan, lasai eta zintzo joka dezakezu.

Hauk dira, EGUNEAN BEHIN erantzun beharreko galderak

- 1.- (Gaur) euskaldun sentitu naiz.... (edo ez naiz sentitu) ondorengo egoera/uneetan.
- 2.- (Gaur) euskaraz egin dut, nagusiki (Noiz? Norekin? Zertan? Zertarako?....).
- 3.- (Gaur) euskarari dagokionez, zer emozio/sentimendu izan ditut gaurko bizipenekin lotuta?
- 4.- Ondorio moduan: Zer hausnarketa egingo zenuke gaur euskararen inguruan?

6.3.2. Amorebieta-Etxano

Elkarrizketatutako mutilak eginiko argazkiak:





Elkarrizketatutako neskek eginiko argazkiak:





6.3.3. Zumaia

Elkarrizketatutako neskaren planoak:




Elkarrizketatutako hiru nesken planoak:



6.3.4. Pasai Donibane

Elkarrizketatutako mutilaren planoak:



Elkarrizketatutako neskaren planoak:

